



Martxoaren 3ko 20/1998 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen xedapenetara egokitzen duena.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Foru dekretu osoa jasotzen da bertan.

Zerga bereziak tributu itunduak dira, eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berberak erabiliko dira haiek arautzeko, betiere maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duenak, jasotakoaren arabera.

Foru dekretu honetan ez direnez sartu 2012ko irailaren 1etik aurrera Zerga Berezien abenduaren 28ko 38/1992 Legean egindako aldaketak, foru dekretua ez da aplikatuko 38/1992 Legeak une bakoitzean indarrean duen idazkeraren aurka doan edo harekin kontraesanean dagoen guztian.

AURRETIAZKO TITULUA	4
1. artikulua. Zerga Berezien izaera.....	4
2. artikulua. Aplikazio esparrua.	5
LEHEN TITULUA: FABRIKAZIO ZERGA BEREZIAK	5
I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK.....	5
3. artikulua. Fabrikazio Zerga Bereziak	5
4. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.....	6
5. artikulua. Zergagaia.	11
6. artikulua. Zergapetu gabeko kasuak.	12
7. artikulua. Zerga sortzapena.	12
8. artikulua. Zergapekoak.....	14
9. artikulua. Salbuespenak.	15
10. artikulua. Kuotak itzultzea.	16
11. artikulua. Etendura erregimena amaitzea.	17
12. artikulua. Oinarriak zehaztea.	18
13. artikulua. Zerga tasak.	18
14. artikulua. Kuotak jasanaraztea.	18
15. artikulua. Produktuak fabrikatzea, eraldatzea eta edukitzea.	18
16. artikulua. Batasun barruko zirkulazioa.	21
17. artikulua. Batasun barruko zirkulazioaren irregulartasunak.	22
18. artikulua. Kudeatzeko arau orokorrak.	24
19. artikulua. Urraketak eta zigorrak.	25
II. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK ALKOHOLAREN ETA EDARI ALKOHOLDUNEN GAINEKO ZERGA BEREZI GUZTIENTZAT	27
20. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.....	27
21. artikulua. Salbuespenak.	28



22. artikulua. Kuotak itzultzea	29
23. artikulua. Kanaria Irlei buruzko xedapen bereziak	29
III. KAPITULUA: GARAGARDOAREN GAINEKO ZERGA	30
24. artikulua. Esparru objetiboa	30
25. artikulua. Oinarri ezargarria	31
26. artikulua. Zerga tasak	31
IV. KAPITULUA: ARDOAREN ETA EDARI HARTZITUEN GAINEKO ZERGA	31
27. artikulua. Esparru objetiboa	31
28. artikulua. Zerga sortzea	32
29. artikulua. Oinarri ezargarria	33
30. artikulua. Zerga tasak	33
V. KAPITULUA: TARTEKO PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA	33
31. artikulua. Esparru objetiboa	33
32. artikulua. Zergapetu gabeko kasuak	33
33. artikulua. Oinarri ezargarria	34
34. artikulua. Zerga tasa	34
35. artikulua. Urraketak eta zigorrak	34
VI. KAPITULUA: ALKOHOLAREN ETA EDARI DERIBATUEN GAINEKO ZERGA	35
36. artikulua. Esparru objetiboa	35
37. artikulua. Zerga sortzea	35
38. artikulua. Oinarri ezargarria	35
39. artikulua. Zerga tasa	35
40. artikulua. Artisan distilazioaren erregimena	35
41. artikulua. Uztagileen erregimena	37
42. artikulua. Salbuespenak	38
43. artikulua. Kuotak itzultzea	39
44. artikulua. Kudeatzeko arau bereziak	39
45. artikulua. Arau urraketak eta zigorrak	39
VII. KAPITULUA: HIDROKARBURUEN GAINEKO ZERGA	40
46. artikulua. Esparru objetiboa	40
47. artikulua. Zergapetu gabeko kasuak	41
48. artikulua. Oinarri ezargarria	42
49. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak	42
50. artikulua. Zerga tasak	44
50.bis artikulua. Biokarburante eta bioerregaietarako zerga tasak	48
51. artikulua. Salbuespenak	48
52. artikulua. Kuotak itzultzea	50
52 bis. artikulua. Itzulketa partziala erabilera profesionaleko gasolioarengatik	51
52 ter artikulua. Itzulketa partziala nekazaritzan eta abeltzaintzan erabilitako gasolioarengatik	53
53. artikulua. Kudeaketa arau bereziak	54
54. artikulua. Erabilera debekatu eta mugatzea	56
55. artikulua. Urraketak eta zigorrak	57
VIII. KAPITULUA: TABAKO LABOREEN GAINEKO ZERGA	59
56. artikulua. Esparru objetiboa	59
57. artikulua. Zerga ez ordaintzeko kasuak	59
58. artikulua. Oinarri ezargarria	59
59. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak	59
60. artikulua. Zerga tasak	61
61. artikulua. Salbuespenak	63
62. artikulua. Kuotak itzultzea	64
63. artikulua. Kudeatzeko arau bereziak	64
IX. KAPITULUA: ELEKTRIZITATEAREN GAINEKO ZERGA	64
64. artikulua. Esparru objetiboa	65
65. artikulua. Definizioak eta xedapen erkideen egokitzenak fabrikazio zerga berezietan	65
66. artikulua. Oinarri ezargarria	67
67. artikulua. Zerga tasa	67
68. artikulua. Salbuespenak	67
69. artikulua. Xedapen bereziak Europar Batasunaren barruan energia elektrikoa salerosteari dagokionez	68
BIGARREN TITULUA; ZENBAIT GARRAIOBIDEREN GAINEKO ZERGA BEREZIA	69



70. artikulua. Zergagaia	69
71. artikulua. Salbuespenak, itzulketak eta murrizpenak.	74
72. artikulua. Sujetu pasiboak.	79
73. artikulua. Zerga sortzea	79
74. artikulua. Zerga oinarria.....	79
75. artikulua. Zerga tasa.....	80
76. artikulua. Zerga likidatzea eta ordaintzea.....	83
77. artikulua. Urraketak eta zigorrak.....	84

HIRUGARREN TITULUA: IKATZAREN GAINEKO ZERGA BEREZIA..... 85

78. artikulua. Eremu objektiboa.	85
79. artikulua. Aplikazioko lurralde eremua.	85
80. artikulua. Zerga-gaia.	85
81. artikulua. Zergari lotu gabeko kasuak.	86
82. artikulua. Salbuespenak.	86
83. artikulua. Kuotak itzultzea.	87
84. artikulua. Subjektu pasiboak	87
85. artikulua. Zerga sortzea	88
86. artikulua. Oinarri ezargarria.	88
87. artikulua. Zerga tasa.	88
88. artikulua. Zerga ordainaraztea.....	88
89. artikulua. Kudeaketa arauak.	88
90. artikulua. Urraketak eta zigorrak.....	89
XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA	89
XEDAPEN IRAGANKORRAK	90
Lehena.....	90
Bigarrena.....	90
XEDAPEN INDARGABETZAILEA.....	90
AMAIERAKO XEDAPENAK.....	91
Lehena. Indarrean jartzea.	91
Bigarrena. Arauak emateko ahalmena.....	91



Abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak, Euskal Autonomia Elkartearen Ekonomia Itunaren aldaketa onartzen duenak, berarekin ekarri duen aldaketa nagusietako bat, izan ere, Fabrikazio Zerga Bereziak itundu izana da. Horren bitartez, ordainarazteko eskumenaz gain, zergak foru aldundien lurralde esparruan sortzen direnean, erregulazioaren eskumena ere emango zaie lurralde historikoei, nahiz eta azken kasu horretan erabili estatuak momentu bakoitzean jartzen dituen arau substantibo eta formal berberak.

Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legera egokitzeko komenigarritasunaren irizpide bera erabilita, beharrezko irizten zaio Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudian Fabrikazio Zerga Bereziei buruzko erregulazioa sartzeari.

Gure araudian aipatu erregulazioa sartzeko lana hastean, ezin da ahaztu Gipuzkoako lurralde historikoan Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziari buruz araututakoa. Erregulazio hori, beste zerga berezi baten antzera, zerga berezien lege erregulazio osoa arau gorputz bakar batean jasotzen duen arau homogeneo batean sartu behar da.

Horretaz gain, kontuan hartu behar da abenduaren 30eko 66/1997 Legea, Zerga, Administrazio eta Gizarte Alorreko Neurriak hartzen dituenak. Izan ere, zerga figura berria sartzeko du Zerga Berezien barruan, hala nola: Elektrizitatearen gaineko Zerga, funtsezko erregulazioa abenduaren 28ko 38/1992 Legean sartuz. Horrek behartzen gaitu foru dekretu honetan bilatu nahi den erregulazioan zerga figura berria sartzera. Halaber, gainerako zerga berezien ituntze baldintza berberei lotuta dagoela ulertuko da.

Gauzak horrela, Zergen Foru Arau Orokorak 13.1 artikuluan xedatutakoaren babesean, premiazko arrazoiengatik eta gaurko bileran Diputatu Kontseiluak eztabaidatu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

AURRETIAZKO TITULUA

1. artikulua. Zerga Berezien izaera.¹

¹ Artikulu hau otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUAren 4. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen du. Aldaketa 2007ko urriaren 27an jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren likidazioetan aplikatuko da. (2008-02-15eko GAO).



1. Foru dekretu honetan araututa dauden zerga bereziak zeharkako tributuak dira. Kontsumo jakin batzuk zergapetzen dituzte, eta fase bakarrean estatuaren lurralde esparruan ondasun jakin batzuk fabrikatzea, inportatzea eta, hala badagokio, sartzea kargatzen dute, bai eta garraiobide jakin batzuk matrikulatzea eta ikatza kontsumitzeko saltzea ere, foru dekretu honetako arauei jarraiki.

2. Zerga berezitzat hartuko dira Fabrikazio Zerga Bereziak eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia eta Ikatzairen gaineko Zerga Berezia.

2. artikulua. Aplikazio esparrua.²

1. Zerga bereziak Gipuzkoako lurralde historikoan exijituko dira, foru dekretu honetan xedatutakoaren arabera, Ekonomia Itunaren 5. artikuluan lehenengo atalean eta Estatu espainiarrak sinatu eta baieztatu edo atxikimendua eman dien nazioarteko itun eta hitzarmenetan jasotakoa eragotzi gabe.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainaraziko ditu zerga bereziak, arau hauei jarraituz:

a) Fabrikazio Zerga Bereziak: sortzapena Gipuzkoako lurralde historikoan gertatzen denean.

b) Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia: garraiobideen behin betirako matrikulazioa Gipuzkoako lurralde historikoan egiten denean.

Matrikulazioa, alor horri buruz indarrean dagoen araudian jasotako irizpideen arabera egingo da. Nolanahi ere, pertsona fisikoek Gipuzkoako lurralde historikoan matrikulatuko dute garraiobidea, zerga helbidea bertan dutenean.

c) Ikatzairen gaineko Zerga Berezia, sortzapena Gipuzkoan gertatzen denean.

LEHEN TITULUA: FABRIKAZIO ZERGA BEREZIAK

I. kapitulua: Xedapen orokorrak

3. artikulua. Fabrikazio Zerga Bereziak

Ondoko hauek hartuko dira fabrikazio zerga berezitzat:

1. Alkoholaren eta Edari Alkoholdunen gaineko Zerga Berezi hauek:

² Artikulu hau otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUAren 4. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorreari buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen du. Aldaketa 2007ko urriaren 27an jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren likidazioetan aplikatuko da. (2008-02-15eko GAO).



- a) Garagardoaren gaineko Zerga.
- b) Ardoaren eta Edari Hartzituen gaineko Zerga.
- c) Tarteko Produktuen gaineko Zerga.
- d) Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko Zerga.

2. Hidrokarburoen gaineko Zerga.

3. Tabako Laboreen gaineko Zerga.

4. Elektrizitatearen gaineko Zerga.

4. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.³

Titulu honen ondorioetarako, honako hauek definitzen dira:

- 1. “Barruko lurralde eremua”: fabrikazio zerga bereziak abenduaren 28ko 38/1992 Legeak, zerga bereziei buruzkoak, 3. artikuluan ezarritakoaren arabera aplikatu behar diren lurraldea.
- 2. “Batasunaren gainerako lurralde eremua”: Erkidegoaren lurraldea, barruko lurralde eremua kenduta.
- 3. “Autokontsumoa”: fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen kontsumoa edo erabilpena, produktu horiek etendura erregimenean dituzten establezimenduen barruan egindakoa.
- 4. “Aisialdiko abiazio pribatua”: titularitate publikokoa ez den hegazkin bat erabiliz jabeak edo, errentamenduz zein beste edozein tituluz, hura erabil dezakeen beste pertsonaren batek egiten duen abiazioa, helburuak merkataritzakoak ez direnean eta, batez ere, bidaiariak nahiz merkantziak garraiatzeko edo kostu bidezko zerbitzuak emateko egiten ez denean.
- 5. “Erreferentziazko administrazio kodea”: behin zirriborroaren datuak balioztatuta, estatu kide igorleko agintari eskudunek administrazio agiri elektronikoari esleitutako erreferentzia zenbakia. “ARC” siglak izango dira kode honen erreferentzia.
- 6. “NC kodeak”: 1987ko uztailaren 23ko (EEE) Erregelamenduak (zenbakia: 2658/87) ezarritako nomenklatura konbinatuko kodeak. Fabrikazio zerga berezien aplikazio esparru objektiboa zehazteko, oro har aplikatuko dira nomenklatura konbinatuan merkantziak sailkatzeko ezarrita dauden irizpideak,

³ Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 2 artikuluko bat apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.



eta bereziki, honako hauek: nomenklatura konbinatua interpretatzeko arau orokorrak, nomenklatura horretako sekzio eta kapituluko oharak, Aduanetako Lankidetza Kontseiluak merkantziak izendatzeko zein kodifikatzeko erabiltzen duen sistema harmonizatuaren azalpen oharak, Kontseilu horrek hartutako sailkapen-irizpideak, eta Europako Erkidegoen nomenklatura konbinatuko azalpen oharak.

7. “Erkidegoa” eta Erkidegoaren lurraldea”: erkidegoa osatzen duten estatu kideen lurraldeak, Europar Batasunaren Eraketa Ituneko 229. artikuluan estatu kide bakoitzerako definituta dauden bezala, honako nazio lurralde hauek izan ezik:

- Alemaniako Errepublika Federalean: Helgoland uhartea eta Büsinghen lurraldea.
- Frantziako Errepublikan: itsasoz haraindiko departamentuak.
- Italiako Errepublikan: Livigno, Campione d'Italia eta Lugano lakuko uren eremu italiarra.
- Finlandiako Errepublikan: Aland uharteak.
- Erresuma Batuan: Kanaleko uharteak.
- Espainiako Erresuman: Kanariar uharteak, Ceuta eta Melilla.

8. “Gordailuzain baimendua”: fabrika baten edo gordailu fiskal baten titularra den pertsona edo entitatea, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 35.3 artikuluan aipatua.

9. “Harrerako gordailua”: hartzaile erregistratu baten titularitatepean dagoen establezimendua, noizbehinkakoa ez dena, non estatu kide hartzaileko agintariak emandako baimenaz baliatuta eta bere lanbidean diharduela, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak jaso ditzakeen beste estatu kide batetik iritsita eta etendura erregimenean.

10. “Gordailu fiskala”: fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak etendura erregimenean gordailatu, jaso, bidali, eta, hala dagokionean, eraldatzeko baimena duen establezimendua edo oliobide nahiz gasbide sarea, horretan aritzeko arauz ezarritako baldintzak eta beharkizunak bete behar dituen.

11. “Hartzaile erregistratua”: martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 35.3 artikuluan aipatzen duen edozein pertsona edo entitate, zeina baimenduta dagoen, bere lanbidearen barruan eta arauz ezarritako baldintzen arabera, bere titularitatepeko harrera gordailu batean fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak jasotzeko, beste estatu kide batetik iritsita eta etendura erregimenean. Arauz ezarritako baldintzak eta beharkizunak betez gero, hartzaile erregistratua baimendua gera daiteke, noizean behin, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen igorpen jakin bat etendura erregimenean jasotzeko beste estatu kide batetik. Horrelako kasuotan, ez du zertan izan harrera gordailu baten titularra.



12. “Zuzeneko entrega”; fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak etendura erregimenean zirkulatzea helmugako estatu kideko agintariek zuzenean entregatzeko baimendu duten lekuraino, arauz ezarritako baldintzen arabera, baldin eta leku hori estatu kide horretako gordailuzain baimenduak edo hartzaile erregistratuak adierazitakoa bada.

13. “Igorpen bermatuak”: fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak Batasunaren barruan zirkulatzeko prozedura, non produktuek jatorrizko estatu kidean baitute zerga sortzapena, eta helmugako estatu kidean baimenduta dagoen hartzaileak jasotzen baititu, 63. artikulua barruko lurralde eremuan produktuak jasotzeko buruz ezartzen dituen murrizpenekin, baldin eta produktu horiek saltzaileak berak edo berorren kontura zuzenean nahiz zeharka bidaltzen edo garraiatzen ez baditu, eta erregelamenduz ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzen badira.

14. “Estatu kidea” eta “Estatu kidearen lurraldea”: Erkidegoa osatzen duten estatuetak bakoitzaren lurraldea, Europar Batasunaren Eraketa Ituna aplikaziozkoa duena 299. artikuluan dioenaren arabera, 30. puntuan aipatzen diren hirugarren lurraldeak alde batera utzita.

15. “Igorle erregistratua”: martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorak, 35.3 artikuluan aipatzen duen edozein pertsona edo entitate, zeinak inportazioko estatu kideko agintari eskudunek emandako baimenaz baliatuta, ahalmena duen, bere lanbidearen barruan eta agintari horiek ezarritako baldintzen arabera, zerga bereziei lotutako produktuak inportazio lekutik bakarrik bidaltzeko etendura erregimenean eta praktika libreko bidalketaren unean, 2913/92 (EEE) Erregelamenduaren 79. artikuluen arabera.

16. “Esportazioa”: fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak barruko lurralde eremutik irtetea Erkidegoaren lurraldetik kanpora bidaltzeko. Aldiz, ibilgailuen andel arruntetan eta edukiontzi berezietan dauden karburanteak Erkidegoaren lurraldetik irtetea ez da esportaziotzat hartuko, eremu horretatik irteteko garaian ibilgailuen funtzionamendurako erabiltzen direnean.

17. “Fabrika”: fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak etendura erregimenean erauzi, fabrikatu, eraldatu, biltegitatu, jaso eta bidaltzeko baimenduta dagoen establezimendua, horretan aritzeko erregelamenduz ezarritako baldintzak eta beharrezkoak bete behar dituenak.

18. “Fabrikazioa”: fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak erauztea eta horiek beste batzuetatik abiatuta lortzeko beste edozein prozesu egitea, eraldaketa barne, artikulua honen 32. apartatuan definitzen den bezala, betiere foru dekretu honen 15. artikuluko 3. apartatuan jasotakoa eragotzi gabe.

19. “Inportazioa”: fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak Erkidegoaren lurraldean sartzea, non eta lurralde horretan sartzeko momentuan ez zaien aduanako etendura erregimen bat aplikatzen, eta, orobat, produktu horiek kontsumorako bidaltzea aduanako etendura erregimen batetik aplikatuta.

20. “Nazioarteko itsas edo aire nabigazioa”: barruko lurralde eremutik abiatu eta bertatik kanpo amaitzen dena, edo alderantziz. Orobat, nazioarteko itsas



nabigaziotzat hartzen da itsas zabaleko nabigazioan dabilen itsasontziek egindakoa, baldin eta industria, merkataritza edo arrantza jardueran aritzen badira (garraioa alde batera utzita) eta nabigazioaren iraupena (eskalarik gabe) berrogeita zortzi ordutik gorakoa bada.

21. “Aisialdiko nabigazio pribatua”: titularitate publikokoa ez den itsasontzi bat erabiliz jabeak edo, errentamenduz zein beste edozein tituluz, hura erabil dezakeen beste pertsonaren batek egiten duen nabigazioa, helburuak merkataritzakoak ez direnean eta, batez ere, bidaiariak nahiz merkantziak garraiatzeko edo kostu bidezko zerbitzuak emateko egiten ez denean.

22. “Hornigaiak”: ontzi barruko hornidurak, erregaiak, karburanteak, lubrifikatzaileak eta erabilera teknikoko gainerako olioak.

23. “Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak”: zerga horietako bakoitzaren eremu objektiboan sartuta dauden produktuak.

24. “Ontzi barruko hornidurak”: eskifaiaren eta bidaiarien kontsumorako soilik bideratuta dauden produktuak.

25. “Jasotzaile baimendua”: martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 35.3 artikuluan aipatzen duen pertsona edo entitatea, zeinak baimena jaso duen, arauz ezarritako baldintza eta beharkizunak beteta, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktu jakin batzuk zerga sortzapeneko estatu kidetik jasotzeko, helburuak merkataritzakoak direnean.

26. “Aduanako etendura erregimena”: Erkidegotik kanpoko merkantziak Erkidegoaren aduana lurraldean, aldi baterako gordailuetan edo zona zein gordailu frankoetan sartzeko unean aduanako kontrolari begira 2913/92 Erregelamenduak (EEE) aurreikusten dituen erregimenetako edozein, eta, orobat, erregelamendu horren 84. artikulua 1. apartatuko a) letran aipatzen dituen erregimenetako edozein.

27. “Etendura erregimena”: fabrikazio zerga bereziei lotuta baina aduanako etendura erregimenetatik kanpo dauden produktuen fabrikazio, eraldaketa, edukitza eta zirkulazioari aplikagarria zaien zerga erregimena, zerga berezien aplikazioa etetea dakarrena.

28. “Ordezkaritza fiskala”: Erkidegoko beste estatu batean finkatuta dagoen saltzaileak urrutiko salmenten sisteman izendatutako pertsona edo entitatea, Espainiako zerga Administrazioaren baimena jaso duena, arauz ezarritako baldintzak bete ondoren, berak ordezkatzen duen saltzaileak bidalitako produktuen fabrikazio zerga berezien ordainketa bermatzeko eta, horren ondoren, ordainketa urrutiko saltzailearen ordezkari egiteko.

29. “Hirugarren herrialdea”: Ituna aplikaziozkoa ez den estatu edo lurraldea.

Monakoko Printzerria, San Marino, Erresuma Batuen mendebaldeko Akrotiri eta Dhekelia zonak, eta Man uhartea ez dira hartuko hirugarren herrialde gisa.



Aurrekoa hala izanik ere, zerga bereziei lotutako produktuen mugimenduek honako hau dutenean jatorria edo helmuga:

- a) Monakoko Printzerria, jatorria edo helmuga Frantzian duten mugimendutzat hartuko dira;
- b) San Marino, jatorria edo helmuga Italian duten mugimendutzat hartuko dira;
- c) Erresuma Batuen mende dauden Akrotiri eta Dhekelia zonak, jatorria edo helmuga Txipren duten mugimendutzat hartuko dira.
- d) Man uhartea, jatorria edo helmuga Erresuma Batuan duten mugimendutzat hartuko dira;

Zerga bereziei lotutako produktuen mugimenduek Jungholz eta Mittelberg (Kleines Walsertal) dutenean jatorria edo helmuga, Alemaniatik irten nahiz bertara egiten diren mugimendutzat hartuko dira.

30. "Hirugarren lurraldea":

a) Erkidegoaren aduana eremuan sartzen diren ondoko lurraldeak:

- Kanariar uharteak.
- Frantziako itsasoz haraindiko departamentuak.
- Aland uharteak.
- Kanaleko uharteak.

b) Itunaren 299.4 artikuluan aipatzen diren lurraldeak.

c) Erkidegoaren aduana eremuan sartzen ez diren ondoko lurraldeak:

- Helgoland uhartea
- Büsingen lurraldea
- Ceuta
- Melilla
- Livigno
- Campione d'Italia
- Lugano lakuko uren eremu italiarra.

31. "Zergarik gabeko dendak": Espainiako lurralde penintsularreko edo Balear uharteetako portu edo aireportuetan kokatuta dauden establezimenduak, arauz ezarritako baldintzak betez gero edari alkoholduak zein tabako laboreak



zergarik gabe saldu ditzaketenak hirugarren herrialde edo hirugarren lurralde bat helmuga duten hegaldi edo itsasaldietako bidaiariei euren ekipajea eramateko.

Aurreko paragrafoan aipatu diren establezimenduek ezingo diete bidaiariei zergarik gabe saldu ez garagardorik, ez tarteko produkturik eta ez edari deribaturik, euren ekipajea sartzeko denean eta helmuga Kanariar uharteak dutenean.

Zergarik gabeko dendatzat hartzen dira, orobat, Kanariar uharteetako portu edo aireportuetan kokatuta egonik, eta arauz ezarritako baldintzak beteta, bidaiariei garagardoa, tarteko produktuak edo edari deribatuak saltzen dizkieten establezimenduak, hegaldian edo itsasaldian euren ekipajea eramaten dituztenean barruko lurralde eremutik kanpora joateko.

Aurreko paragrafoetan adierazitako hegaldi edo itsasaldiak dirauen bitartean aireontzi edo itsasontziaren barruan egiten diren salmentak zergarik gabeko establezimenduek egindako salmentekin parekatuko dira.

32. “Eraldaketa”: fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak lortzea helburu duen fabrikazio prozesua, zerga horiei ere lotuta badauden baina bestelako tributazioa duten produktuetatik erabat edo zati batean abiatuta egiten dena. Eraldaketatzat hartzen da, baita ere, abiapuntuko eta amaierako produktuak berdin zergapetuta egiten den eragiketa, baldin eta lortutako produktu kantitatea prozesuan erabilitakoa baino handiagoa bada. Desnaturalizazio eragiketak eta markatzaileak edo trazatzaileak gehitzeko eragiketak eraldaketatzat hartzen dira beti.

33. “Urrutiko salmentak”: fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak Batasunaren barruan zirkulatzeko sistema, non produktuek dagoeneko jatorrizko estatu kidean sortu baitute zerga, eta eroslea ezin baita izan beste estatu kide batean finkatutako gordailuzain baimendua edo hartzaile erregistratua. Gainera, erosleak ezin du jarduera ekonomiko independenterik egin produktu horiei dagokienez, 63. artikuluan ezarrita dauden murrizpenekin. Hori guztia baldin eta produktu horiek saltzaileak berak edo bere kargura zuzenean edo zeharka bidaltzen edo garraiatzen baditu eta erregelamenduz ezarritako beharkizunak betetzen badira.

5. artikulua. Zergagaia.⁴

1. Fabrikazio zerga bereziei lotuta daude erkidegoaren lurralde eremuan zerga horiei lotutako produktuak fabrikatzea eta inportatzea.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa aplikaziozkoa izango da zerga bakoitzaren barruko lurralde eremuan dauden produktuei dagokienez.

⁴ Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 2 artikuluko bi apartatuak gehitzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.



3. Aurreko apartatueta jasotakoa aplikatuko da foru dekretu honen 23. eta 40. artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe.

6. artikulua. Zergapetu gabeko kasuak.

Zergapetu gabe daude fabrikazio edo inportazio kontzeptupean:

1. Fabrikazio Zerga Bereziei lotutako produktuen izaerari dagozkion galerak, suspentsio erregimenean gertatu direnean fabrikazio, eraldaketa, gordailatze eta garraiatze prozesuetan, baldin eta erregelamenduz jarritako arauei jarraiki aurrez finkatutako portzentaieetatik gorakoak ez badira eta horretarako jarritako baldintzak betetzen badira.

2. Fabrikazio Zerga Bereziei lotutako produktuen izaerari dagozkion galerak, erregimen suspentsiboan gertatu direnak ustekabeen edo ezinbestez, baldin eta erregelamenduz finkatutako portzentaieetatik gorakoak ez badira edo, handiagoak izan arren, benetan badaudela frogatu bazaio Zerga Administrazioari zuzenbidean onargarria den edozein bitarteko erabiliz.

3.⁵ Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak erabat suntsitzea edo ezin berreskuratzeko moduan galtzea, suntsipena edo galera gertatu den estatu kideko agintari eskudunek hala baimenduta, baldin eta produktu horiek etendura erregimenean badaude.

Produktuak erabat suntsitu direla edo galera berreskurazina izan dutela joko da zerga bereziei lotutako produktu gisa erabili ezin direnean eta egoera hori suntsipena edo galera gertatu den estatu kideko agintariei behar den era frogatzen zaienean.

7. artikulua. Zerga sortzapena.⁶

Foru dekretu honen 23., 28., 37. eta 40. artikuluetan ezarritakoa baztertu gabe, kasu hauetan sortuko da zerga:

1. Fabrikazio kasuetan, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak fabrikatik edo gordailu fiskaletik irteten direnean edo autokontsumitzen direnean. Dena den, produktu horiek etendura erregimenean irtengo dira fabrikatik edo gordailu fiskaletik, helburua hauetako bat denean:

⁵ Apartatu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 2 artikuluko hiru apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.

⁶ Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 2 artikuluko lau apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.



a) zuzenean beste fabrika edo beste gordailu fiskal batzuetara bidaltzea, zuzeneko entrega bat egitea, hartzaile erregistratu bati ematea, edo esportatzea;

b) fabrikazio zerga bereziei lotu gabeko produktuak fabrikatzea, xedea esportazioa denean, baldin eta arauz ezarritako baldintzak betetzen badira.

c) Kontseiluaren 2008/118/EE Zuzentarauak, 2008ko abenduaren 16koak, zerga berezien araubide orokorra ezarri eta 92/12/EEE Zuzentaria indargabetzen duenak, 17.1 artikuluko a) letraren iv) apartatuan aipatzen dituen hartzaileetako bati bidaltzea.

2. Inportazioak egiten diren kasuetan, inportazioko aduana-zorra sortzen den momentuan. Dena den, inportatutako produktuak fabrika batera edo gordailu fiskal batera zuzenean bidaltzen direnean, edo horien xedea zuzeneko entrega bat, hartzaile erregistratu bat (produktuak Erkidegoaren lurraldetik kanpora bidaltita) edo Europar Batasuneko beste estatu kide batean kokatutako hartzaile bat (Kontseiluaren 2008/118/EE Zuzentarauak, 2008ko abenduaren 16koak, zerga berezien araubide orokorra ezarri eta 92/12/EEE Zuzentaria indargabetzen duenak, 17.1 artikuluko a) letraren iv) apartatuan aipatzen dituenetako bat), etendura erregimenean egingo da inportazioa.

3. Hartzaile erregistratu bati egindako bidalketak direnean, hartzaile horrek produktuak helburuko tokian jasotzen dituen momentuan.

4. Zuzeneko entregaren kasuan, sortzapena gertatuko da lotutako produktuak zuzeneko entregaren lekuan jasotzen diren momentuan.

5. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak etendura erregimenean edukitzen badira edo erregimen horretan zirkulatzen badute, sortzapena gertatuko da produktuak zergari ez lotzea dakartenak ez bezalako galerak gertatzen diren momentuan, edo momentu hori ezagutzen ez bada, galera horiek egiaztatzen diren momentuan.

6. Urrutiko salmenten kasuan, produktuak hartzaileari ematen zaizkion momentuan.

7. Hartzaile baimendu bati egindako bidalketak direnean, hartzaile horrek produktuak helburuko tokian jasotzen dituen momentuan.

8. Etendura erregimenean egindako zirkulazioak irregulartasunak izan baditu, zirkulazioa abiatu den egunean gertatuko da sortzapena, betiere irregulartasuna noiz gertatu den frogatzen ez bada, horrelakoetan une hori izango baita sortzapenaren unea.

9. Irregulartasunak gertatzen badira fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen batasun barruko zirkulazioan eta haien zerga beste estatu kide batean sortu bada, irregulartasunak gertatzen diren unean sortuko da zerga, eta une hori ezezaguna bada, horiek aurkitzen diren unean.

10. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen zirkulazioan horien erabilera desegokia ez bada justifikatzen duten erabilera dela-eta alde zuzenetik



salbuespenen bat edo tasa murrizturen bat aplikatu zaienean, sortzapena gertatuko da produktuak jasotzeko baimendutako hartzaileari ematen zaizkion unean. Ez da hala izango, ordea, erabilera desegoki hori gertatu den eguna behar bezala frogatzen bada, horrelako kasuetan une hori izango baita sortzapenaren unea. Produktuak ematen bazaizkio horiek jasotzeko baimenduta ez dagoen hartzaileari, zirkulazioa hasten den unean izango da sortzapena.

11. Foru dekretu honek 8. artikulua 8. apartatuan aipatzen dituen kasuetan, aurreko apartatuen arabera sortzapenaren unean; une hori ez bada ezagutzen, zergapekoak produktuak eskuratzen dituen edo haien edukitza hasten duen egunean sortuko da zerga, eta horren ezean, ordainketarik eza detektatzen denean.

12. Artikulu honen 1. apartatuan xedatutakoa xedatuta ere, fabrikatik edo gordailu fiskaletik etendura erregimenaz kanpo irtendako produktuak hartzaileak ezin izan baditu jaso, osoan zein zati batean, baimendutako gordailuzain igorleari egozgarri ez zaizkion arrazoiengatik, produktuak irteerako establezimenduetan sartu ahal izango dira berriro, betiere arauz ezartzen diren baldintzak betetzen badira, eta irteera horretan zergaren sortzapenik ez dela gertatu joko da.

8. artikulua. Zergapekoak.⁷

1. Foru dekretu honen ondorioetarako, zergapekoak izango dira dekretu honetan bertan ezarritakoagatik zerga obligazioak dituzten pertsona fisiko zein juridikoak eta entitateak.

2. Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, honako hauek:

a) Gordailuzain baimenduak, sortzapena produktua fabrikatik edo gordailu fiskal batetik irtetea edo autokontsumoa dela-eta gertatzen denean.

b) Aduanako zor bat ordaintzera behartuta dauden pertsona fisiko zein juridikoak eta entitateak, sortzapena inportazio baten ondorioz gertatzen denean.

c) Hartzaile erregistratuak, produktuak jasotzean sortutako zergari dagokionez.

d) Jasotzaile baimenduak, beraiei zuzendutako produktuak jasotzean sortutako zergari dagokionez.

e) Gordailuzain baimenduak eta hartzaile erregistratuak, zuzeneko entregak direnean.

3. Subjektu pasiboak dira, zergadunaren ordezkio gisa, foru dekretu honek 4. artikulua 28. apartatuan aipatzen dituen zerga ordezkariak.

⁷ Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 2 artikuluko bost apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.



4. Gordailuzain baimenduak behartuta daude zerga zorra ordaintzera edozein estatu kidetara etendura erregimenean igorritako produktuei dagokienez, hartzaileak jaso ez dituenean. Horretarako, bermea eratu beharko dute arauz ezarriko den moduan eta zenbatekoan, Europar Batasun osoan balio izateko. Halaber, beste estatu kide batzuetakoak izanik estatu horietan bermea eratzen duten zergapekoek Espainian ordaindu beharko dute, beraiek igorritako ondasunei dagokienez, horiek batasunaren barruan zirkulatzean barruko lurralde eremuan gertatutako irregulartasunei dagokien zerga zorra.

Gordailuzain baimenduak eta garraiolariak apartatu honetan aipatzen den erantzukizuna partekatzea adostu badute, zerga Administrazioak garraiolari horren aurka jo ahal izango du erantzule solidario gisa.

Erantzukizuna amaituko da hartzaileak produktuen kargua hartu duela edo esportazioa egin dela frogatzen denean.

5. Inportazioen kasuan, zergaren ordainketaren erantzule solidario izango dira, arlo horretako araudiaren arabera aduanako zorra solidarioki ordaindu behar duten pertsona fisiko zein juridikoak eta entitateak.

6. Foru dekretu honen 17. artikuluan aipatzen diren irregulartasunen kasuan, zergaren ordainketaren erantzule solidario izango dira produktuek Batasunaren barruan zirkulatzeko unean irregulartasunak gertatu diren modalitatearen arabera ordainketa bermatzeko obligazioa duten pertsona fisiko zein juridikoak eta entitateak.

7. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen zirkulazioan edo haiei emandako erabileraren edo destinoaren justifikazioan irregulartasunak gertatzen badira erabilera horregatik aldeztu aurretik salbuespenen bat edo tasa murrizturen bat aplikatu zaienean, igorleek ordaindu beharko dituzte bai zerga eta bai ezar litezkeen zigorrak, harik eta produktuak jasotzeko baimendutako hartzaileak jaso dituela frogatu arte. Horiek jaso izana frogatutakoan, hartzaileek izango dute ordaintzeko obligazioa.

8. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak foru dekretu honen 16. artikuluan jasotako kasuetatik kanpo eduki, erabili, merkaturatu edo garraiatzen dituztenak zerga zorra ordaintzera behartuta egongo dira, zerga horiek Espainian ordaindu direla frogatzen ez dutenean.

9. Igorle baimenduak behartuta daude zerga zorra ordaintzera etendura erregimenean igorritako produktuei dagokienez, hartzaileak jaso ez dituenean. Erantzukizuna amaituko da hartzaileak produktuen kargua hartu duela edo esportazioa egin dela frogatzen denean.

9. artikulua. Salbuespenak.

1. Foru dekretu honetako 21., 42., 51., 61. eta 68. artikuluetan jasotakoa eragotzi gabe, salbuetsita egongo dira, erregelamenduz jarritako baldintzetan, Fabrikazio Zerga Bereziei lotutako produktuen fabrikazioa eta inportazioa, baldin eta helburu hauetara zuzenduta badaude:



- a) Diplomazia edo kontsulen harremanen esparruan ematea.
- b) Espainian nazioarteko organizazio gisa aitortutako erakundeak eta organizazio horietako kideak, organizazio horien eraketako nazioarteko hitzarmenetan edo egoitza itunetan jarritako mugetan eta baldintzetan.
- c) Ipar Atlantikoko Tratatuaren kidea den Espainiaz besteko edozein estatutako indar armatuak, eta 90/6407/EEE Erabakiaren 1. artikuluan aipatutako indar armatuak, indar horiek edo horren menpeko langile zibilak erabil ditzaten edo haien jantoki eta kintinak hornitu daitezen.
- d) Beste herrialde batzuekin edo nazioarteko erakundeekin egindako hitzarmen baten markoan kontsumitzea, baldin eta hitzarmen horretan hala onartu edo baimentzen bada Balio Erantsiaren gaineko Zergaren salbuespenaren alorrean.
- e) Ondorengo itsasontziak hornitzea, nolanahi ere aisiarako nabigazio pribatukoak izan ezik:
 - 1. Nazioarteko nabigazioan aritzen direnak.
 - 2. Itsas sorospen edo laguntzari atxikiak, salbu itsasontzietan hornidurak ematen dituztenak, nabigazioaren iraupena, eskala kontuan hartu gabe, berrogeita zortzi ordutik gorakoa ez denean .
- f) Aisiarako abiazio pribatuaz bestela nazioarteko aire nabigazioan aritzen diren aireontziak hornitzea.
- 2. Erregelamenduz jaso ahal izango da aurreko apartatuan aipatutako salbuespenak lehendik ordaindutako zergak itzuliz emateko aukera, bai eta itzultzeko kuota erosketa prezioaren portzentaia baten moduan zehazteko aukera ere, kuota eta prezio horiek aurreko aldietan lortutako balioen arabera.

10. artikulua. Kuotak itzultzea.

- 1. Foru dekretu honek 9., 17., 22., 23., 40., 43., 52. eta 62. artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe, ondorengo hauek izango dute Fabrikazio Zerga Bereziak itzultzeko eskubidea, erregelamenduz jarritako baldintzetan:
 - a) Zerga horiei lotutako produktuen edo, horiei lotu gabe ez egon arren, lotuta dauden beste produktu batzuk barne hartzen dituzten produktuen esportatzaileek, produktu esportatuei dagokienez lehendik ordaindutako kuotengatik.
 - b) Zerga horiei lotu gabe dauden baina bai lotuta dauden beste batzuk produkzioarako zuzenean edo zeharka erabili dituzten produktuen esportatzaileek, jasanaraziz edo produktuen prezioetan sartuz lehendik ordaindu direla frogatzen diren produktu esportatuen kuotengatik. Inola ere ez dute itzulketa eskubiderik sortuko erregai edo karburante gisa erabilitako produktuek.
 - c) Estatuaren lurralde esparruan zerga sortarazi duten Fabrikazio Zerga Bereziak lotutako produktuak gordailu fiskal batean sartzen dituzten enpresariak, geroago



Europako Batasuneko beste estatu kide batera bidaliak izateko asmoz. Enpresariak sartutako produktuen kuotak itzuliko dira; eta Batasun barruko erregimen suspentsiboko zirkulazioari buruzko arauari jarraiki produktuak helburuko estatuan jaso direla frogatzera baldintzatuko da itzulketa.

d) Estatuaren lurralde esparruan zerga sortarazi duten Fabrikazio Zerga Bereziei lotutako produktuak Europako Batasuneko beste estatu bateko jasotzaile baimenduei saltzen dizkieten enpresariak. Enpresariak saldutako produktuen kuotak itzuliko dira; eta Europako Batasuneko helburuko estatuan zerga ordaindu dela frogatzera baldintzatuko da itzulketa.

e) Estatuaren lurralde esparruan zerga sortarazi duten Fabrikazio Zerga Bereziei lotutako produktuak, zuzenean edo zeharka, beraiek edo beren kontura bidali edo garraiatzen dituzten enpresariak, Espainiaz bestelako estatu batean helbideratutako pertsonentzat, Europako Batasunaren barruko urrutiko salmenten bidezko zirkulazio sistemaren markoan. Enpresariak bidali edo garraiatutako produktuen kuotak itzuliko dira; eta helburuko estatuan zerga ordaindu dela frogatzera baldintzatuko da itzulketa. Produktuak fabrika edo gordailu fiskal batetik bidaltzen badira, erregelamendu bidez finkatzen den zuzeneko konpentsazioko prozedura erraztuaren bitartez itzuli ahal izango dira kuotak.

2. Foru dekretu honetan aitortutako itzulketa kasu guztietan, enpresariak itzultzen zaizkien kuoten zenbatekoa haiek jasandako kuoten berbera izango da. Dena den, zenbateko hori zehatz-mehatz kalkulatzea ezinezkoa denean, itzulketa eskubidea sortzen duen eragiketa egiten den egunaren aurreko hiru hilabeteetan indarrean dagoen tasa aplikatuko da kuotak kalkulatzearren.

3. Foru dekretu honetan jasotako kasu guztietan, zergaren itzulketa behin-behinek baimendu ahal izango da. Behin-behineko likidazioak behin-betikoak izan daitezke Ikuskatzailtzak egindako egiaztapenaren ondorioz edo bost urteko epearen barruan egiaztatu ez direnean itzulketa eskubidea sortzen duen eragiketaren egunetik aurrera.

11. artikulua. Etendura erregimena amaitzea.⁸

Foru dekretu honen 23., 28. eta 37. artikuluetan ezarritakoa baztertu gabe, etendura erregimena honako kasuetan amaitzen da, betiere arauz ezartzen diren baldintzak betetzen badira:

a. Zergaren sortzapena dakarten kasuetako edozein gertatzeagatik.

b. Produktuak esportatzeagatik.

⁸ Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 2 artikuluko sei apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.



12. artikulua. Oinarriak zehaztea.

1. Foru dekretu honetako 40. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, oinarri ezargarriak zuzeneko zenbatespenaren erregimenean zehaztuko dira.
- 2.⁹ Oinarri ezargarrien zeharkako zenbatespena Zergen Foru Arau Orokorrak 52. artikuluan jasotako kasuetan eta moduan izango da aplikaziozkoa.

13. artikulua. Zerga tasak.

1. Zerga tasa aplikagarriak sortzapenaren momentuan indarrean daudenak izango dira.
- 2.¹⁰ Aurreko apartatua xedatutakoa xedatuta ere, foru dekretu honek 17.A).2 artikuluan aipatutako kasuetan aplikatuko den tasa produktuak bidaltzean indarrean dagoena izango da.

14. artikulua. Kuotak jasanaraztea.

1. Sujetu pasiboek kuoten zenbatekoa jasanarazi beharko diete Fabrikazio Zerga Bereziei lotutako produktuen erosleei, eta hauek kuotak jasatera behartuta egongo dira.
2. Produktuak erregimen suspentsiboan besteren kontura fabrikatu, eraldatu edo gordailatzen direnean, sujeta pasiboak eragiketaren hartzailea den horri jasanarazi beharko dio kuoten zenbatekoa.
3. Ez da bidezkoa izango ikuskatzailatza akten ondorio diren likidazio kasuetan eta oinarrien zeharkako zenbatespeneko kasuetan ateratzen diren kuotak jasanaraztea.
- 4.¹¹ Zerga kuotak ordaindu dituzten fabrikazio zerga berezien subjektu pasiboek Zergen Foru Arau Orokorrak 75. eta 77. artikuluetan Gipuzkoako Foru Aldundiari eta udalei aitortzen dizkien eskubide eta berme berberak izango dituzte, zerga kuota horiek jasatera obligatuta daudenen aurrean, eta epemuga iritsi zaien eta obligatu horiek ordaindu ez dituzten kredituetan integratutako kuota horien zenbatekoagatik.

15. artikulua. Produktuak fabrikatzea, eraldatzea eta edukitzea.

⁹ 2. apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako zortzigarren xedapenaren 1 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

¹⁰ Apartatu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 2 artikuluko zazpi apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.

¹¹ 4. apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako zortzigarren xedapenaren 2 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).



- 1.** Fabrikazio Zerga Bereziei lotutako produktuak fabriketan fabrikatuko dira suspentsio erregimenean.
- 2.** Aurreko apartatuan xedatutakoa xedatuta ere, gordailu fiskalen barruan egin ahal izango dira produktuak desnaturalizatzeko nahiz trazatzaileak edo markatzaileak gehitzeko eragiketak, bai eta erregelamenduz jasotzen diren eraldaketako beste eragiketa batzuk ere.
- 3.** Aurreko apartatueta xedatutakoa xedatuta ere, fabriketatik eta gordailu fiskaletatik kanpo, foru dekretu honen ondorioetarako eraldaketa izaera eman gabe, eraldaketa eragiketak egin ahal izango dira zerga sortarazi duten Fabrikazio Zerga Bereziei lotutako produktuetatik abiatuta, baldin eta eraldaketan erabilitako produktuen kuoten batura txikiagoa ez bada azkenean lortutako produktuari zegokiona baino.
- 4.** Fabrikazio Zerga Bereziei lotutako produktuak fabrikatu, eraldatu, manipulatu, gordailatu edo saltzeko jarduerak, bai eta horien egiten dituzten establezimenduak ere, etengabeko kontuhartzailetzapean egon daitezke.
- 5.**¹² Foru dekretu honek 10. artikulua 1 apartatuaren c) letran, 22. artikulua c) letran, 40. artikulua 3 apartatuan, 52. artikulua d) letran eta 62. artikulua b) letran jasotakoa eragotzi gabe, jatorriko establezimenduan gordailuzain igorle baimenduaren esku ez dauden arrazoiengatik hartzaileari saldu ezin izan zaizkion produktuak berriro sartzen direnean eta produktuak salbuetsita dauden establezimenduak jarduerari uzten dienean, ez da baimenduko fabriketan eta gordailu fiskaletan sartzea jadanik zerga sortarazi duten Fabrikazio Zerga Bereziei lotutako produktuak.
- 6.** Fabriketan eta gordailu fiskaletan erregelamenduz finkatutako portzentaieetatik haratago doazen beherako diferentziak, lehengaietan nahiz produktu amaituetan, fabrian edo gordailu fiskalean fabrikatu eta ateratako produktutzat nahiz establezimendu horietan autokontsumitutako produktutzat hartuko dira foru dekretu honen ondorioetarako, baldin eta aurkakoa ez bada frogatzen.
- 7.**¹³ Fabrikazio Zerga Bereziei lotutako produktuak merkataritza helburuez eduki eta zirkulatzeak, Espainian Zerga ordaindu izanaren edo haiek etendura erregimenean egotea frogatzen duten erregelamenduzko agirien babesean egon behar du, edo dagoeneko sortutako zerga batez egindako batasun edo estatu barruko zirkulazio sistemaren babesean, 44. artikulua 3 apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe.

¹² 5.apartatu hau hainbat zerga xedapen lurralde komunean egindako lege aldaketa batzuetara egokitzen dituen otsailaren 24ko 10/2004 FORU DEKRETUAren 3.artikuluko Bat zenbakiak aldatu du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.(GAO 2004-03-02).

¹³ 7.apartatu hau hainbat zerga xedapen lurralde komunean egindako lege aldaketa batzuetara egokitzen dituen otsailaren 24ko 10/2004 FORU DEKRETUAren 3.artikuluko Bat zenbakiak aldatu du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.(GAO 2004-03-02).

8. Artikulu honen 7. apartatuan eta 16. artikulua 1. apartatuan aipatzen diren produktuek merkataritzarako helburua dutela zehazteko, kontuan hartuko dira, besteen artean, xehetasun hauek:

- a) Merkataritza estatutua eta produktuen edukitzailearen zergatiak.
- b) Aipatu produktuak dauden lekua eta erabilitako garraio modua.
- c) Produktu horiei buruzko edozein agiri.
- d) Produktuen izaera.
- e) Produktu kopurua.

9. Aurreko apartatuaren e) letra aplikatzeko, produktuak merkataritzarako direla joko da, besterik ez bada, ondoko kopuruak gainditzen badituzte:

a) Tabako laboreak:

- 1. Zigarriloak, 800 unitate.
- 2. Zigarrotoak, 400 unitate.
- 3. Zigarroak, 200 unitate.
- 4. Gainerako tabako laboreak, kilogramo 1.

b) Edari alkoholodunak:

- 1. Edari deribatuak, 10 litro.
- 2. Tarteko produktuak, 20 litro.
- 3. Ardoak eta edari hartzituak, 90 litro.
- 4. Garagardoak, 110 litro.

10. Hidrokarburoen gaineko Zergari lotutako produktuei dagokienean, merkataritza helburuez edukitzen direla ulertuko da baldin eta produktu horiek partikularrek edo horien kontura egindako ezohiko moduan garraiatzen badira. Garraioko ezohiko modutzat hartuko da ibilgailuen barruan eta horretarako prestatutako erreserbako bidoietan egiten ez den karburante garraioa, bai eta operadore profesionalen kontura erabilitako zisterna kamioietan egiten ez den erregai likidoen garraioa ere.

11. Baldin eta destinoa dela-eta zerga tasa murriztua edo salbuespenen bat aplikatu zaien Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziei lotutako produktuen erabilera edo destinoa justifikatzen ez bada, aipatu produktuak foru dekretu honetan zerga hobaria ez duten helburu batzuetarako erabili direla ulertuko da.



16. artikulua. Batasun barruko zirkulazioa.¹⁴

1. Fabrikazio zerga berezien xede diren produktuak partikularrek eskuratu dituztenean Batasunaren barruko beste estatu kide batean, estatu horretako zerga ordainduta, euren beharrak asetzeko, eta beraiek garraiatuta, ez dira lotuta egongo barruko lurralde eremuko zergari. Orobat, produktu horiek eremu horretan zirkulatzea eta edukitzea ez da inongo baldintzapean egongo, betiere merkataritza helburuetarako erabiltzen ez badira, behintzat.

2. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak erabat suntsitzen badira edo ezin berreskuratzeko moduan galtzen badira barruko lurralde eremuan garraiatzen ari diren bitartean, eta garraio hori batasunaren barruko zirkulazio prozedura baten barruan gertatzen bada, etendura erregimenetik kanpo, eta Batasunaren gainerako lurralde eremuan hasita, barruko lurralde eremuan ez da zerga berezirik sortuko.

3. Aurreko 1. apartatuan aurreikusitako kasuak eragotzi gabe, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuek jatorria edo helmuga beste estatu kide batean dutenean, prozedura hauetako baten arabera zirkulatuko dute barruko lurralde eremuaren barruan, arauz ezartzen diren baldintzak betez:

a) Etendura erregimenean, fabriken edo gordailu fiskalen artean.

b) Etendura erregimenean, hartzaile erregistratu bati bidaltzeko.

c) Etendura erregimenean, gordailuzain baimendun baten titularitatepeko establezimendu batetik foru dekretu honen 4. artikuluko 7. apartatuan definituta dagoen Erkidegoaren lurraldeko irteera leku batera.

d) Etendura erregimenean, onuradunaren egoitzakoa ez den estatu kide batean finkatutako gordailuzain baimendun baten establezimendutik Kontseiluaren 2008/118/EE Zuzentarauak, 2008ko abenduaren 16koak, zerga berezien araubide orokorra ezarri eta 92/12/EEE Zuzentzaraua indargabetzen duenak, 12.1 artikuluan aipatzen dituen helmugetara.

e) Etendura erregimenean, inportazio lekutik produktuak erregimen horretan jasotzea baimenduta daukan leku batera, igorle baimendun batek bidali dituenean.

f) Etendura erregimenean, gordailuzain baimendun baten establezimendutik zuzeneko entrega egiteko leku batera.

g) Etendura erregimenetik kanpo, baimendutako jasotzaile bati igortzeko.

¹⁴ Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 2 artikuluko zortzi apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentzari gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.



h) Etendura erregimenetik kanpo, urrutiko salmenten sistemaren barruan.

4. Bakar-bakarrak administrazio agiri elektroniko bat dagoenean egin ahal izango da batasunaren barruko zirkulazioa etendura erregimenean. Arauz ezarriko diren beharkizunen arabera tramitatuko da agiri hori. Nolanahi dela ere, oraindik sistema informatizaturik ez dagoenean, zilegi izango da zirkulazioa paperezko agiri batekin hastea, arauz ezartzen diren baldintzak betez gero.

17. artikulua. Batasun barruko zirkulazioaren irregulartasunak.¹⁵

Bi estatu kideren arteko zirkulazioan, edo estatu kide baten eta hirugarren herrialde edo lurralde baten artean egindakoan (baina beste estatu kide baten lurraldetik barna), gertatzen bada fabrikazio zerga bereziei lotuta bidalitako produktuak (edo haien zati bat) hartzaileak ez dituela Erkidegoaren lurraldean jasotzen edo horiek ez direla Erkidegoaren lurraldetik irteten, produktu horiek esportaziorako direnean, eta arrazoiak ez badira foru dekretu honek 6. artikuluan eta 16. artikuluko 1. eta 2. apartatueta jasotakoak (zerga honi ez lotzea dakartenak), irregulartasun bat gertatu dela joko da.

A) Zirkulazioa etendura erregimenean.

1. Batasunaren barruko zirkulazio batean fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuek etendura erregimenean zirkulatzen duten bitartean:

a) Fabrikazio zerga berezien sortzapena dakarren irregulartasun bat gertatzen bada barruko lurralde eremuan, zerga horiek Espainiako zerga Administrazioak exijituko ditu.

b) Fabrikazio zerga berezien sortzapena dakarren irregulartasun bat gertatzen bada, eta gainera, irregulartasun hori zer estatu kidean gertatu den ezin bada zehaztu eta egiaztapena barruko lurralde eremuan egiten bada, ulertuko da irregulartasuna lurralde eremu horretan gertatu dela hura egiaztatu den momentuan bertan, eta Espainiako zerga Administrazioak exijituko ditu zerga bereziak.

2. Barruko lurralde eremutik bidalitako produktuak ez bazaizkio iristen beste estatu kide batean dagoen hartzaileari edo Erkidegoaren lurraldetik irteten ez badira, horien zertarakoa esportazioa zenean, eta zirkulazioan zehar ez bada egiaztatu zerga berezien sortzapena ekar dezakeen irregulartasunik, ulertuko da zirkulazioa hasi den unean irregulartasun bat izan dela barruko lurralde eremuan, eta Espainiako zerga Administrazioak exijituko ditu zerga bereziak. Ez da hala izango, ordea, zirkulazioa hasi eta lau hilabeteko epean aipatutako Administrazioari behar bezala frogatzen bazaio produktuak hartzaileari entregatu

¹⁵ Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 2 artikuluko bederatzi apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentzarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.



zaizkiola, Erkidegoaren lurraldea benetan utzi dutela, edo irregulartasuna barruko lurralde eremutik kanpo gertatu dela.

3. Aurreko 1. apartatuko a) eta b) letretako kasuetan, Espainiako zerga Administrazioak jakinaren gainean jarriko ditu estatu kide igorleko agintariak, hala badagokio.

4. Dena den, aurreko 1. apartatuko b) letran edo 2. apartatuan jasotako kasuetan, gertatzen bada zirkulazioa hasi ondorengo hiru urteko epea igaro baino lehen zehazten dela zer estatu kidean (Espainia kenduta) gertatu den irregulartasuna, zerga bereziak estatu kide horrek exijituko ditu. Horrelakoetan, zerga bereziak irregulartasuna gertatu den estatu kidean jaso direla behin frogatuz gero, Espainiako zerga Administrazioak atzera bueltatuko ditu jasotako zerga bereziak

5. Aurreko 1. apartatuko b) letran edo 2. apartatuan aipatu diren kasu berdinetan, sumatu bada Batasunaren gainerako lurralde eremuan irregulartasun bat gertatu dela, eta zirkulazioa hasi ondorengo hiru urteko epea igaro baino lehen erabakiko balitz irregulartasun hori, berez, barruko lurralde eremuan gertatu dela, zerga bereziak Espainiako zerga Administrazioak exijituko ditu. Horrez gain, Espainiako Administrazioak horren berri eman beharko die zerga horiek jaso dituen estatu kideko agintari eskudunei.

B) Zirkulazioa etendura erregimenetik kanpo.

1. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuek batasunaren barruan zirkulatzen badute horien zerga dagoeneko Batasunaren gainerako lurralde eremuko estatu kide igorlean sortu denean, eta:

a) Fabrikazio zerga berezien sortzapena dakarren irregulartasun bat gertatzen bada barruko lurralde eremuan, zerga horiek Espainiako zerga Administrazioak exijituko ditu.

b) Fabrikazio zerga berezien sortzapena dakarren irregulartasun bat gertatzen bada, eta gainera, irregulartasun hori zer estatu kidean gertatu den ezin bada zehaztu eta egiaztapena barruko lurralde eremuan egiten bada, ulertuko da irregulartasuna lurralde eremu horretan gertatu dela hura egiaztatzen den momentuan bertan, eta Espainiako zerga Administrazioak exijituko ditu zerga bereziak.

2. Dena den, aurreko 1. apartatuko b) letran jasotako kasuetan, gertatzen bada zirkulazioa hasi ondorengo hiru urteko epea igaro baino lehen zehazten dela zer estatu kidean (Espainia kenduta) gertatu den irregulartasuna, zerga bereziak estatu kide horrek exijituko ditu. Horrelakoetan, Espainiako zerga Administrazioak atzera bueltatuko ditu jasotako zerga bereziak, betiere behar den eran frogatzen bada zerga horiek irregulartasuna gertatu den estatu kidean jaso direla.

3. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen zerga sortzapena barruko lurralde eremuan izan den kasuetan, gertatzen bada horiek lurralde horretatik Batasunaren gainerako lurralde eremura bidali ondoren irregulartasun bat aurkitu



dela barruko lurralde eremutik kanpo eta horrek berarekin badakar zerga bereziak irregulartasuna gertatu edo egiaztatu den estatu kideak jasotzea, Espainiako zerga Administrazioak bueltatu egingo ditu jasotako zerga bereziak, betiere behar den eran frogatzen bada aipatutako estatu kideak zerga horiek jaso dituela.

18. artikulua. Kudeatzeko arau orokorrak.

- 1.** Sujetu pasiboak behartuak daude kasuan kasuko zerga aitortpenak aurkeztera eta, halakorik balitz, bidezko diren autolikidazioak egitera, baita zerga eginbeharrak beteko dituztela frogatzen duten bermeak ematera ere.
- 2.** Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak foru dekretu honen testuan NC kodeei buruz egindako erreferentziak eguneratuko ditu, baldin eta izendapen konbinatuaren egituraren aldaketarik badago.
- 3.** Fabrikazio Zerga Bereziei lotutako produktu suntsikorrak batera biltegitratzen direnean, baldin eta zerga tasa diferenteak aplikatzearen ondorioz bakoitzari egokitutako zerga ordaindu bada, ulertuko da, kontrakoa frogatu ezik, saltokian sartzen diren lehenbiziko produktuak direla lehendabizi ateratzen direnak.
- 4.** Salbu ondorengo apartatuan xedatutakoa, sujetu pasiboek Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak ezartzen dituen leku, modu, epe eta inprimaketan zehaztu eta sartu beharko dute zerga zorra.
- 5.** Inportazioetan, zerga likidatuko da aduanei buruzko araudiari jarraituz aduanako zorrarentzat xedatutakoaren arabera.
- 6.** Fabrikazio Zerga Bereziei lotutako produktuak enkante irekian saltzen badira, esleipena haiekin salerosketan aritzeko legeko gaitasuna duten pertsonen alde baizik ez da egingo, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzekin bat etorritik.
- 7.** Erregelamendu bidez ezarriko dira:
 - a) Sujetu pasiboek nola eta zenbatetan eratu beharko dituzten bermeak.
 - b) Fabrikazio Zerga Bereziei lotutako produktuak egiten, eraldatzen, jasotzen, biltzen, saltzen edo bidaltzen dituzten saltokien kontrola, baita eskuhartze iraunkorra ere, nola burutuko den.
 - c) Produktu hauek zirkulatzeko behar dituzten beharkizunak eta, partikulariki, Europako Batasunaren barruan zirkulatzeko agiri osagarria erabiltzeko baldintzak. Halaber, zerga xedeetarako, zenbait marka fiskal edo onarpen marka erabiltzera behartu ahal izango da.
 - d) Galera portzentaia onargarriak, suspentsio erregimenean fabrikatze eta eraldatze prozesuetan, baita biltzean eta garraiatzean ere.



e)¹⁶ Fabrikazio Zerga Berezien itzulketa eskaerak aurkezteko epeak.

19. artikulua. Urraketak eta zigorrak.¹⁷

1. Fabrikazio zerga bereziei dagozkien urraketa eta zigorren erregimena Zergen Foru Arau Orokorrean, foru dekretu honek zerga horietako bakoitzerako ezartzen dituen arau berezietan eta ondorengo apartatuetako arauetan ezarritakoari jarraiki arautuko da.

Bereziki, foru dekretu honetan jasotakoaren arabera ezartzen diren zigorrak zergapekoaren zerga egoera erregularizatzearen ondorio direnean, Zergen Foru Arau Orokorrak 192. artikuluan araututako murrizpena aplikatuko da.

2. Edonola ere, honako hauek hartuko dira zerga urraketatzat:

a) Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak fabrikatzea eta inportatzea, foru dekretu honetan eta bere erregelamenduan eskatzen diren baldintza eta beharkizunak bete gabe.

b) Fabrikazio zerga bereziei atxikitako produktuak merkataritza helburuekin zirkulatu eta edukitzea, 15. artikulua 7 apartatuan ezarritakoa bete gabe egiten denean.

3. Aurreko apartatuan aipatu diren urraketak produktuen kantitateei legozkiekeen kuoten %100eko diru isun proportzionalaz zigortuko dira. Urraketari erreparatzean indarrean dagoen tasa aplikatuz kalkulatu dira kuotak.

Zerga urraketak behin eta berriz egiten direnean, isunaren zenbatekoa %25 gehituz mailakatuko dira zigorrak. Urraketa behin eta berriz egin dela ulertuko da baldin eta, urraketa berria egin aurreko bi urteen barruan, bide administratiboan emandako ebazpen irmo batek subjektu urratzailea zigortu badu aurreko apartatuan jasotako edozein debeku hausteagatik.

Era berean, urraketa gertatzen bada kontrol arauak ez betetzeagatik, isunaren zenbatekoa %25 gehituz mailakatuko dira zigorrak.

4. Gainera, artikulua honen bi apartatuan aipatutako zerga urraketak egiteagatik honako zigorrak ere ezarri ahal izango dira:

a) Urratzaileen izenean dauden establezimenduak aldi baterako ixtea, sei hilabetez hain zuzen, Fiskalitaterako eta Finantzatarako foru diputatuak hala erabakita, edo establezimendu horiek behin betiko ixtea, Diputatuen Kontseiluak hala erabakita. Establezimendu horiek behin betiko ixtea erabaki ahal izango da

¹⁶ Letra hau irailaren 20ko 2/2011 FORU DEKRETU-ARAUAREN hirugarren artikulua aldatu du. Aipatutako Foru Dekretu-Arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen ditu. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunean (2011/09/26) naiz eta aldaketa honek 2011ko martxoaren 6tik aurrera ditu ondorioak.

¹⁷ Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako zortzigarren xedapenaren 3 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).



baldin eta bide administratiboan emandako ebazpen irmo batek subjektu urratzailea zigortu badu establezimendua aldi baterako ixteko zigorra ezarri aurreko bi urteen barruan izaera bereko zerga urraketa bat egiteagatik.

b) Salmenta automatikoko aparatuak sei hilabetez zigilatzea edo horiek behin betiko konfiskatzea, urraketa haien bitartez egiten direnean. Aparatu horiek behin betiko konfiskatzea erabaki ahal izango da baldin eta bide administratiboan emandako ebazpen irmo batek subjektu urratzaile zigortu badu aparatua zigilatzeke zigorra ezarri aurreko bi urteen barruan salmenta automatikoko aparatuaren bitartez izaera bereko urraketa bat egiteagatik.

Letra honetan aurreikusitako zigorrak ezartzearen ondorioetarako, salmenta automatikoko aparatuaren titularra nahiz aparatua hori kokatuta dagoen establezimenduaren titularra hartuko dira subjektu urratzailetzat.

Hurrengo c) letran ezarritako kasuetan izan ezik, zigor horiek jartzea zigor nagusia ezartzen duen organo eskudunak erabakiko du.

c) Dena den, b) letran aurreikusitako zigorrak aurreko a)letran jasotakoekin batera ezartzen direnean, salmenta automatikoko aparatua behin betiko konfiskatuko da establezimenduaren behin betiko itxiera ere erabakitzen bada. Zirkunstantzia hori gertatzen denean, a) letran aipatutako organoek erabakiko dute zigorrak ezartzea.

5.¹⁸ Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuek arauz ezarritako agiririk gabe zirkulatzea, eta batasunaren barruko zirkulazioan, baina barruko lurralde eremuan, ARC agiririk gabe joatea, zerga urraketa larria ez denean, zerga urraketa arinagatik zigortuko da, eta zirkulazioan dauden produktuei legokiekeen kuotaren %10eko diru isun proportzionala jarriko zaio, eta gutxienez 600 euro.

6. Tabako laboreak merkataritza helburuekin edukitzen direnean marka fiskalik edo onarpen markarik izan gabe, eta beharkizun hori erregelamenduz exijigarria denean, honako zigorra ezarriko da:

a) 75 euroko isuna, marka horiek gabe merkataritza helburuekin edukitzen diren 1.000 zigarrilo bakoitzeko. Egindako urraketa bakoitzarengatik 600 eurokoa izango da gutxieneko zenbatekoa.

b) 600 euroko isuna, gainerako tabako laboreetan egindako urraketa bakoitzeko.

Urraketa horiek behin eta berriz egiten direnean, aurreko a) eta b) letretan ezarritako zigorrak isunaren zenbatekoa %50 gehituz mailakatuko dira. Urraketa behin eta berriz egin dela ulertuko da baldin eta, urraketa berria egin aurreko bi

¹⁸ Apartatu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAREN 2 artikuluko hamar apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.



urteen barruan, bide administratiboan emandako ebazpen irmo batek subjektu urratzailea zigortu badu apartatu honetan jasotako urraketak egiteagatik.

II. kapitulua: Xedapen orokorrak Alkoholaren eta Edari Alkoholaren gaineko Zerga Berezi guztientzat

20. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.

Alkoholaren eta Edari Alkoholaren gaineko Zerga Bereziei dagokienean, hauxe ulertuko da:

1. “Alkohola”. NC 2207 edo 2208 kodeetan sailkatutako alkohol etilikoa edo etanola.
2. “Alkohol erabat desnaturalizatua”. Gutxienez ere ezartzen den proportzioan ofizialki onartutako gai desnaturalizagarriak dauzkan alkohola, baldin eta gai desnaturalizagarri horiek nabarmenki usain, kolore eta zapore ezaugarri organoleptikoak aldatzen badituzte, eta hortaz giza kontsumorako ez egokia egiten badute.
3. “Alkohol zati batean desnaturalizatua”. Gutxienez ere ezartzen den proportzioan horretarako onetsi diren gai desnaturalizagarriak dauzkan alkohola, baldin eta horiek giza kontsumorako ez egokia egiten badute eta prozesu industrial batean erabiltzea alde aurretik baimendua izan bada, erregelamendu bidez ezartzen diren era eta baldintzetan.
4. “Edari analkoholikoa”. Bere gradu alkoholiko bolumetrikoa %1,2 bol.etik gorakoa ez bada.
5. “Uztagilea”. Bere izenean ardoa lantzen duen eta alkohola edo hortik sortutako edaria sortzen den lapetako mahats aleen jabea den pertsona fisikoa.
6. “Artisau distilatzailea”. Alanbikkeen edo antzeko distilagailuen bidez zuzeneko distilazio etenaren bidez ekoiztutako edarien egilea, haren urteroko ekoizpena alkohol puruko 10 hektolitrotik gorakoa ez bada.
7. “Garagardoaren jatorrizko muztioaren hasierako estraktu lehorra”. Malta eta baimendutako beste produktu batzuk, joak edo jogabeak, ehotzetik sortzen den materia lehor naturala, liseriketa entzimatiakoaren bidez muztio batean dagoen kontzentratu azukreduna, hortik hartzidura alkoholikoaren bidez garagardoa sortuko balitz.
8. “Gradu alkoholiko bolumetrikoko bereganatua”. Alkohol puruko bolumen kopurua, 20 °C-ko tenperaturan, tenperatura horretan produktuaren 100 bolumenetan dagoena.
9. “Plato gradua”. 20 °C-ko tenperaturan garagardoaren jatorrizko muztioa 100 gramutan zenbat hasierako estraktu lehor dagoen, gramutan.



21. artikulua. Salbuespenak.

9. artikuluan aipatzen diren eragiketak ezezik, honako hauek ere izango dira salbuetsiak, baldin eta erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzak betetzen badira:

1. Ozpina egiteko erabiltzen diren alkoholaren eta edari alkoholduen fabrikazioa eta inportazioa. Ozpintzat hartzen da NC 2209 kodean sailkatutako produktua.

Landare alkohol destilatua erabiltzen denean, salbuespenaren aplikazioa alkohol horrek markatzaile gisa alkoholeko ozpina eramatera baldintzatuta dago, arauz exijitutako baldintzak eta portzentajeak betez.¹⁹

2. Edari alkoholduen ondorengo inportazioak:

a)²⁰ Hamazazpi urtetik gorakoek beraiek hirugarren herrialdeetatik eramandakoak, baldin eta muga kuantitatibo hauek gainditzen ez badituzte:

1. Litro bat alkohol edo edari deribatu; edo
2. Bi litro tarteko produktu edo ardo apardun eta edari hartzitu; eta
3. Lau litro ardo bare, eta hamasei litro garagardo.

b) Partikular batek beste partikular bati hirugarren herrialde batetik noizbehinka bidalitako igorpen txikiak, inolako ordainketarik egin gabe eta ondorengo muga kuantitatiboen barruan:

1. Botil bat, gehienez alkoholaren edo edari deribatuen litro batekin.
2. Botil bat, gehienez tarteko produktuen edo ardo eta edari hartzitu apardunen litro batekin. Eta
3. Ardi eta edari hartzitu bareen bi litro.

3.²¹ Zergarik gabeko dendeak airez zein itsasoz mugitzen diren bidaiariei saltzeko diren edari alkoholduenak, euren ekipajea daramatzatenean hirugarren herrialde batera edo hirugarren lurralde batera joateko, Kanariar uharteak kenduta.

¹⁹ Paragrafo hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 2. artikuluko bi zenbakiak gehitu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Foru Dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-03-06).

²⁰ Letra hau urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 4. artikuluaen bat apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primeren gaineko Zerga (GAO 2009-01-16; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2009ko abenduaren 1etik aurrerako ondorioekin.



22. artikulua. Kuotak itzultzea.

Erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, zergaren kuotak itzultzeko eskubidea, 10. artikuluan ezarritako kasuetan ez ezik hauetan ere aitortuko da:

- a) Alkohola edo edari alkoholodunak jakietako eta edari analkoholikoetako aromatizagarriak prestatzeko.
- b) Alkohola edo edari alkoholikoak zuzenean erabiltzen badira edo produktu erdiprestatuen osagarri gisa erabiltzen badira, jaki betegarriak edo besterik egiteko, baldin eta alkohola kasu bakoitzean 100 kg-ko 8,5 litro alkohol purutik gorakoa ez bada, bonboien kasuan, eta 5 litro alkohol purutik gorakoa ez bada beste produktuetan.
- c) Gizakiaren kontsumorako egoki izateari utzi dioten edari alkoholodunak fabrikara edo gordailu fiskalera itzultzea, bai eta horiek Zerga Administrazioaren kontrolpean suntsitzea ere.

23. artikulua. Kanaria Irleko buruzko xedapen bereziak.

- 1. Garagardoaren, Tarteko Produktuen eta Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko Zergen esparru objektiboen barruan dauden produktuak penintsulan edo Baleare Irletan sartzen direnean, baldin eta Kanaria Irletan zerga horiek ere sortu badira, kontzeptu horiengatik likidatu eta ordainduko dira produktuak sartzean lurralde horien artean dagoen ezarpen tasen diferentzia aplikatuz ateratzen diren kuotak.
- 2. Foru dekretu honetako 10. eta 43. artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe, aurrez ordaindutako kuotak zati batean edo oso-osorik itzultzeko eskubidea izango dute, baldin eta erregelamenduz jarritako baldintzak betetzen badira, penintsulatik edo Baleare Irletatik Kanaria Irletara Tarte Produktuen eta Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko Zergei lotutako produktuak igortzen dituztenek: produktuak igortzean lurralde horien artean dagoen ezarpen tasen diferentzia aplikatuz ateratzen diren kuoten zenbatekoa.
- 3. Garagardoaren gaineko Zerga foru dekretu honetako 26. artikuluan finkatutako tasetan eskatuko da Kanarietan.
- 4.²² Tarteko Produktuen gaineko Zerga ondoko tasen arabera exijituko da Kanarietan:

²¹ Apartatu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAREN 2 artikuluko hamaika apartatuak gehitzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentzarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.

²² 4. apartatu hau otsailaren 1eko 6/2005 FORU DEKRETUAREN 1 artikuluko bat apartatuak aldatu du. Foru Dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia abenduaren 27ko 2/2004 Legeak, Estatuko 2005erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, onartutako xedapen jakin batzuetara egokitzen du. Foru dekretu hau Gipuzkoako



a) Gradu alkoholiko bolumetrikoki bereganatua 100eko 15 bol.etik gorakoa ez duten tarteko produktuak: 23,72 euro hektolitroko.

b) Gainerako tarteko produktuak: 39,52 euro hektolitroko.

5.²³ Kanarietan Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko Zerga 590,60 euroko tasan exijituko da hektolitro alkohol puru bakoitzeko, foru dekretu honetako 40. eta 41. artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe.

6. Aurreko hiru apartatueta aipatutako tasak, halaber, garagardoari, tarteko produktuei eta alkoholari eta edari deribatuak aplikatuko zaizkie, hurrenez hurren, baldin eta penintsulan eta Balear Irlan kokatutako fabriketatik edo gordailu fiskaletatik Kanaria Irlara igortzen badira suspentsio erregimenaz kanpo.

7.²⁴ Ondoko hauek izango dira zerga urraketa:

a) Artikulu honen 6 apartatua aipatutako produktuak Kanarietan sartzea, foru dekretu honetan eta bere erregelamenduan jarritako baldintzak eta beharkizunak bete gabe. Urraketa hori lurralde hartan sartutako produktuen kopuruei legozkiekeen kuoten hiru halakoaren isunaz zigortuko da, aipatu kuotak artikulu honetako 4, 5 eta 6 apartatueta jaso eta urraketa egitean indarrean dauden tasak aplikatuz kalkulatu.

b) Artikulu honen 1 apartatua aipatutako produktuak penintsulan eta Balear Uharteetan sartzea, foru dekretu honetan eta garapen erregelamenduetan jarritako baldintzak eta beharkizunak bete gabe. Urraketa hori lurralde horietan sartutako produktuen kopuruei legozkiekeen kuoten hiru halakoaren isunaz zigortuko da, igorpenaren momentuan lurralde haien artean dagoen ezarpen tasan diferentzia aplikatuz kalkulatu.

III. kapitulua: Garagardoaren gaineko Zerga

24. artikulua. Esparru objetiboa

1. Garagardoaren gaineko Zergaren esparru objetiboa garagardoa eta garagardoaren eta edari analkoholikoen nahasketak eratutako produktuak, NC 2206 kodean sailkatuak, izango da, bi kasuetan gradu alkoholiko bolumetrikoki bereganatua %0,5 bol.etik gorakoa bada.

Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarri da indarrean, eta 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

²³ 5. apartatu hau otsailaren 1eko 6/2005 FORU DEKRETUaren 1 artikuluko bat apartatuak aldatu du. Foru Dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia abenduaren 27ko 2/2004 Legeak, Estatuko 2005erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, onartutako xedapen jakin batzuetara egokitzen du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarri da indarrean, eta 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

²⁴ 7. apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorren amaierako zortzigarren xedapenaren 4 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).



2. Foru dekretu honetan ezarritako ondorioetarako, garagardotzat hartuko da NC 2203 kodean sailkatutako produktu oro.

25. artikulua. Oinarri ezargarria.

Oinarri ezargarria zergaren esparru objektiboaren barruko produktuen bolumenaz osatua egongo da, 20°C-ko tenperaturan burututako produktua hektolitrotan adieraziz.

26. artikulua. Zerga tasak.²⁵

1. Zerga epigrafe hauen arabera exijituko da bere esparru objektiboaren barruko produktuei dagokienez:

1.a) epigrafea. Gradu alkoholiko bolumetrikoki bereganatua 100eko 1,2 bol.etik gorakoa ez duten produktuak: 0 euro hektolitroko.

1.b) epigrafea. Gradu alkoholiko bolumetrikoki bereganatua 100eko 1,2 bol.etik gorakoa eta 100eko 2,8 bol. bitartekoa duten produktuak: 2,50 euro hektolitroko.

2. epigrafea. Gradu alkoholiko bolumetrikoki bereganatua 100eko 2,8 bol.etik gorakoa eta Plato gradua 11tik beherakoa duten produktuak: 6,80 euro hektolitroko.

3. epigrafea. 11tik 15era bitarteko Plato gradua duten produktuak: 9,05 euro hektolitroko.

4. epigrafea. 15etik gorako eta 19ra bitarteko Plato gradua duten produktuak: 12,33 euro hektolitroko.

5. epigrafea. 19tik gorako Plato gradua duten produktuak: 0,83 euro hektolitroko eta Plato gradu bakoitzeko.

2. Aurreko apartatua ezarritako ondorioetarako, Plato gradua zehazterakoan 0,2 gradu aldea onartuko da.

IV. kapitulua: Ardoaren eta Edari Hartzituen gaineko Zerga

27. artikulua. Esparru objektiboa.

1. Zergaren esparru objektiboa ardo bareaz, ardo apardunaz, edari hartzitu bareez eta edari hartzitu apardunez dago osatua.

²⁵ Artículo hau otsailaren 1eko 6/2005 FORU DEKRETUaren 1 artikuluko bi apartatuak aldatu du. Foru Dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia abenduaren 27ko 2/2004 Legeak, Estatuko 2005erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, onartutako xedapen jakin batzuetara egokitzen du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarri da indarrean, eta 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



2. Foru dekretu honetan ardo baretzat hartuko dira NC 2204 eta 2205 kodeetan sailkatutako produktuak, ardo apardunak izan ezik, honako hau baldin badute:

a) Gradu alkoholiko bolumetrikoko bereganatua %1,2 bol.etik %15 bol.era bitartean, beti ere produktu burutuaren alkohol guztia hortziduratik badator, edo

b) Gradu alkoholiko bolumetrikoko bereganatua %15 bol.etik %18 bol.era bitartean, beti ere graduak artifizialki gehituz lortu ez badira eta produktu burutuaren alkohol guztia hortziduratik badator.

3. Foru dekretu honetan ardo aparduntzat hartuko dira NC 2204.10, 2204.21.10, 2204.29.10 eta 2205 kodeetan sailkatutako produktu guztiak, baldin eta:

a) Txanpinoi formako eta lokarriez lotutako tapoia duten botiletan ontziratutak badira, edo anhidrido karboniko disolbatuagatik 3 bar-eko edo hortik gorako gainpresioa badute.

b) Gradu alkoholiko bolumetrikoko bereganatua %1,2 bol.etik %15 bol.era bitartean badute eta produktu burutuko alkohol guztia hortziduratik badator.

4. Foru dekretu honetan edari hartzitu baretzat hartuko dira NC 2204 eta 2205 kodeetan sailkatuta dauden eta aurreko 2 eta 3 apartatuetan jasotzen ez diren produktu guztiak, baita NC 2206 kodean sailkatutako produktuak ere, edari hartzitu apardunak eta Garagardoaren gaineko Zergaren esparru objetiboko produktuak salbu, honako hau baldin badute:

a) Gradu alkoholiko bolumetrikoko bereganatua %1,2 bol.etik %5,5 bol.era bitartean, edo

b) Gradu alkoholiko bolumetrikoko bereganatua %5,5 vol.etik %15 vol.era bitartean, baldin eta produktu burutuko alkohol guztia hortziduratik badator.

5. Foru dekretu honetan edari hartzitu aparduntzat hartuko dira NC 2206.00.31 eta 2206.00.39 kodeetan sailkatutako produktu guztiak, baita NC 2204.10, 2204.21.10, 2204.29.10 eta 2205 kodeetan sailkatutako produktu guztiak ere, aurreko 2 eta 3 apartatuetan aipatzen ez badira, baldin eta

a) Txanpinoi formako eta lokarriez lotutako tapoia duten botiletan ontziratutak badira, edo anhidrido karboniko disolbatuagatik 3 bar-eko edo hortik gorako gainpresioa badute.

b) Gradu alkoholiko bolumetrikoko bereganatua %1,2 bol.etik %8,5 bol.era bitartean badute, edo

c) Gradu alkoholiko bolumetrikoko bereganatua %8,5 bol.etik %15 bol.era bitartean badute eta produktu burutuko alkohol guztia hortziduratik badator.

28. artikulua. Zerga sortzea.

Foru dekretu honetako 7. eta 11. artikuluetan xedatutakoa xedatuta ere, Ardoaren eta Edari Hartzituen gaineko Zerga sortuko da, tarteko produktuen



fabriketan suspentsio erregimenean jaso den eta foru dekretu honetako 32. artikuluan aipatutako produktuen fabrikazioa erabili den ardoari dagokionean, tarteko produktu horiek fabrikatik ateratzen direnean. Suspentsio erregimenarekin ezin izango da jarraitu estatuaren lurralde esparruaren barruan kokatutako beste fabriketan edo gordailu fiskaletan produktu horiek sartzen badira.

29. artikulua. Oinarri ezargarria.

Oinarri ezargarria zergaren esparru objetiboaren barruko produktuen bolumenaz osatuta egongo da, produktu amaitua 20°C-ko tenperaturan hektolitrotan adierazita.

30. artikulua. Zerga tasak.²⁶

Epigrafe hauen arabera exijituko da zerga:

1. epigrafea. Ardo bareak. 0 euro hektolitroko.
2. epigrafea. Ardo apardunak. 0 euro hektolitroko.
3. epigrafea. Edari hartzitu bareak. 0 euro hektolitroko.
4. epigrafea. Edari hartzitu apardunak. 0 euro hektolitroko.”

V. kapitulua: Tarteko Produktuen gaineko Zerga

31. artikulua. Esparru objetiboa.

Foru dekretu honen ondorioetarako, tarteko produktutzat hartuko dira, %1,2 bol.etik %22 bol.era bitarteko gradu alkoholiko bolumetrikoko bereganatua duten produktu guztiak, NC 2204, 2205 eta 2206 kodeetan sailkatuak badira eta ez badaude Garagardoaren gaineko Zergaren esparru objetiboaren barruan, ezta Ardoaren eta Edari Hartzituen gaineko Zergaren barruan ere.

32. artikulua. Zergapetu gabeko kasuak.

Foru dekretu honetako 6. artikuluan jasotako kasuetan ez ezik, ez da Tarteko Produktuen gaineko Zergari lotuta egongo Moriles-Montilla, Tarragona, Priorato eta Terra Alta izendapenez produktu horiek fabrikatzea ere, gradu alkoholiko bolumetrikoko bereganatua % 1 bol. baino gehiago ez handitzeko moduan alkohola gehitzen denean, baldin eta erregelamenduz jarritako baldintzak betez fabrikatzen bada.

²⁶ Ecu edo pezetatan finkaturik dauden zenbatekoak eurotara adierazita gelditzen dira otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren 2 Artikuluko Hamabi atalak aldatu ditu. Foru dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)



33. artikulua. Oinarri ezargarria.

Oinarri ezargarria zergaren esparru objetiboaren barruko produktuen bolumenaz egongo da osatua, produktu amaitua 20º C-ko tenperaturan hektolitrotan adierazita.

34. artikulua. Zerga tasa.²⁷

23. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, tasa hauen arabera exijituko da Zerga:

1. Gradu alkoholiko bolumetriko bereganatua 100eko 15 bol.etik gorakoa ez duten tarteko produktuak: 30,29 euro hektolitroko.
2. Gainerako tarteko produktuak: 50,48 euro hektolitroko.”

35. artikulua. Urraketak eta zigorrak.²⁸

Honako hauek dira zerga urraketak:

a) Goranzko diferentziak egotea tarteko produktuen fabrikan dauden edo bertan erabili diren ardo edo edari hartzituen gradu alkoholiko bolumetriko bereganatuari dagokionez.

Alkohol puruko hektolitrotan adierazitako diferentziari legokiokeen kuotaren 100eko 100eko diru isun proportzionalaz zigortuko da urraketa, Ardoaren eta Edari Deribatuen gaineko Zergarako ezarritako zerga tasa aplikatuz.

b) Beheranzko diferentziak egotea fabrikazio prozesuan, fabrikan edo bertatik aterata dauden tarteko produktuen gradu alkoholiko bolumetriko bereganatuari dagokionez.

Alkohol puruko hektolitrotan adierazitako diferentziari legokiokeen kuotaren 100eko 100eko diru isun proportzionalaz zigortuko da urraketa, Ardoaren eta Edari Deribatuen gaineko Zergarako ezarritako zerga tasa aplikatuz.

c) Ardoa eta edari deribatuak ez diren lehengaiek goranzko diferentziak edukitzea tarteko produktuen fabriketan, erregelamenduz baimendutako portzentajeak baino handiagoak direnean.

²⁷ Artículo hau otsailaren 1eko 6/2005 FORU DEKRETUaren 1 artikuluko lau apartatuak aldatu du. Foru Dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia abenduaren 27ko 2/2004 Legeak, Estatuko 2005erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, onartutako xedapen jakin batzuetara egokitzen du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarri da indarrean, eta 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

²⁸ Artikulu hau ekainaren 29ko 64/2004 Foru Dekretuaren 2. artikuluko Bi zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrek amaierako bosgarren eta seigarren xedapenetan BEZari eta zerga bereziei dagokienez, hurrenez hurren, sartutako aldaketak Gipuzkoako araudira egokitzen ditu. Foru Dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean eta 2004ko uztailaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2004-07-06).



Lehengaien xede ziren tarteko produktuei legokiekeen kuotaren 100eko 100eko diru isun proportzionalaz zigortuko da urraketa. Dena den, eta kontrakoa frogatzen ez bada, ulertuko da lehengaien xede ziren tarteko produktuek 100eko 15 bolumenetik gorako gradu alkoholiko bolumetriko bereganatua izango zutela.

VI. kapitulua: Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko Zerga

36. artikulua. Esparru objetiboa.

Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko Zergaren esparru objetiboa hauxe da:

- a) %1,2 bol.etik gorako gradu alkoholiko bolumetriko bereganatua duten produktu guztiak, NC 2106.90.20 kodean eta NC 2207 eta 2208 kodeetan sailkatuak badira, produktu horiek 22a ez den izendapen konbinatuaren kapitulu batean sailkatutako produktu baten parte badira ere.
- b) %22 bol.etik gorako gradu alkoholiko bolumetriko bereganatua duten eta NC 2204, 2205 eta 2206 kodeetan sailkatuak dauden produktuak.
- c) Disoluzioan produktu solidorik edo beste landare produkturik daukan alkohola.

37. artikulua. Zerga sortzea.

Foru dekretu honetako 7. eta 11. artikuluetan xedatutakoa xedatuta ere, Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko Zerga sortuko da, tarteko produktuen fabriketan suspentsio erregimenean jaso den eta foru dekretu honetako 32. artikuluan aipatutako produktuen fabrikazioa erabili den alkoholari dagokionean, tarteko produktu horiek fabrikatik ateratzen diren momentuan. Suspentsio erregimenarekin ezin izango da jarraitu estatuaren lurralde esparruan kokatutako beste fabriketan edo gordailu fiskaletan produktu horiek sartzen badira.

38. artikulua. Oinarri ezargarria.

Oinarri ezargarria zergari lotutako produktuek daukaten alkohol puruaren bolumena izango da, 20°C-ko tenperaturan, hektolitrotan adierazita.

39. artikulua. Zerga tasa.²⁹

Zerga tasa 754,77 eurokoa izango da alkohol puruko hektolitro bakoitzeko, 23., 40. eta 41. artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe.

40. artikulua. Artisau distilazioaren erregimena.

²⁹ Artikulu hau Otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuko 3 artikuluko Hiru atalak aldatu du. Foru Dekretu hau Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)



1. Artisau distilazioaren erregimena Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko Zergaren bidezko zerga sistema erraztua da, non artisau distilatzaileak sar baitaitezke, erregelamendu bidez ezartzen den moduan. Erregimen honi aplikatuko zaizkio, artikulua honetan ezarritakoari aurka egiten ez dioten guztian, foru dekretu honetako I. tituluaren I., II. eta VI. kapituluetakako xedapenak.

2. Edari deribatuen zerga ordaintzea.

Artisau distilazioaren erregimenean egiten diren edariei tarifa hauek aplikatuko zaizkie:

a) Artisau distilazioaren erregimenaren lehenengo tarifa.

1.- Zergagaia. Distilatzeko tresnen edukiera dago atxikia tarifa honi.

2.- Zerga sortzea. Zerga Administrazioari distilatzeko baimena eskatzen zaionean sortuko da zerga.

3.- Sujetu pasiboa. Artisau distilatzailea izango da sujeta pasiboa, zergadun gisa.

4.- Oinarri ezargarri, alkohol puruko hektolitrotan adierazia, honela aterako da; distilatzeko tresna duen galdararen edukierak adierazten duen litro kopurua 0,016 koefizientearekin, distilatzekoa den lehengaitik lortutako gradu alkoholiko bolumetrikoarekin, bateko hainbestetan adierazita, eta destilatzeko baimena zenbat egunetarako eskatu, kopuru horrexekin biderkatuko da.

5³⁰.- Karga tasa. Zerga tasa 660,49 eurokoa izango da alkohol puruko hektolitro bakoitzeko. Zerga Kanarietan exijigarria denean, zerga tasa 514,24 eurokoa izango da alkohol puruko hektolitro bakoitzeko. Zenbaki honetan xedatutakoa 41. artikuluan jasotakoa eragotzi gabe ulertuko da.

b) Artisau distilazioaren erregimenari dagokion bigarren tarifa.

1.- Zergagaia. Zuzeneko distilazio etenaren bidez edari deribatuen fabrikazioa egongo da tarifa horri atxikia, artisau distilatzaile batek erregimen honen babesean eginda, lehenengo tarifako oinarri ezargarria baino handiagoa diren zenbatekoetan.

2.- Zerga sortzea. Tarifa honek lortutako edari deribatuak fabrikatzean sortuko da zerga.

3.- Sujetu pasiboa. Sujetu pasiboa artisau distilatzailea izango da, zordun gisa.

4.- Oinarri ezargarria. Erregimen honetako lehenengo tarifako zerga oinarria baino handiagoa duen alkohol puruko hektolitroen kopurua izango da.

³⁰ 5. zenbaki hau otsailaren 1eko 6/2005 FORU DEKRETUaren 1 artikuluko bost apartatuak aldatu du. Foru Dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia abenduaren 27ko 2/2004 Legeak, Estatuko 2005erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, onartutako xedapen jakin batzuetara egokitzen du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarri da indarrean, eta 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



5.³¹- Karga tasa. Zerga tasa 660,49 eurokoa izango da alkohol puruko hektolitro bakoitzeko. Zerga Kanarietan exigigarria denean, zerga tasa 514,24 eurokoa izango da alkohol puruko hektolitro bakoitzeko. Zenbaki honetan xedatutakoa 41. artikuluan jasotakoa eragotzi gabe ulertuko da.

3. Zerga itzultzea.

Foru dekretu honetako 15. artikulua 5 apartatuan ezarritakoa galerazi gabe, artisau distilatzaileek ekoiztutako edariak egiten dituzten beste fabrika batzuetarako ekoiztu ahal izango dituzte edariak, eta kasu horietan eskubidea izango dute ordaindutako kuotak itzul dakizkien, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

4.³² Distilatzaile txikiek Europar Batasuneko beste estatu batzuetan fabrikatutako edariak sartzea.

Europar Batasuneko beste estatu batzuetan finkatutako ekoizle independenteek urtean lortzen duten ekoizpena ez bada 10 hektolitro alkohol puruko baina handiagoa, fabrikatzen dituzten edari deribatuei 660,49 euroko tasa aplikatuko zaie alkohol puruko hektolitro bakoitzeko. Zerga Kanarietan exigigarria denean, zerga tasa 514,24 eurokoa izango da alkohol puruko hektolitro bakoitzeko.

5.³³ Urraketak eta zigorrak.

a) Zerga urraketa izango da distilatzeko baimena lortzeko eskabidean aitortu baino gradu alkoholiko gehiago dituzten lehengaiak erabiltzea distilazio prozesuan. Arau urraketa horregatik ezarriko den zigorren isuna 35. artikulua a) letran ezarritako prozeduraren bidez ezarriko da, eta gutxienez ere 1.020 eurokoa izango da.

b) Zerga urraketak, baita foru dekretu honetako 45. artikuluan aipatutako zigor bereziekin zigortzen diren arau urraketak ere, behin eta berriro eginez gero, artisau distilazioei buruzko erregimenaz behin-behinik edo behin betiko aprobeztatzeko debekua ezarri ere zigortu ahal izango da.

41. artikulua. Uztagileen erregimena.³⁴

³¹ 5. zenbaki hau otsailaren 1eko 6/2005 FORU DEKRETUaren 1 artikuluko bost apartatuak aldatu du. Foru Dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia abenduaren 27ko 2/2004 Legeak, Estatuko 2005erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, onartutako xedapen jakin batzuetara egokitzen du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarri da indarrean, eta 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

³² 4. zenbaki Artículo hau otsailaren 1eko 6/2005 FORU DEKRETUaren 1 artikuluko bost apartatuak aldatu du. Foru Dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia abenduaren 27ko 2/2004 Legeak, Estatuko 2005erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, onartutako xedapen jakin batzuetara egokitzen du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarri da indarrean, eta 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

³³ 5. apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorren amaierako zortzigarren xedapenaren 5 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).



Artisau-distilazioaren erregimenean lortutako edari deribatuak fabrikatik bertatik uztagileek zuzenean kontsumitzeko erabiltzen direnean erregelamenduz ezartzen diren modu eta baldintzetan, zerga tasa aplikagarria 178,16 eurokoa izango da alkohol puruko hektolitro bakoitzeko. Zerga Kanarietan exijigarria denean, zerga tasa 138,05 eurokoa izango da alkohol puruko hektolitro bakoitzeko. Urtean, 16 litro alkohol puru dituen edari kantitateari bakarrik aplikatuko zaizkio tasa horiek uztagile bakoitzeko.

42. artikulua. Salbuespenak.

Salbuetsiak izango dira, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, 9. eta 21. artikuluetan aipatzen diren eragiketak ez ezik, honako hauek ere:

1. Erabat desnaturalizatua izateko erabiltzen den alkohola fabrikatzea eta inportatzea, bai eta erabat desnaturalizatutako alkohola inportatzea ere, erregelamendu bidez ezartzen den prozeduraren bidez, Batasun barneko zirkulazioaren kasuetan, Europako Batasuneko beste estatu bateko xedapenekin bat eginez.
2. Zati batean desnaturalizatua izateko erabiltzen den alkohola fabrikatzea eta inportatzea, bai eta zati batean desnaturalizatutako alkohola inportatzea ere, erregelamendu bidez ezartzen den prozeduraren bidez, ondoren gizakiak hartzeko ez beste xedeetarako erabilia izateko.
3. Aurreko apartatuetan aurreikusitako kasuetan, salbuespenaren onura izateko zirkulazioari buruzko obligazioak bete eta alkohol desnaturalizatuen erabilpen edo xedea frogatu egin beharko da.
4. Botikak egiteko erabiltzen den alkohola fabrikatzea eta inportatzea. Horretarako botikatzat hartuko dira gizakiaren edo animalien gaixotasunak sendatu edo prebenitu ditzaketen gaiak edo gai konbinazioak. Gizakiei edo animaliei emanda, diagnostiko medikoa ezartzeko edo gizakiaren edo animalien funtzio organikoak berrezarri, zuzendu edo aldatzeko balio duten gai edo nahasketa guztiak ere hartuko dira botikatzat. Salbuespena botika espezializate farmazeutiko gisa banatzearen menpe egongo da, aurretik kasuan kasuko erregistroan inskribatuz gero.
5. Osasun zentruetan erabilia izateko alhokola fabrikatzea eta inportatzea.
6. 22a ez den izendapen konbinatuaren kapitulu batean sailkatuta dauden eta zergari lotuta dauden produktuak inportatzea, estatuaren lurralde esparruko fabrikazioari foru dekretu honetan jasotako salbuespen edo itzulketa kasuetako bat aplikagarria zaionean.

³⁴ Artikulu hau otsailaren 1eko 6/2005 FORU DEKRETUaren 1 artikuluko sei apartatuak aldatu du. Foru Dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia abenduaren 27ko 2/2004 Legeak, Estatuko 2005erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, onartutako xedapen jakin batzuetara egokitzen du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarri da indarrean, eta 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



7. Alkohola ofizialki onartutako zentruetan fabrikatzea, irakaskuntza eta zientzia ez beste xedeetarako, horietatik kanpo ateratzen ez bada.

8. Behar den baimena jasota, zientzia ikerketarako erabiltzen den alkohola fabrikatzea eta inportatzea.

43. artikulua. Kuotak itzultzea.

10. eta 22. artikuluetan jasotako kasuetan ez ezik, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, zergaren kuota itzultzeko eskubidea aitortuko da alkohola desnaturalizatua ezin erabil daitekeen fabrikazio prozesuetan alkohola erabiltzen denean ere, baldin eta alkohola prozesutik ateratzen den produktuari gaineratzen ez bazaio.

44. artikulua. Kudeatzeko arau bereziak.

1. Debekatu egiten da alkohola fabrikatzeko tresna mugikorak erabiltzea.

2. Abenduaren 12ko 12/1995 Lege Organikoak, Kontrabandoa Zigortzekoak, 1. artikulua 7 apartatuan ezarritako ondorioetarako, tresna debekatuak izango dira alkohola distilatzeke edo zuzentzeko tresnak, erregelamendu bidez horiek ekoiztu, salerosi, mugitu eta edukitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenean.

3. 15. artikulua 7 apartatuan ezarritakoa galerazi gabe, espezializate farmazeutikoak eta izen konbinatuak 22 ez den kapitulu batean sailkatuak dauden eta alkohol erabat edo zati batean desnaturalizatua nahiz 22. eta 42. artikuluetan jasotako salbuespen edo itzulketa kasuetako bat aplikatuz sartu zaien alkohola daukaten produktuak zirkulatzea eta edukitzea, zergari dagokionean, ez daude atxikirik betebeharrak formal bakar bati ere.

45. artikulua. Arau urraketak eta zigorrak.

1.³⁵ Jarraian aipatzen diren kasuetan, zerga urraketak izango direnez, ondoren zehazten diren zigorrak bereziak ezarriko dira horietako bakoitzerako:

a) Alkohola ekoizteko aparatuak martxan jartzen badira erregelamenduz ezarritako tramiteak hautsiz edo lan aitortuaren epea behin iraungita, ekoizpen bolumenari arau urraketa sumatzean indarrean dagoen zerga tasa aplikatuz aterako litzatekeen kuotaren 100eko 150eko diru isun proportzionalaz zigortuko da. Ekoizpen bolumena alkohol puruko hektolitrotan adieraziko da 20°C-ko tenperaturan, eta azken lan aitortuaren, halakorik bada, urraketa sumatu arte etengabeko lanean, eta gehienez hiru hilabetetan, lortu litekeena izango da.

³⁵ Apartatu hau ekainaren 29ko 64/2004 Foru Dekretuaren 2. artikuluko Hiru zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrak amaierako bosgarren eta seigarren xedapenetan BEZari eta zerga bereziei dagokienez, hurrenez hurren, sartutako aldaketak Gipuzkoako araudira egokitzen ditu. Foru Dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean eta 2004ko uztailaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2004-07-06).



b) Zigiluak hausten badira alkohola ekoizten duten aparatuak funtzionatzea posible egiteko edo gordailu zigilatuetatik alkohola ateratzeko, kuoten 100eko 100eko diru isun proportzionalaz zigortuko da, beti ere haustura aurkitu baino lehen Administrazioari haren berri eman ez bazaio. Kuota horiek honela kalkulatu dira hurrenez hurren: aurreko apartatuan esandako eran, lehen kasurako, edo gordailuaren edukiera osoaren arabera, bigarren kasurako.

c) Alkohol fabriketako lehengaietako goranzko diferentziak erregelamendu bidez baimendutako portzentajeak baino handiagoak badira, lehengai horiek erabiliz fabrikatu litekeen alkohol puruari legokiokkeen kuotaren 100eko 100eko diru isun proportzionalaz zigortuko dira.

d) Edari deribatuak ontziratze baimena duten saltokietan egindako zenbaketetan marka fiskalik edo onarpen markarik eza erabilitako marken 1000ko 0,5 baino handiagoa bada, zirkulazioa marka horien bitartez babestuta eduki zezaketen edari deribatuen kopuruari dagokion alkohol bolumenari arau urraketa sumatzean indarrean dagoen zerga tasa aplikatuz aterako liratekeen kuoten 100eko 150eko diru isun proportzionalaz zigortuko da. Edariek 100eko 40 bol.eko gradu alkoholiko bolumetriko bereganatua dutela eta marka bakoitzean edukiera handieneko ontzietan ontzirituak direla ulertuko da.

2.³⁶ Alkohol erabat edo zati batean desnaturalizatuak berriztatzea zerga urraketa izango da. Zerga kuota exijitzea eragotzi gabe, alkohol berriztatuaren bolumenari arau urraketa sumatzean indarrean dagoen zerga tasa aplikatuz ateratzen denaren hiru halako diru isun proportzionalaz zigortuko da. Alkohola alkohol puruko hektolitrotan adieraziko da, 20°C-ko tenperaturan. Gainera, alkohola berriztatu den establezimendua ixteko zigorra ere ezarri ahal izango da foru dekretu honek 19.4 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Ulertuko da alkohol erabat edo zati batean desnaturalizatua berriztatua izan dela zer xede edo erabilpen izango duen frogatzen ez denean.

VII. kapituluak: Hidrokarburoen gaineko Zerga

46. artikulua. Esparru objektiboa.³⁷

1. Foru dekretu honen ondorioetarako, honako produktuak sartzen dira Hidrokarburoen gaineko Zergaren esparru objektiboan:

³⁶ Apartatu hau ekainaren 29ko 64/2004 Foru Dekretuaren 2. artikuluko Hiru zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorra amaierako bosgarren eta seigarren xedapenetan BEZari eta zerga bereziei dagokienez, hurrenez hurren, sartutako aldaketak Gipuzkoako araudira egokitzen ditu. Foru Dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean eta 2004ko uztailaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2004-07-06).

³⁷ Artikulu hau abenduaren 27ko 2/2005 FORU DEKRETU ARAUAK aldatu du bere 2.bat artikulua dela medio. Izendapena: ZERGA ALORREKO PRESAZKO FORU DEKRETU ARAUA, 22/2005 eta 23/2005 legeek lurralde komunean sartutako aldaketetara Gipuzkoako zerga araudia egokitzekoa. 2005-12-31n sartu da indarrean eta 2005-11-20etik aurrera ditu ondorioak.



- a) NC 2705, 2706, 2707, 2709, 2710, 2711, 2712 eta 2715 kodeetan sailkatutako produktuak.
- b) NC 2901 eta 2902 kodeetan sailkatutako produktuak.
- c) NC 3403 kodean sailkatutako produktuak.
- d) NC 3811 kodean sailkatutako produktuak.
- e) NC 3817 kodean sailkatutako produktuak.
- f) Nekazaritzako edo landare jatorriko produktuetatik abiatuta sortutako alkohol etilikoa, NC 2207.20.00 kodean sailkatua, karburante gisa erabiltzeko denean dela bere horretan, dela aldez aurreko aldaketa kimikoa eginda.
- g) Jarraian aipatzen diren produktuak, erregai edo karburante gisa erabiltzen direnean:
 - 1.— NC 2905.11.00 kodean sailkatutako alkohol metilikoa, nekazaritzako edo landare jatorriko produktuetatik abiatuta lortutakoa, bere horretan nahiz aldez aurreko aldaketa kimikoa eginda erabiltzen bada.
 - 2.— NC 1507tik NC 1518ra bitarteko kodeetan sailkatutako produktuei egindakotzat joko dira, produktu horiek beren horretan erabili nahiz aurrez aldaketa kimiko bat eginda erabili. Barruan sartzen dira 2710.20, 3826.00.10 eta 3826.00.90 NC kodeak dituzten produktuak, haietatik abiatuta lortu direnean.³⁸
 - 2. Aurreko apartatuan jasota ez egonik karburante gisa, karburanteen gehigarri gisa edo karburante baten amaierako bolumenaren handigarri gisa erabiltzekoak diren produktuak ere Zergaren esparru objektiboan sartuko dira.
 - 3. Era berean, zergaren esparru objektiboan sartuko dira 1 apartatuan aurreikusi ez diren hidrokarburoak -ikatz, lignitoa, zohikatz edo bestelako hidrokarburo solidoak-, baldin eta erregai gisa erabiltzeko badira.

47. artikulua. Zergapetu gabeko kasuak.

- 1. Ez dira zergapetuta egongo berekin ondoko hauek dakartzaten autokontsumoko eragiketak:
 - a) Suspentsio erregimenean dauden hidrokarburoak erabiltzea, karburantea edo erregaia ez diren erabileretan.
 - b) Hidrokarburoak erregai moduan erabiltzea, hidrokarburoak suspentsio erregimenean fabrikatzeko prozesuan.

³⁸ Apartatu hau urtarilaren 18ko 29/2012 FORU AGINDUAK aldatu dut. Aipatutako Foru Aginduak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea egokitzen duen martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak jasotzen duen nomenklatura konbinatuko kodeen erreferentziak, eguneratzen ditu. Indarrean sartzen da 2012ko urtarilaren 1etik aurrera (2012/01/23ko GAO).



2. Estatuaren lurralde esparruan Hidrokarburoen gaineko Zergari lotu gabe egongo dira ondorengo hauek: Espainia ez den Batasuneko beste estatu baten lurralde esparruan jadanik kontsumogai jarrita dauden eta ibilgailu komertzialen deposituetan sartuta dauden eta ibilgailu horien karburante gisa erabiliko diren hidrokarburoak, bai eta garraioaldian zehar edukiontzietako sistema funtzionarazteko edukiontzi berezietan dauden hidrokarburoak ere. .

Agindu honen eta 51. artikuluko 5 eta 6 apartatuen ondorioetarako, honelaxe ulertuko dira ondoko hauek:

a) “Depositu arruntak”:

- Aztergai den garraiobidearen mota bereko garraiobide guztietan fabrikatzaileak modu iraunkorrean jarritako deposituak, beren kokaera iraunkorra dela-eta karburantea zuzenean erabiltzeko aukera ematen dutenak, bai ibilgailuen trakziorako bai, hala dagokionean, hozte sistemek eta beste sistema batzuek garraioaldian behar duten funtzionamendurako ere. Halaber, “depositu arruntak” hartuko dira garraiobideetara egokitutako gas deposituak, gasa karburante moduan zuzenean erabiltzeko aukera ematen dutenean, bai eta garraiobideak izan ditzakeen beste sistema batzuetara egokitutako deposituak ere.

- Aztergai den garraiobidearen mota bereko edukiontzi guztietan fabrikatzaileak modu iraunkorrean jarritako deposituak, beren kokaera iraunkorra dela-eta karburantea zuzenean erabiltzeko aukera ematen dutenak, erabilera bereziko edukiontziek izan ditzaketen hozte sistemak eta beste sistema batzuek garraioaldian zehar duten funtzionamendurako.

b) “Edukiontzi bereziak”: hozte, oxigenatze edo isolatze termikoko sistemetara nahiz bestelako sistemetara bereziki egokitutako dispositibo z hornitutako edukiontziak.

48. artikulua. Oinarri ezargarria.

1. Zergaren oinarria zergari lotutako produktuen bolumena izango da, 15°C-ko tenperaturan neurtutako mila litroka adierazita. Halere, pisu edo energia unitatetan adierazitako zerga tasa duten produktuentzat, oinarria tonatan adierazitako produktuaren pisua izango da edo, bestela, gigajuliotan (GJ) adierazitako energia ahalmena.

2. Bolumena tenperaturaren arabera zehazteko, Izendapenaren Nazioarteko Erakundearen taulak erabiliko dira, ISO 91/1-1982 erreferentziaren bitartez.

49. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.

1.³⁹ Zerga honen ondorioetarako, definizio hauek eman dira:

³⁹ 1 apartatu hau abenduaren 27ko 2/2005 FORU DEKRETU ARAUak aldatu du bere 2.bi artikulua dela medio. Izendapena: ZERGA ALORREKO PRESAZKO FORU DEKRETU ARAUA, 22/2005 eta 23/2005 legeek lurralde komunetan sartutako aldaketetara Gipuzkoako zerga araudia egokitzekoa. 2005-12-31n sartu da indarrean eta 2005-11-20etik aurrera ditu ondorioak.



a)⁴⁰ 2710.12.31, 2710.12.51 eta 2710.12.59 NC kodeetan sailkatutako produktuei, haien erabilera zeinahi dela ere.

b)⁴¹ 2710.12.41, 2710.12.45 eta 2710.12.49 NC kodeetan sailkatutako produktuei, haien erabilera zeinahi dela ere.

c)⁴² 2710.12.11 eta 2710.12.90 bitarteko NC kodeetan sailkatutako produktuei, betiere gasolina berunduna edo berunik gabekoa ez badira. 2710.12.21 eta 2710.12.25 NC kodeetan sailkatutako produktuak direnean, horiek apartatu honetan sartzetik eratortzen diren xedapenak handizkako merkataritza mugimenduei baino ez zaizkie aplikatuko.

d) Kerosenoa: NC 2710.19.21 eta 2710.19.25 kodeetan sailkatutako produktuak.

e) Gainerako tarteko olioak: NC 2710.19.11tik NC 2710.19.29ra arteko kodeetan sailkatutako produktuak, kerosenoa ez direnean. Produktuak NC 2710.19.29 kodean sailkatuta daudenean, apartatu honetan sartzeagatik eratortzen diren xedapenak handizkako merkataritza mugimenduei baino ez zaie aplikatuko.

f)⁴³ 2710.19.31tik 2710.19.48ra eta 2710.20.11tik 2710.20.19ra bitarteko NC kodeetan sailkatutako produktuei.

g)⁴⁴ 2710.19.51tik 2710.19.68ra eta 2710.20.31tik 2710.20.39ra bitarteko NC kodeetan sailkatutako produktuei.

h) Petrolioaren gas likidotua (PGL): NC 2711.12.11tik NC 2711.19.00ra arteko kodeetan sailkatutako produktuak.

⁴⁰ Letra hau urtarrilaren 18ko 29/2012 FORU AGINDUAK aldatu dut. Aipatutako Foru Aginduak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzen duen martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak jasotzen duen nomenklatura konbinatuko kodeen erreferentziak, eguneratzen ditu. Indarrean sartzen da 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera (2012/01/23ko GAO).

⁴¹ Letra hau urtarrilaren 18ko 29/2012 FORU AGINDUAK aldatu dut. Aipatutako Foru Aginduak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzen duen martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak jasotzen duen nomenklatura konbinatuko kodeen erreferentziak, eguneratzen ditu. Indarrean sartzen da 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera (2012/01/23ko GAO).

⁴² Letra hau urtarrilaren 18ko 29/2012 FORU AGINDUAK aldatu dut. Aipatutako Foru Aginduak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzen duen martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak jasotzen duen nomenklatura konbinatuko kodeen erreferentziak, eguneratzen ditu. Indarrean sartzen da 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera (2012/01/23ko GAO).

⁴³ Letra hau urtarrilaren 18ko 29/2012 FORU AGINDUAK aldatu dut. Aipatutako Foru Aginduak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzen duen martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak jasotzen duen nomenklatura konbinatuko kodeen erreferentziak, eguneratzen ditu. Indarrean sartzen da 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera (2012/01/23ko GAO).

⁴⁴ Letra hau urtarrilaren 18ko 29/2012 FORU AGINDUAK aldatu dut. Aipatutako Foru Aginduak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzen duen martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak jasotzen duen nomenklatura konbinatuko kodeen erreferentziak, eguneratzen ditu. Indarrean sartzen da 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera (2012/01/23ko GAO).



- i) Gas naturala: NC 2711.11.00 eta 2711.21.00 kodeetan sailkatutako produktuak.
- j) Bioetanola: 46.1.f) artikuluan aipatzen diren produktuak.
- k) Biometanola: 46.1.g).1 artikuluan aipatzen diren produktuak.
- l) Biodiesela: 46.1.g).2 artikuluan aipatzen diren produktuak.
- m) Biokarburanteak: Biometanola eta biodiesela, karburante gisa erabiltzen direnean, eta bioetanola.
- n) Bioerregaiak: Biometanola eta biodiesela, erregai gisa erabiltzen direnean.
- ñ) Kontrolpeko beste hidrokarburo batzuk: NC 2707.10, 2707.20, 2707.30, 2707.50, 2901.10, 2902.20, 2902.30, 2902.41, 2902.42, 2902.43 eta 2902.44 kodeetan sailkatutako produktuak.

o)⁴⁵ Artikulu honetan definitutzat hartuko da 2003ko urriaren 27ko Kontseiluaren 2003/96/EE Zuzentarauak, energia eta elektrizitate produktuak erkidegoan zergapetzeko erregimena berregituratzen duenak, 20.2 artikuluan jasotakoagatik 2008ko abenduaren 16ko Kontseiluaren 2008/118/EE Zuzentarauak, zerga berezien araubide orokorra ezarri eta 92/12/EE Zuzentzaria indargabetzen duenak, ezarritako kontrol eta zirkulazio xedapenak aplikagarri dituen beste edozein produktu.

2. Zerga honen ondorioetarako, honelaxe ulertuko dira honako hauek:

- a) Karburante moduko erabilera: Hidrokarburoen gaineko Zergaren esparru objektiboan sartutako produktu bat erabiltzea erregai gisa edozein motore motatan.
- b) Erregai moduko erabilera: hidrokarburo bat errekuntza bitartez erabiltzea berokuntza helburuetarako, baina karburante moduan erabili gabe.

50. artikulua. Zerga tasak.

1. ⁴⁶Tarifa eta epigrafe hauen arabera ordainaraziko da zerga:

—1. tarifa:

⁴⁵ Letra hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 2 artikuluko hamabi apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentzari gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera dituen.

⁴⁶ 1 apartatu hau abenduaren 27ko 2/2005 FORU DEKRETU ARAUAk aldatu du bere 2.hiru artikulua dela medio. Izendapena: ZERGA ALORREKO PRESAZKO FORU DEKRETU ARAUA, 22/2005 eta 23/2005 legeek lurralde komunean sartutako aldatetara Gipuzkoako zerga araudia egokitzeko. 2005-12-31n sartu da indarrean eta 2005-11-20etik aurrera ditu ondorioak.



1.1 epigrafea. Gasolina berundunak: 433,79 euro 1.000 litroko.⁴⁷

1.2.1 epigrafea. 98 O.I. (oktanaje indizea) edo oktanaje handiagoa duten berunik gabeko gasolinak: 431,92 euro 1.000 litroko.⁴⁸

1.2.2 epigrafea. Berunik gabeko gainerako gasolinak: 400,69 euro 1.000 litroko.⁴⁹

1.3 epigrafea. Erabilera orokorreko gasolioak: 307,00 euro 1.000 litroko.⁵⁰

1.4 epigrafea. 54. artikulua 2 apartatua aurreikusitako erabileretan karburante gisa eta, oro har, erregai gisa erabil daitezkeen gasolioak: 78,71 euro 1.000 litroko.

1.5 epigrafea. Fuelolioak: 14,00 euro tona bakoitzeko.⁵¹

1.6 epigrafea. Erabilera orokorreko petrolio-gas likidotua (PGL): 57,47 euro tona bakoitzeko.

1.8 epigrafea. Karburantez bestelako erabilera duten PGLak: 0 euro tona bakoitzeko.

1.9 epigrafea. Erabilera orokorreko gasa: 1,15 euro gigajulioko.

1.10 epigrafea. Karburantez bestelako erabileretarako gas naturala, eta motor estazionarioetan karburante gisa erabiltzeko gas naturala: 0 euro gigajulioko.

1.11 epigrafea. Erabilpen orokorreko kerosenoa: 306 euro 1.000 litroko.⁵²

⁴⁷ 1.1 epigrafe hau uztailaren 27ko 3/2012 FORU DEKRETU-ARAUAREN 3. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen ditu. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jartzen da indarrean (2012/08/13ko GAO) eta aldaketa honek 2012. urteko uztailaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

⁴⁸ 1.2.1 epigrafe hau ekainaren 30eko 4/2009 FORU DEKRETU ARAUAREN artikuluko bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Zerga Bereziak aldatzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2009ko ekainaren 13tik aurrera ditu ondorioak. (2009-07-06ko GAO).

⁴⁹ 1.2.2 epigrafe hau ekainaren 30eko 4/2009 FORU DEKRETU ARAUAREN artikuluko bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Zerga Bereziak aldatzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2009ko ekainaren 13tik aurrera ditu ondorioak. (2009-07-06ko GAO).

⁵⁰ 1.3 epigrafe hau ekainaren 30eko 4/2009 FORU DEKRETU ARAUAREN artikuluko bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Zerga Bereziak aldatzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2009ko ekainaren 13tik aurrera ditu ondorioak. (2009-07-06ko GAO).

⁵¹ 1.5 epigrafe hau urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUAREN 3. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2007-1-15eko GAO).

⁵² Epigrafe hau uztailaren 27ko 3/2012 FORU DEKRETU-ARAUAREN 3. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga,



1.12 epigrafea. Karburantez bestelako erabileretarako kerosenoa: 78,71 euro 1.000 litroko.

1.13 epigrafea. Karburante gisa erabiltzeko bioetanola eta biometanola: 0 euro 1.000 litroko. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, 1.2.2 epigrafean adierazitako tasa aplikatuko da, 50 bis artikulua 2 apartatutan aurreikusitakoa eragotzi gabe.

1.14 epigrafea. Karburante gisa erabiltzeko biodiesela: 0 euro 1.000 litroko. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, 1.3 epigrafean adierazitako tasa aplikatuko da, 50 bis artikulua 2 apartatutan aurreikusitakoa eragotzi gabe.

1.15 epigrafea. Erregai gisa erabiltzeko biodiesela eta biometanola: 0 euro 1.000 litroko. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, 1.4 epigrafean adierazitako tasa aplikatuko da.

—2. tarifa:

2.1 epigrafea. Arrikatz-mundrunak eta NC 2706 kodean sailkatutako gainerako produktuak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.2 epigrafea. Bentzolak eta NC 2707.10; 2707.20; 2707.30 eta 2707.50 kodeetan sailkatutako gainerako produktuak: 1.1 epigraferako ezarritako tasa.

2.3 epigrafea. NC 2707.91.00 kodean sailkatutako kreosota olioak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.4 epigrafea. Olio gordinak eta NC 2707 kodean sailkatutako eta 2.2 eta 2.3 epigrafeetan jaso gabeko gainerako produktuak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.5 epigrafea. Gas naturalaren olio gordin kondentsatuak, erabilera orokorrekoak, NC 2709 kodean sailkatuak: 1.11 epigraferako ezarritako tasa.

2.6 epigrafea. Gas naturalaren olio gordin kondentsatuak, karburantez bestelako erabilera dutenak, NC 2709 kodean sailkatuak: 1.12 epigraferako ezarritako tasa.

2.7 epigrafea. NC 2709 kodean sailkatutako gainerako produktuak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.8 epigrafea. Gasolina bereziak eta erabilerari begiratu gabe, 2710.12.11, 2710.12.15, 2710.12.21, 2710.12.25, 2710.12.70 eta 2710.12.90 NC kodeetan sailkatutako gainerako produktuak: 1.1 epigraferako ezarritako tasa.⁵³

zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen ditu. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jartzen da indarrean (2012/08/13ko GAO) eta aldaketa honek 2012. urteko uztailaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

⁵³ Epigrafe hau urtarrilaren 18ko 29/2012 FORU AGINDUAK aldatu dut. Aipatutako Foru Aginduak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea egokitzen duen martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak jasotzen duen nomenklatura konbinatuko kodeen erreferentziak, eguneratzen ditu. Indarrean sartzen da 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera (2012/01/23ko GAO)



2.9 epigrafea. Kerosenoak ez diren tarteko olioak, erabilerari begiratu gabe NC 2710.19.11, 2710.19.15 eta 2710.19.29 kodeetan sailkatuak eta erabilera orokorrekoak: 1.11 epigraferako ezarritako tasa.

2.10 epigrafea. Kerosenoak ez diren tarteko olioak, erabilerari begiratu gabe NC 2710.19.11, 2710.19.15 eta 2710.19.29 kodeetan sailkatuak eta karburantez bestelako erabilera dutenak: 1.12 epigraferako ezarritako tasa.

2.11 epigrafea. Erabilerari begiratu gabe 2710.19.81, 2710.19.83, 2710.19.85, 2710.19.87, 2710.19.91, 2710.19.93, 2710.19.99 eta 2710.20.90 NC kodeetan sailkatutako olio astunak eta prestakinak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.⁵⁴

2.12 epigrafea. NC 2711.29.00 kodean sailkatutako hidrokarburo gaseosoak, eta NC 2705 kodean sailkatutako produktuak, erabilera orokorrekoak: 1.9 epigraferako ezarritako tasa.

2.13 epigrafea.⁵⁵ NC 2711.29.00 kodean sailkatutako hidrokarburo gaseosoak eta NC 2705 kodean sailkatutako produktuak, karburantez bestelako erabilera dutenak; motor estazionarioetarako karburante gisa erabilitako biogasa: 1.10 epigraferako ezarritako tasa.

Epigrafe hau aplikatzeko, biogasatzat hartzen da biomasatik edota hondakinen zati batetik abiatuta sortutako erregai gaseosoa, harik eta gas naturalaren kalitatatearen antzekoa lortu arte araztu daitekeena, biokarburante gisa erabiltzekoa, edo, bestela, egurretik abiatuta sortutako gasa.

2.14 epigrafea. Baselina eta NC 2712 kodean sailkatutako gainerako produktuak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa

2.15 epigrafea. NC 2715 kodean sailkatutako nahasketa bituminosoak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.16 epigrafea. Osaera kimiko jakineko hidrokarburoak, Zergaren esparru objektiboan sartuak eta NC 2901 eta 2902 kodeetan sailkatuak: 1.1 epigraferako ezarritako tasa.

2.17 epigrafea. NC 3403 kodean sailkatutako prestakinak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

⁵⁴ Epigrafe hau urtarrilaren 18ko 29/2012 FORU AGINDUAK aldatu dut. Aipatutako Foru Aginduak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea egokitzen duen martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak jasotzen duen nomenklatura konbinatuko kodeen erreferentziak, eguneratzen ditu. Indarrean sartzen da 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera (2012/01/23ko GAO)

⁵⁵ Epigrafe hau otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUAREN 5. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen du. Aldaketak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2008-02-15eko GAO).



2.18 epigrafea. Detonazioaren kontrako prestakinak eta gehigarriak, NC 3811 kodean sailkatuak: 1.1 epigraferako ezarritako tasa.

2.19 epigrafea. Alkilbentzenoen nahasketak eta alkilnaftalenoen nahasketak, NC 3817 kodean sailkatuak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2. Foru dekretu honetako 46. artikulua 2 eta 3 apartatuetan jasotako produktuei aplikatuko zaizkie zergaren 1. tarifyan sartuta dauden eta erabileran ahalmena baliokidea duten hidrokarburoei dagozkien zerga tasak, foru dekretu honetako 54. artikulua 1 apartatua aipatutako erabileran baimenaren espedientetik ateratzen denaren arabera.

3.⁵⁶ 8. artikulua 7. apartatua ezarritakoa eragotzi gabe, 1.4, 1.12 eta 2.10 epigrafeetarako ezarritako tasa murriztuak aplikatu ahal izateko, erregelamenduz ezarriko diren baldintzak bete beharko dira trazatzaile eta markatzaileak gehitzeari dagokionez eta produktuei benetan emandako erabilerari dagokionez. Baldintza horien artean berariazko ordainketa moduak egon ahal izango dira.

50.bis artikulua. Biokarburante eta bioerregaietarako zerga tasak.⁵⁷

1. Biokarburanteak eta bioerregaiak foru dekretu honen 50. artikuluko 1 apartatua jasota dagoen 1. tarifyako 1.13tik 1.15era arteko epigrafeetan ezarritako tasen arabera zergapetuko dira. Tasa horiek biokarburante edo bioerregai bokumenaren gainean bakarrik aplikatuko dira, inoiz ez haiekin nahastuta erabil litezkeen beste produktu batzuen bolumenaren gainean.

2. Petrolio-gaien eta biokarburante nahiz bioerregaien kostuen bilakaera konparatiboa ikusita komenigarria gertatuz gero, foru arau maila izango duen xedapen baten bidez 1.13tik 1.15era arteko epigrafeetan aurreikusitako zerga tasak finkatu ahal izango dira aipatutako zirkunstantziak aintzat harturik, eta, hala badagokio, zenbateko positiboa duten karga tasak ezarriko dira.

51. artikulua. Salbuespenak.

Foru dekretu honek 9. artikuluan jasotako eragiketez gain, ondorengo eragiketarako salbuetsita egongo dira, erregelamenduz jarritako baldintzetan eta 53. artikulua 4 apartatua jasotakoa eragotzi gabe:

⁵⁶ Apartatu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 2 artikuluko hamahiru apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentzarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.

⁵⁷ 50.bis artikulua hau abenduaren 27ko 2/2005 FORU DEKRETU ARAUAk aldatu du bere 2.bost artikulua dela medio. Izendapena: ZERGA ALORREKO PRESAZKO FORU DEKRETU ARAUA, 22/2005 eta 23/2005 legeek lurralde komunetan sartutako aldaketetara Gipuzkoako zerga araudia egokitzeko. 2005-12-31n sartu da indarrean eta 2005-11-20etik aurrera ditu ondorioak.



1.⁵⁸ Gas naturala eta zergaren esparru objektiboan sartuta dauden 2. tarifako produktuak fabrikatzea eta inportatzea, baldin eta ematen zaien erabilera karburante edo erregaiarena ez bada.

2. Zergaren esparru objektiboan sartutako produktuak fabrikatzea eta inportatzea, baldin eta erabilera hauek izan beharko badituzte:

a) Aire nabigazioan, aisiarako abiazio pribatuan izan ezik, karburante gisa erabiltzea.

b) Nabigazioan, arrantza barne, eta aisiarako nabigazio pribatuan izan ezik, karburante gisa erabiltzea.

c)⁵⁹ Zentral elektrikoetan elektrizitatea produzitzea, edo zentral konbinatueta elektrizitatea produzitzea edo elektrizitatea eta beroa sortzea.

Salbuespen hau aplikatzearen ondorioetarako, kontzeptu horiek honela definitzen dira:

“Zentral elektrikoa”: energia elektrikoa produzitzeko eratutako instalazioa, bere jarduera Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen aplikaziopean burutzen duena, eta ezarri eta funtzionatzeko lege horrek IV. tituluaren I. kapituluaren ezarritako baimenak jaso dituen.

“Zentral konbinatua”: energia elektrikoa edo energia elektrikoa eta energia gisa aprobetxatuko den beroa batera sortzeko eratutako instalazioa, bere jarduera Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen aplikaziopean burutzen duena, eta ezarri eta funtzionatzeko Lege horrek IV. tituluaren II. kapituluaren ezarritako baimenak jaso dituen.

d) Trenbidezko garraioan karburante gisa erabiltzea.

e) Aireontzi eta urontziak egin, aldatu, probak egin eta mantenimendua egitean erabiltzea.

f) Nabigazio bideak eta portuak dragatzeko lanetan erabiltzea.

g) Erredukzio kimikoaren helburuez labe garaietan injektatzea, erregai nagusi moduan erabiltzen den ikatzari gehituta, bai eta injekzio horretatik zeharka berokuntza helburuko erredukzioa lortzen denean ere.

⁵⁸ 1 apartatu hau abenduaren 27ko 2/2005 FORU DEKRETU ARAUAK aldatu du bere 2.sei artikulua dela medio. Izendapena: ZERGA ALORREKO PRESAZKO FORU DEKRETU ARAUA, 22/2005 eta 23/2005 legeek lurralde komunean sartutako aldaketetara Gipuzkoako zerga araudia egokitzeko. 2005-12-31n sartu da indarrean eta 2005-11-20etik aurrera ditu ondorioak.

⁵⁹ c) letra hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 2. artikuluko sei zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Foru Dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-03-06).



Hemengo 2 apartatuan aipatutako kasuetan gasolioa erabiltzeari dagokionean salbuespena aplikatu ahal izateko, gasolioak eraman beharko du tasa murritzua erabiltzeko erregelamenduz eskatutako trazatzaile eta markatzaileak, autokontsumoko eragiketen kasuan izan ezik.

3.⁶⁰ Biokarburante edo bioerregaiak fabrikatu eta inportatzea, kutsagarritasun txikiagoko produktuen garapen teknologikorako proiektu aitzindarien esparruan. Salbuespenak biokarburanteari edo bioerregaiari baino ez dio eragingo, inoiz ez haiekin nahastuta erabil litezkeen beste produktuei.

Foru dekretu honek apartatu honetan eta 52.c artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, «kutsagarritasun txikiagoko produktuen garapen teknologikorako proiektu aitzindariak» honako hauek izango dira: Aipatutako produktuak ekoiztu edo erabiltzeko eta haien ekoizpen edo erabilpenaren bideragarritasun teknikoa edo teknologikoa erakusteko asmoz denboran mugatuak egiten diren proiektu esperimentalak, emaitzen ondorengo ustiapen industrialak bazter utzita. Proiektuek arauz finkatutako kopurua gainditzen ez duen produktu kopuru txiki bat hartzen dutenean, baldintza horiek bete direla ulertu ahal izango da.

4. (indargabetua)⁶¹

5. Turismoko ibilgailuen depositu arruntetan dauden karburanteak inportatzea, bai eta depositu mugikorretan gehienez ibilgailuko 10 litroraino dagoen karburantea ere, karburantea eduki eta garraiatzeari buruzko araudia aplikatzea eragotzi gabe.

6. Ibilgailu komertzialen eta edukiontzi berezien depositu berezietan dauden karburanteak inportatzea, gehienez 200 litroraino.

52. artikulua. Kuotak itzultzea.

Zerga dela-eta ordaindutako kuotak itzultzeko eskubidea aitortuko da, erregelamenduz jasotzen diren baldintzetan, 10. artikuluan jasotako kasuetan ez ezik beste hauetan ere:

a)⁶² Ustiapen industrialen titularrek zergari atxikita dauden eta bere 1. tarifako tasak aplikagarri zaizkien produktuak zuzenean edo zeharka kontsumitzea, gas naturala izan ezik, erregai eta karburantez bestelako erabileretan.

⁶⁰ 3 apartatu hau abenduaren 27ko 2/2005 FORU DEKRETU ARAUAK aldatu du bere 2.zazpi artikulua dela medio. Izendapena: ZERGA ALORREKO PRESAZKO FORU DEKRETU ARAUA, 22/2005 eta 23/2005 legeek lurralde komunean sartutako aldatetara Gipuzkoako zerga araudia egokitzekoa. 2005-12-31n sartu da indarrean eta 2005-11-20etik aurrera ditu ondorioak.

⁶¹ 4. apartatu hau urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUAREN 3. artikuluko bi apartatuak indargabetu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2007-1-15eko GAO).



b) Aisiarako nabigazio pribatuaz bestelakoa egiten duten urontziak gasolioaz hornitzea. Kuota itzultzeko, haiei hornitutako gasolioak tasa murriztua aplikatzeko erregelamenduz eskatutako trazatzaile eta markatzaileak eraman behar ditu.

c) Kutsagarritasun txikiagoko produktuen garapen teknologikorako proiektu aintzindarietan zergari lotutako produktuak erabiltzea, bereziki baliabide berriztagarrietatik abiatuz lortutako erregai eta karburanteak.

d) Ustekabeen beste batzuekin nahastu diren edo kutsatu diren zergari lotutako produktuak fabrikara edo gordailu fiskalera itzultzea.

52 bis. artikulua. Itzulketa partziala erabilera profesionaleko gasolioarengatik.⁶³

1. Bigarren apartatuan aipatutako ibilgailuen titularrek, betiere horretan jasotako baldintzak betetzen badituzte, eskubidea izango dute haiek ordaindu edo jasandako Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa partziala jasotzeko, aipatu ibilgailuen motorrean erregai gisa sartutako erabilera orokorreko gasolioari dagokionez.

2. Hauexek dira 1. apartatuan aipatzen diren ibilgailuak:

a) Ibilgailu motordunak eta ibilgailu akoplatuen multzoak, baldin eta bakarrik erabiltzen badira merkantzien errepide bidezko garraioan, besteren kontura edo norbere kontura, eta 7,5 tonako gehieneko pisu baimendua edo hortik gorakoa badute.

b) Bidaiarien garraio erregularrean edo inoizkakotan erabiltzen diren ibilgailu motordunak, betiere sartuta badaude Kontseiluaren 1970eko otsailaren 6ko 70/156/EEE Zuzentarauak, Europar Batasuneko estatu kideen ibilgailu motordunen eta horien atoen arloko legediak hurbiltzeari buruzkoak, jasotako m2 edo m3 kategorietan.

c) Taxiak. Honetarako, taxitzat hartzen da bidaiarien zerbitzu publikoan erabiltzen den turismoa, udal baimena duena eta taximetroa daukana.

3. Aurreko apartatuan aipatutako ibilgailuen titularrek eduki behar dute jardueran aritzeko gaitzen duen titulu administratiboa, hala badagokio, Lehorreko Garraioa Antolatzeke uztailaren 30eko 16/1987 Legeak jasotakoaren arabera. Era berean,

⁶² A) letra hau abenduaren 27ko 2/2005 FORU DEKRETU ARAUAK aldatu du bere 2.zortzi artikulua dela medio. Izendapena: ZERGA ALORREKO PRESAZKO FORU DEKRETU ARAUA, 22/2005 eta 23/2005 legeek lurralde komunean sartutako aldaketetara Gipuzkoako zerga araudia egokitzea. 2005-12-31n sartu da indarrean eta 2005-11-20etik aurrera ditu ondorioak.

⁶³ 52 bis artikulua hau urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUAREN 3. artikuluko hiru apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2007-1-15eko GAO).



autonomietako edo tokiko agintariak jardueran ari-tzeko eman beharreko lizentzia eta baimenak eduki behar dituzte aipatu titularrek.

Lurralde espainiarrean egoitza ez duten baina bai Europar Batasuneko gainerako lurraldean egoitza edo establezimendu iraunkorra duten titularrak direnean, eduki behar dituzte dena delako estatu kidearen araudiak jardueran aritzeko finkatzen dituen baimen administratiboak.

4. Itzulketaren oinarria izango da ondorengo 5. apartatuan aipatutako koefizienteetako bat interesatuak erosi duen eta aurreko 2. apartatuko ibilgailuetan erregai gisa, bioerregaiekin nahastuta ere, erabili duen gasolio bolumenarekin biderkatuz ateratzen den emaitza. Oinarria mila litrokotan adierazi behar da.

5. Gasolio horniduraren batez besteko tenperatura eta gasolioan jasotako bioerregaien batez besteko bolumena aintzat hartze aldera, koefiziente zuzentzaile hauek finkatu dira:

a) Ondorengo b) letran jasotakoez besteko erabilera orokorreko gasolioak: 0,998.

b) Automozio gasolioaren ezaugarri teknikoak betetzen dituzten baina, bioerregaien edukiarengatik eta ezaugarri teknikoei buruzko araudiari jarraituz, saltokietan berariazko etiketa behar duten produktuak: Koefiziente zuzentzailea izango da 1.3 epigrafeko tasan zergapetuta eta produktuan jasota dagoen gasolio kopurua (bateko hainbestekotan adierazia) 0,998522 faktorearekin biderkatuz atera-tzen den emaitza. Horren balioa hirugarren zenbaki hamartarrarekin biribildu behar da.

Fiskalitaterako eta Finantzetarako Foru Diputatuak berrikus ditzake, lehen aldiz 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aurreko a) letran jasotako koefiziente zuzentzailearen balioa eta aurreko b) letran jasotako faktorea, datuen arabera aldaketa nabarmenak hautematen direnean estatuaren barruko lurraldeko batez besteko tenperaturari eta estatuaren barruko lurraldean 1.3 epigrafeko tasa aplikatuta kontsumogai jarritako gasolioan azkenean bioerregaiek duten batez besteko propor-tzioari buruzko datuetan.

6. a)⁶⁴ Itzulketako tasa, 1.000 litroko eurotan adierazia, 1.3 epigrafeko zerga tasari (itzulketarako eskubidea sortzen den unean indarrean dagoenari) 306 euro kenduta ateratzen den zenbateko positiboa izango da.

b) Foru arau mailako xedapen bidez aldatu daiteke itzulketaren tasa.

c) Gehienez itzultzeko zenbatekoa ez da handiagoa izango ibilgailu eta urte bakoitzeko 50.000 litro gasoliori egokituko litzaiokeen itzulketa baino. Nolanahi ere, autotaxiak badira, gehienez itzultzeko kopurua ez da handiagoa izango

⁶⁴ Letra hau urtarrilaren 24ko 1/2012 FORU DEKRETU-ARAUaren 3. artikuluaen bat apartatuak aldatzen du. Aipatutako foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2012/01/31ko GAO) eta 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.



autotaxi eta urte bakoitzeko 5.000 litro gasoliori egokituko litzaiokeen zenbatekoa baino.

Fiskalitaterako eta Finantzatarako Foru Diputatuak xedatu dezake muga horiek zatika-tzea, urtetik beherako denbora tarteei dagokienez aplikatze aldera.

7. Fiskalitaterako eta Finantzatarako Foru Diputatuak finkatuko du itzulketaren prozedura, eta alderdi hauek konpentsatu ditzake, besteak beste:

a) Interesatuek berariazko erregistro batean izena emateko obligazioa, eta zerga aitorpenak aurkezteko obligazioa itzulketa kudeatu eta egiaztatze garrantzitsuak diren jarduera datuei dagokienez.

b) Interesatuek berariazko ordainbideak erabiltzeko obligazioa, itzulketa eskatu den gasolioa eroste aldera. Hala ezartzen denean, itzulketa eskatzeko zerga aitorpentzat hartuko da itzulketa eskatu duten gasolioa eroste aldera interesatuek berariazko ordainbideak derrigorrez erabil-tzea.

c) Zerga Administrazioari itzulketaren eskatzaileek aipatu ordainbideak erabiltzean lortzen den informazioa emateko obligazioa, berariazko ordainbideak ematen dituzten entitateetarako eta haiek onartzen dituzten saltzaileentzat.

8. Aurreko 7. apartatuan aipatzen den berariazko ordainbideen erabilpena, betiere egiten bada artikuluko honetan araututako itzulketaeskubidea behar ez bezala sortzen duen gasolio erosketaren itxura egite aldera, zerga urraketa izango da, eta zigor gisa jarriko da itxura egindako erosketaren zenbatekoaren hirukoitzaren pareko diru isun proportzionala, gutxienez 3.000 eurokoa. Urraketa horiek egiteak dakarren erantzukizuna egozteko, egileztat hartuko dira aipatu ordainbideen titularrak, non eta behar bezala salatutako lapurreta ez den gertatu.

9. artikuluko honetan araututako itzulketa eskatzen den gasolioa erabiltzea debekatuta dago 2. apartatuan aipatutako ibilgailuenak ez diren motorretan. Debeku hau ez betetzea zerga urraketa da, eta Foru Dekretu honek 55. artikuluan jasotakoaren arabera zigortuko da.

10. Aurreko apartatuan jasotako urraketa zigortzeak ez du kentzen itzulketa eskatzen den gasolioa jasotzeko baimendik ez duten pertsonen hornitzen dietenei dagokien erantzukizuna.

Foru Dekretu honek 8.6 eta 15.11 artikuluetan jasotakoa aplikatzeko, itzulketa eskatzen den gasolioa hartuko da erabilpena dela-eta tasa murriztua aplikatu zaion gasoliotzat.

52 ter artikulua. Itzulketa partziala nekazaritzan eta abeltzaintzan erabilitako gasolioagatik.⁶⁵

⁶⁵ Artikuluko hau urtarilaren 12ko 1/2010 FORU DEKRETU-ARAUAREN 4. artikuluko bi apartatuak gehitu du. Aipatutako Foru Dekretu-Arauak zenbait zerga aldatzen ditu (2010/01/21eko GAO). Aldaketak 2010eko urtarilaren 1etik aurrerako ondoriak ditu.



Bat. a) Aurreko urte naturalean nekazari edo abeltzainek eskuratutako gasolioa zergapetua izan bada foru dekretu honen 50.1 artikuluko 1.4 epigrafean ezarritako tasaren arabera, eskubidea izango dute Hidrokarburoen gaineko Zergarengatik ordaindu edo jasandako kuotak haiei itzultzeko.

b) Itzuli beharreko kuoten zenbatekoa honela kalkulatu da: Nekazaritzan - barazkigintza, abeltzaintza eta basogintza barne- benetan erabilitako gasolio bolumena, mila litrokotan adierazia, 0,998 koefizientearekin biderkatuko da, eta ateratzen den emaitzari 78,71 euroko tasa aplikatuko zaio 1.000 litro bakoitzeko.

Bi. Itzulketa honen ondorioetarako, pertsonak edo entitateak nekazaritzat hartuko dira baldin eta, foru dekretu honen 50.1 artikuluko 1.4 epigrafearen arabera zergapetutako gasolioa adierazitako epean erabiltzeko eskubidea izanik, hura karburante gisa erabili badute nekazaritzan -barazkigintza, abeltzaintza eta basogintza barne-, eta gainera, jarduera horietan aritzeari begira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen duen Enpresari, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldan inskribatuak egon badira.

Hiru. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitzen duen prozeduraren bitartez egingo da itzulketa, zeinak berarekin ekar baitezake interesatuek zerga aitorpenak aurkeztu behar izatea, baita zentsu arlokoak ere.

53. artikulua. Kudeaketa arau bereziak.⁶⁶

1. Foru dekretu honek 4. artikuluen 17. apartatuan ezarritakoa baztertu gabe, fabrikatzat hartuko dira honako hauek:

a) Zergaren xede diren eta 49. artikuluen 1. apartatuan definituta dauden produktuei tratamendu jakin bat emateko erabiltzen diren establezimenduak, nomenklatura konbinatuaren 27. kapituluko 5. ohar osagarrian ezarritako kontzeptuaren arabera.

b) Titularrek hala eskatzen badute, zergaren xede diren eta haren 1. tarifako produktuei eraldaketa kimiko bat emateko erabiltzen diren establezimenduak. Ondorio horietarako, "eraldaketa kimikotzat" hartuko da produktuaren molekulak eraldatzea helburu duen edozein eragiketa.

2. Foru dekretu honek 4. artikuluen 18. apartatuan jasotakoa jasota ere, zergari lotutako produktu baten erabiltzaileak establezimendu berean hura berriz erabiltzeko egiten dituen eragiketak ez dira fabrikaziotzat hartuko, betiere berak ordaindutako zerga berrerabilitako produktuari dagokiona baino txikiagoa ez bada.

⁶⁶ Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 2 artikuluko hamalau apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.



3. Foru dekretu honen 4. artikuluko 17. apartatuan jasotakoa jasota ere, zergari lotutako produktuen kantitate txikiak modu osagarrian lortzeko erabilitako establezimenduak ez dira fabrikatzat hartuko. Erregelamenduz finkatuko da kasu horietan zerga likidatu eta ordaintzeko prozedura erraztua.

4. Gas naturala nahiz Hidrokarburoen gaineko Zergaren esparru objektiboan sartuta dauden produktuak, foru dekretu honen 49.1 artikuluko definizioetan jaso gabekoak, zirkulatu, eduki eta erabiltzeak ez du berariazko beharkizun formalik izango zerga horri dagokionez, baina horrek ez du 6. apartatuan xedatutakoa eragotziko, ezta haien sorburu eta jatorria zuzenbidean onargarriak diren frogabideak erabiliz justifikatzeko obligazioa ere.

5. Foru dekretu honen 51.1 artikuluan jasotako salbuespena aplikatzen zaien 2. tarifako produktuei eta gas naturalari dagokienez, honako erregela bereziak hartuko dira kontuan:

a) Artikulu honen 1. apartatuko a) letran xedatutakoa eragotzi gabe, 2. tarifa jasotako produktuak lortzea tarifa horretan sartuta dauden eta etendura erregimena amaitua duten beste produktu batzuetatik abiatuta, ez da fabrikaziotzat hartuko. Dena den, horrek ez du kentzen foru dekretu 51.1 artikuluan aurreikusitako salbuespena aplikatzeko exijigarriak diren beharkizunak betetzea.

b) Gas naturala edo apartatu honetan aipatutako 2. tarifako produktuak erregai edo karburante gisa gerora erabiltzen badira, helburu horietarako erabili edo merkaturatzen dituenari exijituko zaio zerga, betiere erregelamenduz ezartzen den prozedurari jarraiki.

6. Batasunaren barruko gas naturalaren trukeetan honako erregelak hartuko dira kontuan:

a) Foru dekretu honen 16. artikuluko 2., 3. eta 4. apartatuetan aipatzen diren prozedurak ez dira aplikatuko.

b) Batasunaren gainerako lurralde eremutik iristen den gas naturala barruko lurralde eremuan jasotzen denean, gordailu fiskal bat izanik zuzeneko hartzailea -gas hodiak eta gas hodian sareak barne, 4.10 artikuluan ezarritakoaren arabera-, etendura erregimenean jasotzat hartuko da eta, beraz, oro har foru dekretu honek erregimen horren pean dauden fabrikazio zerga berezien produktuetarako aurreikusitako arauak aplikatuko dira.

c) Aurreko letran aipatutakoak ez bezalako kasuetan, Batasunaren gainerako lurralde eremutik iristen den gas naturala barruko lurralde eremuan jasotzen bada, jasotzaileei 4. artikuluko 11. apartatuan aipatzen diren operadore erregistratuei dagokien erregimena aplikatuko zaie, betiere artikulu honen 4. apartatuan ezarritakoa baztertu gabe.

d) Gas naturala barruko lurralde eremutik Batasunaren gainerako lurralde eremura bidaltzen denean, igorleek frogatu beharko dute, hala eskatzen zaienean, hartzailea helmugako estatu kidean erregistratutako enpresa bat dela,



estatu kide horretako araudiaren arabera, eta hartzaile horrek gas naturala jaso duela.

54. artikulua. Erabilera debekatu eta mugatzea.⁶⁷

1. Foru dekretu honetako 46. artikulua 2 apartatuan aipatutako produktuak karburante gisa erabiltzea edo artikulua horretako 3 apartatuan aipatutako hidrokarburoak erregai moduan erabiltzea debekatuta dago, non eta Fiskalitaterako eta Finantzatarako foru diputatuak ez duen erabilera hori espresuki baimentzen interesatuek eskatuta hasiko den espediente bat ebatzi eta gero. Espediente horretan zehaztuko da zergaren 1. tarifako zein hidrokarburok duen espedientearen xede den produktuaren antzeko erabilera.

2. Gasolioa karburante gisa erabiltzea, zergaren 1. tarifako 1.4 epigrafean ezarritako tasa aplikatuta, motor guztietan baimentzen da, ondoko motorrak direnean izan ezik:

a) Bide eta terreno publikoetatik zirkulatzeko baimenduta dauden tramankulu edo aparatuei propulzioa emateko erabilitako motorrak, ibilgailu bereziak izanda ere.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa hala izanik ere, nekazaritzan (barazkigintza, abeltzaintza eta basozaintza barne) erabiltzen diren traktoreen eta makineriaren motorretan gasolioa erabili ahal izango da, zergaren 1. tarifako 1.4 epigrafean jasotako tasa aplikatuta, bide eta terreno publikoetatik zirkulatzeko baimenduta daudenean.

b) Tramankulu eta aparatuei propulzioa emateko erabilitako motorrak, baldin eta beren ezaugarriengatik eta beren konfigurazio objektiboagatik, bide eta terreno publikoetatik zirkulatzeko baimendu baldin badaitezke bereziak ez diren ibilgailu gisa, nahiz eta baimen hori benetan jaso ez.

c) Itsasontzi eta aisiarako urontziei propulzioa emateko erabilitako motorrak.

Aurreko a) eta b) letretan aipatutako kasuak aplikatzearen ondorioetarako, «ibilgailuak» eta «ibilgailu bereziak» abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinean definitutakoak izango dira. Ondorio horietarako ere, «bide eta terreno publikoak» martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak, Trafikoari, Motorezko Ibilgailuen Zirkulaziori eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duenak, 2. artikuluan aipatutakoak izango dira.

51. 2 artikuluan eta 5.2.b) artikuluan jasotakoak ez diren gainerako kasuetan, eta apartatu honetan baimendutakoak ez diren guztietan, debekatuta egongo da gasolioa karburante gisa erabiltzea trazatzaile eta markatzaileak erregelamenduz ezarritakoaren arabera gehitu zaizkionean.

⁶⁷ Artikulu hau abenduaren 27ko 2/2005 FORU DEKRETU ARAUAk aldatu du bere 2.hamabi artikulua dela medio. Izendapena: ZERGA ALORREKO PRESAZKO FORU DEKRETU ARAUA, 22/2005 eta 23/2005 legeek lurralde komunean sartutako aldatetara Gipuzkoako zerga araudia egokitzekoa. 2005-12-31n sartu da indarrean eta 2005-11-20etik aurrera ditu ondorioak.



3. Fuelolioak motor finkoetan eta urontzi nahiz trenetako motorretan bakarrik erabili ahal izango dira karburante gisa.

4. Debekatuta dago kerosenoa karburante gisa erabiltzea foru dekretu honen 50.1 artikulua 1. tarifako 1.12 epigrafean eta 2. tarifako 2.10 epigrafean aurreikusten duen tasa murriztua aplikatzeko erregelamenduz ezarritako trazatzaile eta markatzaileak erantsi zaizkionean.

5. artikulua honetan ezarritako debekuak eta mugak bestelako produktuei ere aplikatuko zaizkie, aurreko 1 apartatuan ezarritakoari jarraiki, produktu horiek duten erabilpena zergaren 1. tarifyan jasota dauden olio mineralen antzekoa denean.

55. artikulua. Urraketak eta zigorrak.⁶⁸

1.⁶⁹ Foru dekretu honek 54. artikuluan ezartzen dituen erabilera debeku eta mugak ez betetzea zerga urraketa izango da. Urraketa horiek artikulua honetan xedatutakoaren arabera zigortuko dira, beste zerga urraketa batzuk egiteagatik foru dekretu honen 19. artikuluan jasotakoaren arabera bidezkoak izan litezkeen zigorrak eragotzi gabe.

2. Urraketa horiek egiteagatik erantzukizuna egoztearen ondorioetarako, hauexek hartuko dira autoretzat:

a) Foru dekretu honek 46. artikulua 3 apartatuan aipatutako hidrokarburoak erregai moduan erabiltzen dutenak baimenik gabe.

b) Funtzionamendurako espresuki baimendu gabeko karburanteak deposituetan erabili edo edukitzen dituzten ibilgailu autopropulsatuen, urontzien eta makinerien titularrak, nahiz eta titularrak berak ez gidatu edo eraman, salbu apartatu honen ondorengo letran eta 3 apartatuan jasotako kasuetan bada.

c) Aurreko letran aipatutako ibilgailu eta urontzien errentariak, gidaririk edo patroirik gabeko alokairu kontratua dagoenean, baldin eta deskubritzen bada arau urraketa kontratua egin den egunetik makineria, ibilgailua edo urontzia beren titularrei itzuli zaion egunera bitartean.

3. Lapurketa gertatu denean, ez zaizkie ibilgailu edo urontzien titularrei egotziko salaketa egunetik berreskurapen egunera bitartean sumatutako arau urraketak.

⁶⁸ Ecu edo pezetatan finkaturik dauden zenbatekoak euroara adierazita gelditzen dira otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren 2 Artikuluko Hamabi atalak aldatu ditu. Foru dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)

⁶⁹ Apartatu hau ekainaren 29ko 64/2004 Foru Dekretuaren 2. artikuluko Lau zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrek amaierako bosgarren eta seigarren xedapenetan BEZari eta zerga bereziei dagokienez, hurrenez hurren, sartutako aldaketak Gipuzkoako araudira egokitzen ditu. Foru Dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean eta 2004ko uztailaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2004-07-06).



4.⁷⁰ Urraketa egileari edo egile bakoitzari honako zigorra ezarriko zaio:

a) Urraketan erabilitako ibilgailu, makina edo urontziaren motoreak 10 CV-rainoko potentzia fiskala duenean, 600 euroko diru isun finkoa ezarriko da eta ibilgailu, makina edo urontzia hilabetez epean zigilatu eta geldiaraziko da. Zigilatu edo geldiarazteko aginduak interes orokorrarentzat kalte larria ekar dezakeela uste bada, zigor hori ez da aplikatuko eta, haren ordeez, 1.200 euroko diru isun finkoa ezarriko da.

b) Motoreen potentzia fiskala 10 CV-tik gorakoa eta 25 CV-ra bitartekoa denean, 1.800 euroko diru isun finkoa ezarriko da, eta ibilgailua, makina edo urontzia bi hilabetez zigilatu eta geldiarazteko agindua emango da. Zigilatu edo geldiarazteko aginduak interes orokorrarentzat kalte larria ekar dezakeela uste bada, 3.600 euroko diru isun finkoa ezarriko da.

c) Motoreen potentzia fiskala 25 CV-tik gorakoa eta 50 CV-ra bitartekoa denean, 3.600 euroko diru isun finkoa ezarriko da, eta ibilgailua, makina edo urontzia hiru hilabetez zigilatu eta geldiarazteko agindua emango da. Zigilatu edo geldiarazteko aginduak interes orokorrarentzat kalte larria ekar dezakeela uste bada, 7.200 euroko diru isun finkoa ezarriko da.

d) 50 CV-tik gorako potentzia fiskala duten motoreen kasuan, 6.000 euroko diru isun finkoa ezarriko da, eta ibilgailua, makina edo urontzia lau hilabetez zigilatu eta geldiarazteko agindua emango da. Zigilatu edo geldiarazteko aginduak interes orokorrarentzat kalte larria ekar dezakeela uste bada, 12.000 euroko diru isun finkoa ezarriko da.

e) Aurreko 2 apartatuko a) paragrafoan jasotako kasuetan, zigorra 600 euroko diru isun finkoa izango da.

5.⁷¹ Urraketa mota horiek behin eta berriz egiten direnean, aurreko apartatuan ezarritako zenbatekoak eta epeak bikoiztu egingo dira. Urraketa behin eta berriz egin dela ulertuko da baldin eta, urraketa berria egin aurreko bi urteen barruan, bide administratiboan emandako ebazpen irmo batek subjektu urratzailea zigortu badu aurreko artikuluan jasotako edozein debeku hausteagatik.

6. Ibilgailua edo urontzia zigilatu edo ibilgetzeko agindua ez betetzeak berarekin ekarriko du berriz zigilatzea hasieran erabakitako epearen bikoitzean. Gertakari

⁷⁰ Apartatu hau ekainaren 29ko 64/2004 Foru Dekretuaren 2. artikuluko Lau zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrak amaierako bosgarren eta seigarren xedapenetan BEZari eta zerga bereziei dagokienez, hurrenez hurren, sartutako aldaketak Gipuzkoako araudira egokitzen ditu. Foru Dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean eta 2004ko uztailaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2004-07-06).

⁷¹ Apartatu hau ekainaren 29ko 64/2004 Foru Dekretuaren 2. artikuluko Lau zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrak amaierako bosgarren eta seigarren xedapenetan BEZari eta zerga bereziei dagokienez, hurrenez hurren, sartutako aldaketak Gipuzkoako araudira egokitzen ditu. Foru Dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean eta 2004ko uztailaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2004-07-06).



horiek errepikatzeak berarekin ekarriko du ibilgailua edo urontzia behin-betiko konfiskatzea, geroago enkante irekian saltzeko.

7. Ogasuneko zuzendari nagusiak erabakiko du artikulua honetan jasotako zigorrak jartzea, interesatuei entzute emango zaien espedientearen tramitatu ondoren. Erabakiaren aurka errekurtsioa jar daiteke bide ekonomiko-administratiboan.

VIII. kapitulua: Tabako Laboreen gaineko Zerga

56. artikulua. Esparru objektiboa.

Zerga honen ondorioetarako, ondoko hauek hartuko dira tabako laboretzat:

1. Zigarroak eta zigarrotxoak.
2. Zigarriak.
3. Tabako xehea.
4. Erretzeko gainerako tabakoak.

57. artikulua. Zerga ez ordaintzeko kasuak.

6. artikuluan jasotako kasuez gain, ez da zerga ordaindu beharko Zerga Administrazioaren kontrolpean suntsitzen diren tabako laboreak fabrikatu eta inportatzeagatik, erregelamenduzko jasotako moduan eta baldintzetan, fabriken eta gordailu fiskalen barruan.

58. artikulua. Oinarri ezargarria.

1. Hona hemen oinarriaren osaera:

a) Tasa proportzionalak aplikatzeko: laboreen balioa penintsulako edo Balear Irlako tabako eta tinbre estankotik, zerga guztiak barne. Balio hori jendearentzako salmentaren gehieneko prezioaren arabera kalkulatu da.

b) Berariazko tasak aplikatzeko: unitate kopurua.

2. Aurreko apartatuaren a) letran jasotakoaren ondorioetarako, fabrikatzaile eta inportatzaileek merkaturatu baino lehen jakinaraziko dituzte, erregelamenduz jasotako moduan, beraiek tabako labore desberdinentzat jarritako jendearentzako salmentaren gehieneko prezioak, bai eta prezio horietan sartzen dituzten aldaketak ere.

59. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.



1.⁷² Zerga honen ondorioetarako, ondoko hauek hartuko dira zigarro edo zigarrotxotzat, betiere eraldatu gabe erre badaitezke eta bakarrik horretara zuzenduta badaude beren ezaugarriak eta kontsumitzaileen itxaropen normalak direla eta.

a) Tabako naturaleko kanpo geruza batez osatutako tabako bildurak.

b) Hosto txiki hautsiaz nahastuta dauden eta produktua –filtroa barne (halakorik badago), baina ez ahoa puru ahodunen kasuan– erabat biltzen duen zigarroen ohiko koloreko tabako berreginezko kanpo geruza batez hornituak diren tabako bildurak, unitate bakoitzaren masak 2,3 gramo edo gehiago duenean eta 10 gramo baino gehiago ez duenean eta gutxienez bere perimetroaren luzeraren herenak 34 milimetro edo gehiago duenean.

Labore horiek zigarrotzat edo zigarrotxotzat hartuko dira, beren unitate bakoitzaren pisua 3 gramotik gorakoa den edo ez kontuan hartuta.

2.⁷³ Halaber, zigarro edo zigarrotxotzat hartuko dira tabakoaz bestelako sustantziez partzialki osatutako produktuak ere, aurreko apartatuko gainerako irizpideei erantzuten dietenean.

3.⁷⁴ Zerga honen ondorioetarako, zigarrilotzat hartuko dira jatorrizko itxuran erre daitezkeen eta aurreko apartatuen arabera zigarroak edo zigarrotxoak ez diren tabako bildurak.

Halaber, zigarrilotzat hartuko dira manipulazio ez industrial soil baten bitartez zigarrilo zorroetan sartu edo erretzeko paperaren orriez inguratzen diren tabako bildurak ere.

Aurreko paragrafoan aipatutako tabako bildura bi zigarrilotzat hartuko da, zerga honen aplikazioaren ondorioetarako, 8 zentimetro baino gehiagotik 11 zentimetrora bitarteko luzera duenean, eta hiru zigarrilotzat, berriz, 11 zentimetro baino gehiagotik 14 zentimetrora bitarteko luzera duenean, eta horrela elkarren segidan progresio berari jarraituz.

Luzera neurtzean, ez da kontuan hartuko ez zigarriloaren iragazkia ezta ahoa ere.

⁷² 1. apartatu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAren 3. artikuluko apartatu lehenak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezetan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

⁷³ 2. apartatu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAren 3. artikuluko apartatu lehenak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezetan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

⁷⁴ 3. apartatu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAren 3. artikuluko apartatu lehenak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezetan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.



4.⁷⁵ Zerga honen ondorioetarako, erretzeko tabakotzat edo tabako xehetzat hartuko dira ondoko hauek:

a) Beste modu batez ebaki edo zatitu den nahiz plantxan haritu edo prentsatu den tabakoa, aurreko apartatuetan sartuta ez dagoenean, baldin eta geroko eraldaketa industrialik izan gabe erre badaiteke.

b) Txikizka saltzeko egokitu den tabakoaren hondarrak, zigarro, zigarrotxo edo zigarriloak ez direnak, baldin eta erre badaitezke. Horretarako, tabako hondartzat hartzen dira tabako hostoen hondarrak eta tabakoaren tratamendutik edo tabako laboreen fabrikaziotik eratorritako azpi produktuak.

5.⁷⁶ Zerga honen ondorioetarako, tabako xehea izango da aurreko apartatuan definitzen den erretzeko tabakoa, baldin eta tabako partikulen ehuneko 25ek baino gehiagok, pisuan hartua, 1,5 milimetrotik beherako ebakidura-zabalera badu.

Erretzeko tabakoa tabako xehetzat hartuko da, orobat, haren partikulen ehuneko 25ek baino gehiagok, pisuan hartua, 1,5 milimetroko edo hortik gorako ebakidura-zabalera duenean, baldin eta zigarretak biltzeko saltzen bada.

6. Halaber, erretzeko zigarrilo eta tabakotzat hartuko dira debekatu gabeko trafiko sustantziez oso-osorik edo zati batean osatutako produktuak, tabakoa ez izan arren, aurreko 3 eta 4 apartatuetan jarritako gainerako irizpidei erantzuten dietenean. Dena den, tabakorik ez duten produktuak ez dira halakotzat hartuko oso-osorik sendagarria den funtzioa dutela frogatzen denean.

7. Zerga honen ondorioetarako, fabrikatzailatzat hartuko da tabakoa jendeari saltzeko egokitutako tabako labore bihurtzen duen pertsona.

60. artikulua. Zerga tasak.⁷⁷

Tarifa honen arabera exijituko da zerga:

1. epigrafea.⁷⁸ Zigarroak eta zigarrotxoak: Salbu hurrengo paragrafoan araututakoa aplikagarri zaien kasuetan, zigarroak eta zigarrotxoak 100eko 15,8an zergapetuko dira.

⁷⁵ 4. apartatu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAren 3. artikuluko apartatu lehenak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezetan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

⁷⁶ 5. apartatu hau maiatzaren 8ko 2/2012 FORU DEKRETU ARAUAren 2. artikuluko apartatu lehenak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Tabako Laboreen gaineko Zerga Berezetan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2012/05/14ko GAO) eta 2012ko martxoaren 31tik aurrera ditu ondorioak.

⁷⁷ Artikulu hau maiatzaren 8ko 2/2012 FORU DEKRETU ARAUAren 2. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Tabako Laboreen gaineko Zerga Berezetan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2012/05/14ko GAO) eta 2012ko martxoaren 31tik aurrera ditu ondorioak.



Zigarroak eta zigarrotxoak 32 euroko tasa bakarrean zergapetuko dira 1.000 unitate bakoitzeko, aurreko portzentajezko tasa aplikatuta ateratzen den kuota tasa bakarraren zenbatekoa baino txikiagoa denean.

2. epigrafea.⁷⁹ Zigarretak: Hurrengo paragrafoa aplikaziozkoa den kasuak kenduta, zigarretak tasa hauek aplikatuta zergapetuko dira aldi berean:

⁷⁸ Epigrafe hau uztailaren 27ko 3/2012 FORU DEKRETU-ARAUAREN 3. artikuluko bigarren ordinalak aldatu du. Aipatutako foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen ditu. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jartzen da indarrean (2012/08/13ko GAO) eta aldaketa honek 2012. urteko uztailaren 15etik aurrera ditu ondorioak.

⁷⁹ Epigrafe honen edukiari aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak sartutako aldaketak eragin dio. Bere 24. artikulua honako hau ezartzen du:

«Artículo 24. *Modificación de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales.*

Con efectos desde la entrada en vigor de este Real Decreto-ley se modifica el artículo 60 de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, si bien lo dispuesto en su epígrafe 2 resultará de aplicación desde el 1 de septiembre de 2012, que queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 60. *Tipos impositivos.*

El impuesto se exigirá conforme a la siguiente tarifa:

Epígrafe 1. Cigarros y cigarrillos: excepto en los casos en que resulte aplicable el párrafo siguiente, los cigarros y cigarrillos estarán gravados al tipo del 15,8 por 100.

Los cigarros y cigarrillos estarán gravados al tipo único de 32 euros por cada 1.000 unidades cuando la cuota que resultaría de la aplicación del tipo porcentual anterior sea inferior a la cuantía del tipo único.

Epígrafe 2. Cigarrillos: excepto en los casos en que resulte aplicable el párrafo siguiente, los cigarrillos estarán gravados simultáneamente a los siguientes tipos impositivos:

a) Tipo proporcional: 53,1 por 100.

b) Tipo específico: 19,1 euros por cada 1.000 cigarrillos.

Los cigarrillos estarán gravados al tipo único de 119,1 euros por cada 1.000 cigarrillos cuando la suma de las cuotas que resultarían de la aplicación de los tipos de las letras a) y b) anteriores sea inferior a la cuantía del tipo único.

Epígrafe 3. Picadura para liar: excepto en los casos en que resulte aplicable el párrafo siguiente, la picadura para liar estará gravada simultáneamente a los siguientes tipos impositivos:

a) Tipo proporcional: 41,5 por 100.

b) Tipo específico: 8 euros por kilogramo.

La picadura para liar estará gravada al tipo único de 80 euros por kilogramo cuando la suma de las cuotas que resultarían de la aplicación de los tipos de las letras a) y b) anteriores sea inferior a la cuantía del tipo único.

Epígrafe 4. Las demás labores del tabaco: 28,4 por 100.»



a) Tasa proporzionala: 100eko 55.

b) Berariazko tasa: 19 euro 1.000 zigarretako.

Aurreko a) eta b) letretako tasak aplikatuta ateratzen diren kuoten batura tasa bakarraren zenbatekoa baino txikiagoa denean, zigarretak 116,9 euroko tasa bakarrarekin zergapetuko dira 1.000 zigarretako.

3. epigrafea.⁸⁰ Tabako xehea: Hurrengo paragrafoa aplikagarria den kasuak kenduta, tabako xehea tasa hauek aplikatuta zergapetuko da aldi berean:

a) Tasa proporzionala: 100eko 41,5.

b) Berariazko tasa: 8 euro kilogramoko.

Tabako xehea 80 euroko tasa bakarrarekin zergapetuko dira kilogramoko, aurreko a) eta b) letretako tasak aplikatuta ateratzen diren kuoten batura tasa bakarraren zenbatekoa baino txikiagoa denean.

4. epigrafea. Gainerako tabako laboreak: 100eko 28,4.

61. artikulua. Salbuespenak.

1. Salbuetsita egongo dira, erregelamenduz jarritako baldintzetan, foru dekretu honetako 9. artikuluan jasotako eragiketak ez ezik, helburu hauek dituzten tabako laboreen fabrikazioa eta inportazioa ere:

a) Fabriketan eta gordailu fiskaletan desnaturalizatzea, geroago industrian eta nekazaritzan erabiliak izateko.

b) Analisi zientifikoak edo laboreen kalitateari buruzko analisiak egitea fabriketan eta gordailu fiskaletan.

2. Halaber, tabako laboreen inportazio hauek ere salbuetsita egongo dira:

a) Hirugarren herrialdeetatik hamazazpi urtetik gorako bidaiariek pertsonalki eramandakoak, baldin eta muga hauek gainditzen ez badira:

1. 200 zigarriko, edo

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia-itunak, 33. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Lurralde Historikoei Zerga Bereziak arautu eta aplikatzerakoan, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau berberak aplikatuko dituzte. Beraz, 2012ko irailaren 1etik aurrera 60.artikuluko 2º paragrafoak, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak emandako edukia izango du.

⁸⁰ Epigrafe hau uztailaren 27ko 3/2012 FORU DEKRETU-ARAUAREN 3. artikuluko bigarren ordinalak aldatu du. Aipatutako foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen ditu. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jartzen da indarrean (2012/08/13ko GAO) eta aldaketa honek 2012. urteko uztailaren 15etik aurrera ditu ondorioak



2. 100 zigarrotxo, edo

3. 50 zigarro, edo

4. Gainerako laboreetako 250 gramo.

b) Noizbehinka hirugarren herrialde batetik partikular batek beste partikular bati bidalitako igorpen txikiak, inolako ordainketarik egin gabe eta muga hauen jarrita:

1. 50 zigarrilo, edo

2. 25 zigarrotxo, edo

3. 10 zigarro, edo

4. Gainerako laboreetako 50 gramo.

3.⁸¹ Zergarik gabeko dendek airez zein itsasoz mugitzen diren bidaiariei saltzeko diren tabako laboreak, euren ekipajea daramatzatenean hirugarren herrialde edo lurralde batera joateko.

62. artikulua. Kuotak itzultzea.

Tabako Laboreen gaineko Zergan aurrez ordaindutako kuotak itzultzeko eskubidea aitortuko da, erregelamenduz jarritako baldintzetan, foru dekretu honetako 10. artikuluan aipatutako kasuetan ez ezik, beste hauetan ere:

a) Tabako laboreak Zerga Administrazioaren kontrolpean suntsitzean.

b) Tabako laboreak fabrikara itzultzea erreziklatuak izateko.

63. artikulua. Kudeatzeko arau bereziak.⁸²

Gordailuzain baimenduek, hartzaile erregistratuek, jasotzaile baimenduek edo urrutiko salmenten sistemako hartzaileek, eta horiek bakarrik, jaso ditzakete Erkidegoko beste estatu batzuetatik tabako laboreak, betiere banaketa alorrean indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.»

IX. kapitulua: Elektrizitatearen gaineko Zerga

⁸¹ Apartatu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 2 artikuluko hamabost apartatuak gehitzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.

⁸² Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 2 artikuluko hamasei apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.



64. artikulua. Esparru objetiboa.

Elektrizitatearen gaineko Zergaren esparru objetiboa NC 2716 kodean sailkatutako energia elektrikoa da.

65. artikulua. Definizioak eta xedapen erkideen egokitzapenak fabrikazio zerga berezietan.⁸³

A) Elektrizitatearen gaineko zergaren ondorioetarako, definizio hauek ematen dira:

1. “Gordailu fiskala”. Foru dekretu honen 4. artikuluko 10. apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, honako hau izango da “gordailu fiskala”:

a) Energia elektrikoa garraiatzeko sarea, 220 kilovoltetako (kV) tentsioak edo handiagoak dituzten linea, parke, transformadore eta bestelako elementu elektrikoek osatua, eta, halaber, tentsioa edozein izanda ere, garraio funtzioak edo nazioartean interkonektatzekoak betetzen dituzten bestelako instalazioak.

b) Energia elektrikoa banatzeko instalazioak. Halakotzat hartzen dira energia elektrikoa garraiatzeko sare eta instalazio guztiak, aurreko a) letran sartuta ez daudenak, beren titularren erabilera bakarrari atxikita ez daudenean.

2. “Fabrika”. Foru dekretu honen 4. artikuluko 17. apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira “fabrikatzat”:

a) Energia elektrikoa ekoizteko instalazioak, sektore elektrikoaren araudiari jarraituta erregimen arruntean edo erregimen berezian daudenean.

b) “Energia elektrikoa ekoizteko” beste edozein instalazio.

3. “Energia elektrikoaren ekoizpena”. Energia elektrikoaren fabrikazioa, foru dekretu honen 4. artikuluko 18. apartatuan definituta dagoen moduan. Dena den, ez da energia elektrikoaren ekoizpentzat hartuko energia elektrikoa artikuluko honetako 2. apartatuaren a) letran aipatutako instalazioetatik kanpo lortzea, horretarako erabilitako generadoreen edo generadore multzoen potentzia osoa 100 kilowat (kW) baino handiagoa ez denean.

4. “Subjektu pasiboak”. Foru dekretu honen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera halakotzat hartzen direnez gain, subjektu pasibotzat hartuko dira, zergadunaren ordezkari gisa, artikuluko honen 5. apartatuko a) letran jasotako kasuan energia elektrikoa kostu bidez hornitzen dutenak.

5. “Sortzapena”.

⁸³ Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAREN 2 artikuluko hamazazpi apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentzarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.



a) Foru dekretu honen 7. artikuluan xedatutakoa xedatuta ere, energia elektrikoa fabrikatzat edo gordailu fiskaltzat hartutako instalazioetatik ateratzen denean energia elektrikoa kostu bidez hornitzeko kontratu bat tartean dela, elektrizitatearen gaineko zerga sortuko da fakturazio aldi bakoitzean hornitutako energia elektrikoaren prezioaren zatia exigigarria denean.

b) Foru dekretu honek 7. artikulua 1. apartatua jasotakoa aplikatzeko, energia elektrikoaren horniketak apartatu honen aurreko a) letran aipatutakoez bestelakoak badira, subjektu pasiboek ulertu ahal izango dute gehienez hirurogei egun jarraituetan hornitutako energia elektrikoa aipatutako epea amaitu ondorengo lehen hilabete naturalaren lehen egunean atera dela fabrikatik edo gordailu fiskaletik.

6. “Jasanarazpena”. Foru dekretu honen 14. artikuluan xedatutakoa elektrizitatearen gaineko zergari dagokionez aplikatzeko, berariazko arau hauek hartuko dira kontuan:

a) Energia elektrikoa hornitzeko kontraprestazioa subjektu pasibo bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean, haietako bakoitzak jasanarazi beharko du bakoitzak jaso behar duen kuota egozgarriaren zatia. Bereziki, garraio sare bat, “gordailu fiskaltzat” hartzen dena, erabiltzeagatik kobratu beharreko bidesarien kuota zatia sarearen titularrak jasanaraziko du, zergaren subjektu pasiboa den aldetik, kontzeptu hori aparte fakturatzeko denean.

b) Aurreko a) letran jasotakoa eragotzi gabe, energia elektrikoaren salmentak azaroaren 27ko 54/1997 Legeak, Sektore Elektrikoari buruzkoak, 33. artikuluan aipatutako merkatuko operadorearen bitartekaritzarekin egiten direnean, subjektu pasiboak merkatuko operadore horren bitartez jasanaraziko dizkie sortutako kuotak eskuratzailerik.

B) Elektrizitatearen gaineko zergari dagokionez, ez dira aplikatuko foru dekretu honen I. tituluko I. kapituluaren jasota dauden ondorengo xedapenak:

a) 4. artikuluko 9., 11., 12., 13., 15., 22., 24., 25., 28., 29., 32. eta 33. apartatuak.

b) 7. artikuluko 1. apartatuaren b) letra eta 4., 5., 7. eta 8. apartatuak.

c) 8. artikuluko 2. apartatuko c), d) eta e) letrak, eta 3. eta 4. apartatuak.

d) 9. artikuluko 1. apartatuaren e) eta f) letrak.

e) 10. artikuluko 1. apartatuaren b), c), d) eta e) letrak.

f) 13. artikuluko 2. apartatua.

g) 15. artikuluko 7. apartatua.

h) 16. artikulua.

i) 17. artikulua.



66. artikulua. Oinarri ezargarria.

Zergaren oinarri ezargarria honelaxe kalkulatu da: zergaren sortzapena dela-eta elkarri lotu gabeko pertsonen artean Balio Erantsiaren Zergaren aplikazio lurraldearen barruan ordain truke energia elektrikoa hornitzen denean, Elektrizitatearen gaineko Zergaren kuotak kanpoan utzita, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren oinarri ezargarri gisa kalkulatu zen zenbateko osoa 1,05113 koefizientearekin biderkatuko da, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen xedapenetara egokitzen duenak, 78. eta 79. artikuluetan jasotakoaren arabera.

67. artikulua. Zerga tasa.⁸⁴

1. Artikulu honen 2 apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe, zerga ehuneko 4,864ko tasan exijituko da.

2. Aurreko 1 apartatuan finkatutako zerga tasa aplikatuta ateratzen diren kuotak ezingo dira izan ondoko kopuruak baino txikiagoak:

a) 0,5 euro orduko megavatt bakoitzeko (MWh), elektrizitateak industria erabilera duenean.

b) 1 euro orduko megavatt bakoitzeko (MWh), elektrizitateak bestelako erabilerak dituenetan.

Apartatu honetan ezarritako baldintza betetzen ez denean, a) eta b) letretan adierazitako kopuruak 1 apartatuan ezarritako zerga tasaren ordeztatu aplikatuko dira.

3. Aurreko 2 apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, ulertuko da kontsumorako elektrizitate horniketa hauek direla industria erabilerakoak:

a) Goi-tentsioan egindakoak.

b) Behe-tentsioan egindakoak, helburua labore lurak ureztatzea denean.

68. artikulua. Salbuespenak.

Foru dekretu honetako 9. artikulua 1 apartatuko a), b), c) eta d) letretan aipatutako eragiketak ez ezik, ondorengo eragiketak ere salbuetsita egongo dira:

1. Erregimen berezira bildutako instalazioetan energia elektrikoa fabrikatzea, instalazio horien titularrek kontsumitzeko helburuz.

⁸⁴ Artikulu hau abenduaren 27ko 2/2005 FORU DEKRETU ARAUAK aldatu du bere 2.hamahiru artikulua dela medio. Izendapena: ZERGA ALORREKO PRESAZKO FORU DEKRETU ARAUA, 22/2005 eta 23/2005 legeek lurralde komunetan sartutako aldaketetara Gipuzkoako zerga araudia egokitzeko. 2005-12-31n sartu da indarrean eta 2005-11-20etik aurrera ditu ondorioak



2. 65. artikulua A) letrako 1 eta 2 apartatueta aipatutako energia elektrikoa ekoiztu, garraiatu eta banatzeko instalazioetan autokontsumorako energia elektrikoa fabrikatzea, inportatzea edo erostea Europako Batasunaren barruan.

69. artikulua. Xedapen bereziak Europar Batasunaren barruan energia elektrikoa salerosteari dagokionez.⁸⁵

Foru dekretu honen 5., 7., 8. eta 11. artikuluetan xedatutakoa xedatuta ere, energia elektrikoak Batasunaren gainerako lurralde eremua duenean jatorria edo helmuga, hari dagokion zerga ondoko xedapen berezien arabera ordainaraziko da:

1. Batasunaren gainerako lurralde eremutik datorren energia elektrikoa Europar Batasunaren barruan erostea elektrizitatearen gaineko zergari lotuta egongo da.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, energia elektrikoa Europar Batasunaren barruan erosi dela joko da honako eragiketak egiten direnean:

a) Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legera egokitzen duenak, xedatutakoagatik, energia elektrikoari dagokionez Batasun barruko ondasun erosketatzat hartzen diren eragiketak. Horrelakoetan, zergaren subjektu pasiboak izango dira Balio Erantsiaren Zergaren ondorioetarako halakotzat hartzen direnak.

b) Balio Erantsiaren Zergaren ondorioetarako halakotzat hartzen ez den beste edozein eragiketa, baldin eta bere ondorioa bada Batasuneko beste estatu batetik energia elektrikoa jasotzea elektrizitatearen gaineko zergaren barruko lurralde eremuan. Kasu horretan, eremu horretan energia elektrikoa jasotzen dutenak izango dira subjektu pasiboak.

3. 1. apartatuan aipatutako kasuan, eragiketa horiek kargatzen dituen Balio Erantsiaren Zerga sortzen denean gertatuko da zergaren sortzapena edo, hala badagokio, Batasuneko beste estatu batetik datorren energia elektrikoa barruko lurralde eremuan jasotzen denean. Hori hala izanik ere, energia elektrikoa zuzenean foru dekretu honen 65. artikuluan definitutako fabrika edo gordailu batean jasotzen bada, Batasun barruko erosketak etendura erregimenean egingo da.

4. Batasunaren gainerako lurralde eremura energia elektrikoa etendura erregimenean bidaltzea salbuetsitako eragiketa da. Barruko lurralde eremutik irten dela egiaztatzen denean, eta orduan bakarrik, joko da amaitutzat erregimen hori.

⁸⁵ Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 2 artikuluko hemezortzi apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentzarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.



BIGARREN TITULUA; ZENBAIT GARRAIOBIDEREN GAINEKO ZERGA BEREZIA

70. artikulua. Zergagaia.

1.⁸⁶ Ondokoak egongo dira zergapetuta:

a) Zirkulatzeko motorrez eragindako ibilgailu berri edo erabiliak Espainian lehen aldiz behin betiko matrikulatzea. Hona salbuespenak:

1.-⁸⁷ Kontseiluak 1970eko otsailaren 6an Ibilgailu motordunen eta horien atoiari homologazioari dagokionez estatu kideak hurbiltzeari buruz onartutako 70/156/EEE Zuzentarauaren II. eranskinaren 2007ko ekainaren 30ean indarrean dagoen testuan jasotako N1, N2 eta N3 kategorietan sartutako ibilgailuak, zergari lotu gabeko beste kasu batzuetan sartuta ez daudenean, betiere eta N1 kategoriakoak jarduera ekonomiko bati modu nabarmenean lotuta badaude. Ibilgailua jarduera ekonomiko bati modu nabarmenean lotuta dagoela joko da, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duen abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak 95. artikuluan jasotakoaren arabera subjektu pasiboak eskubidea badu Balio Erantsiaren gaineko Zergatik gutxienez ibilgailuaren erosketa edo inportazioa dela-eta jasan edo ordaindutako kuoten 100eko 50 kentzeko. Ondorio horietarako, ez da garrantzitsua izango foru dekretu horretako arauetatik eratorritako kenkarirako eskubidearen beste edozein murrizpen aplikatzea.

2.- Aurreko 1. zenbakian aipatutako testu berean ezarrita dauden M2 eta M3 kategorietan jasotako ibilgailuak, eta tranbiak.

3.- Objektiboki kontuan hartuta, industria, merkataritza, nekazaritza, klinika edo zientzia aplikaziorako soilik direnak, betiere Zerga Administrazioak serieko modeloak edo ibilgailuak banan-banan behar bezala homologatu baditu. Ondorio horietarako, edozein altueratako erabilera anitzeko furgoi eta furgonetak bakarrik aipatu aplikazioaren bat dutela ulertuko da, baldin eta gidariarentzat eta laguntzailearentzat eserleku bana baino ez badute, eserleku gehigarririk edo horiek jartzeko euskarririk ez badute eta kargarako gordetako espazioak alboko ikusgaitasunik ez badu eta barruko bolumenaren 100eko 50etik gorakoa bada.

⁸⁶ Apartatu hau otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUAREN 5. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen du. Aldaketak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak (2008-02-15eko GAO).

⁸⁷ Zenbaki hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAREN 3. artikuluko bigarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezetan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.



4.-⁸⁸ Bizpahiru gurpileko ziklomotorrak, eta kuadriziklo arinak.

5.- Motozikletak eta kuatrizikloak ez diren hiru gurpileko ibilgailuak, baldin eta bi kasuetan zilindrada ez bada 250 zentrimetro kubikotik gorakoa, barne errekontzako motorrak izanez gero, edo gehieneko potentzia garbia ez bada 16 kW-tik gorakoa, gainerako motorretan.

6.- Mugikortasun mugatua duten pertsonentzako ibilgailuak.

7.- Ibilgailu bereziak, non eta ez diren 75.1 artikularen 4. epigrafean definitutako "quad" moduko ibilgailuak.

8.- Ibilgailu moldagarriak, karrozeriaren sabaiaren zati estrukturaletik lurzoruraino doan altura osoa 1.800 milimetrotik gorakoak dituenak, baldin eta lur orotariko ibilgailuak ez badira eta jarduera ekonomiko bati modu nabarmenean atxikita badaude. Ibilgailua jarduera ekonomiko bati modu nabarmenean atxikita dagoela joko da, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen xedapenetara egokitzen duen abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak jasotakoaren arabera subjektu pasiboak eskubidea badu Balio Erantsiaren gaineko Zergatik gutxienez ibilgailuaren erosketa edo inportazioa dela-eta jasan edo ordaindutako kuoten 100eko 50 kentzeko. Ondorio horietarako, ez da garrantzitsua izango foru dekretu horretako arauetatik eratorritako kenkarirako eskubidearen beste edozein murrizpen aplikatzea.

Dena den, zergari lotuta geratuko da ibilgailu horiek lehen aldiz Espainian behin betiko matrikulatzea, etxebizitza gisa erabiltzeko egokitzen direnean.

9.- Indar armatuek, estatuko, autonomia elkarteetako eta udaletako segurtasun gorputz eta indarrek eta aduana zaindarien defentsa, zaintza eta segurtasun eginkizunetan erabiltzera destinatutako ibilgailuak.

10.- Zauritutakoak edo gaixoak lekualdatzeko egokitutako anbulantziak eta, beren ezaugarriak direla-eta, autobide eta errepideetan zaintza eta sorospen lanak egiteko soilik erabil daitezkeen ibilgailuak.

b) Zortzi metroko luzera baino handiagoa duten aisirako edo kirolerako urontzi eta itsasontzi berri edo erabiliak lehen aldiz behin betiko matrikulatzea ontzien matrikula erregistroan, arrunta izan edo berezia izan, edo, erregistro horretan ezin badira erregistratu, dena delako kirol federazioko erregistroan lehen aldiz matrikulatzea.

Nolanahi, luzera edozein izanik ere, zergari lotuko zaio 75.1 artikularen 4. epigrafean definitutako uretako motoak lehen aldiz matrikulatzea.

⁸⁸ Zenbaki hau urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 4. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primeren gaineko Zerga. (GAO 2009-01-16; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2008ko abenduaren 26tik aurrerako ondorioekin.



Luzera hau hartuko da kontuan: Aisiako urontziak ontzien matrikula erregistroko zazpigarren zerrendan banderapean jarri eta matrikulatzeko jardunari buruzko 2007ko apirilaren 27ko 544/07 Errege Dekretuak halakotzat hartutakoa (2007ko ekainaren 30ean indarrean dagoen bertsioa).

Aisirako edo uretako kirolerako urontzi eta ontzitzat hartuko dira:

1.- Ontzien matrikula erregistro arrunt edo bereziko sei edo zazpigarren zerrendan izena ematen zaien urontziak edo, hala badagokio, dena delako kirol federazioko erregistroan izena ematen zaienak.

2.- Aurreko 1. paragrafoan aipatutakoak ez diren urontziak, baldin eta aisirako nabigazio pribaturako erabiltzen badira, foru dekretu honek 4. artikulua 13. apartatuan definitutakoaren arabera.

c) Motor mekanikoz hornitutako hegazkin, hegazkin txiki eta gainerako aireontzi berri edo erabiliak lehen aldiz behin betiko matrikulatzea aireontzien erregistroan. Hona salbuespenak:

1. Beren ezaugarri teknikoak direla-eta nekazaritza edo basoko lanetara edo gaixo eta zaurituak eramateko erabil daitezkeen aireontziak.

2. Abiazio Zibileko Zuzendaritza Orokorrak emandako ziurtagiriaren arabera, aireratzerakoan 1.550 kilogramoko gehieneko pisua gainditzen ez duten aireontziak.

d) Zergari lotuta egongo da aurreko apartatueta aipatutako garraiobideak Espainian zirkulatzea edo erabiltzea, foru dekretu honek xedapen gehigarri bakarrean aurreikusitakoaren arabera Gipuzkoako lurralde historikoan behin betiko matrikulatzea eskatu ez denean, Espainian erabiltzen hasi ondorengo 30 eguneko epearen barruan. Epe hori 60 egunera zabalduko da, garraiobideak beren titularren ohiko bizilekua lurralde espainiarrera aldatzearen ondorioz Espainian erabiltzen direnean, baldin eta foru dekretu honek 71. artikulua 1.) artikuluan jasotako salbuespena aplikaziozkoa bada.

Ondorio horietarako, egun hauetan garraiobidea Espainian zirkulatzen edo erabiltzen hasi dela ulertuko da:

1.- Aldi baterako inportazioko edo matrikula turistikoko erregimenetara bilduta egon diren garraiobideak badira, erregimen horiek utzi edo amaitu diren egunean.

2.- Gainerako kasuetan, garraiobidea Espainian sartu den egunean. Egun hori modu sinisgarrian agertzen ez bada, erabilpenaren hasierako egun moduan bi data hauek baino beranduagokoa dena ulertuko da:

— Garraiobidearen erorsketa eguna.

— Interesatua Espainian egoiliarra edo bertan kokatutako establezimendu baten titularra den lehen eguna.



2.⁸⁹ a) Aurreko 1.a) apartatuan eta 75. artikuluaen 1. apartatuan aipatutako ibilgailuak abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrari buruzkoak. II. eranskinaren 2007ko ekainaren 30ean indarrean dagoen bertsioan jasota dauden definizio eta kategorien arabera, mugatu eta zehaztuko dira, goiko xedapenetan espresuki jaso gabe dagoenari dagokionez.

b) Foru dekretu honen ondorioetarako, garraiobide berritzat hartzen dira 1992ko abenduaren 29ko 102/92 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen xedapenetara egokitzen duenak, jasotakoaren arabera halakotzat hartzen diren garraiobideak, nahiz eta lehen aldiz Kanarietan matrikulatuak izan.

c)⁹⁰ Aurreko 1.a) apartatuaren 9. eta 10. zenbakietan aipatutako zergapetu gabeko kasuak aplikatuko badira, Zerga Administrazioak aurretik onartu behar ditu arauz jasotakoaren moduan. Zerga-gaia Espainian garraiobideak zirkulatzea edo erabiltzea denean, zergari lotu gabeko kasu horiek aplikatzeko baldintza aurretiazko aitortza horren eskaera 70. artikuluaen 1. apartatuko d) letran jarritako epeen barruan aurkeztea ere izango da.

Zergapetu gabeko gainerako kasuetan, aldiz, aitorpen bat aurkeztu behar zaio Zerga Administrazioari, Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak erabakitako tokian, moduan, epean eta inprimaketan. Paragrafo honetan jasotakotik salbuetsita daude Zerga Administrazioak homologatutako ibilgailuak.

3.⁹¹ Baldin eta foru dekretu honek zergapetu gabe edo salbuetsita uzten dituen kasuen zirkunstantziak edo beharkizunak aldatzen badira zerga-gaia gauzatzen denetik oraindik lau urte igaro ez direnean, aldaketa gertatzen den momentuagatik autolikidatu eta ordaindu beharko da zerga berezia, salbu eta aldaketa hori egin ondoren foru dekretu honetan jasotakoaren arabera zergapetu behar ez den edo salbuetsita dagoen kasuren bat aplikagarria bada. Garraiobidearen salmentak matrikulazio alorrean eskumena duen organoaren aurrean ondorioak izan ditzan, ondoko hau egin beharko da kasuen arabera: Zerga ordaindu dela aipatu organoari frogatzea, zergapetu gabe edo salbuetsita

⁸⁹ Apartatu hau otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUAren 5. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorreari buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen du. Aldaketak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak (2008-02-15eko GAO).

⁹⁰ c) letra hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAren 3. artikuluko hirugarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezetan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

⁹¹ 3 apartatu hau urtarrilaren 30eko 2/2001 Foru Dekretuaren 3. artikuluko bigarren apartatuak aldatzen du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen du. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorreari buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. 2001eko otsailaren 9an sartu zen indarrean, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriorekin.



egotearen aitortpena hari aurkeztea, organo kudeatzaileak behar bezala diligentziatua beti, edo, bestela, Zerga Administrazioak aldeaz aurretik jotzea aplikagarritzat ez zergapetzeko edo salbuesteko kasua.⁹²

Garraibideen kasuan, apartatu honetako aurreko paragrafoan aipatzen den epea bi urtera murriztuko da haien lehen behin betiko matrikulazioa salbuetsita egon denean foru dekretu honek 71.1 artikularen b) eta c) letretan xedatutakoaren indarrez.

Era berean, apartatu honetako aurreko paragrafoetan aipatutako autolikidazioa edo ordainketa ez dira exijituko, baldin eta zirkunstantzien aldaketa garraibidea zergaren aplikazio lurraldetik kanpo behin betiko bidaltzea bada. Bidalketa hori frogatzeko, matrikulazio alorrean eskumena duen organo eskudunak bidezko erregistroan baja eman izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Matrikulazio alorrean eskumena duen organoak zirkulazio edo erabilpen baimena ematea zergaren aplikazio lurraldetik kanpo behin betiko izaeraz bidalia izan den eta lurralde horretara berriro bueltatu den garraibide batentzat, lehen behin betiko matrikulaziotzat hartuko da zerga honen ondorioetarako, foru dekretu honek aurreko paragrafoan edo 71. artikularen 3 apartatuan xedatutakora bilduta dagoenean.

4.⁹³ Zergari lotu gabe geratuko da foru dekretu honek 70. artikularen 1. apartatuko d) letran jasotakoari jarraituz zergari lotutako zirkulazioa edo erabilpena izan duten garraibideen lehendabiziko behin betiko matrikulazioa, betiere epeen barruan:

a) Matrikulazio hori zergapetuta egotearen ondorioz zerga autolikidatu eta ordaindu bada, edo.

b) Matrikulazio hori zergapetuta egotearen ondorioz Zerga Administrazioak zerga likidatu badu eta dena delako zenbatekoa ordaindu bada, edo.

c) Zerga Administrazioak aurretik aitortu badu zergapetu gabeko edo salbuetsitako kasu baten aplikazioa bidezkoa dela, horrela aurreikusitako kasuetan, edo,

d) Zerga Administrazioari zergaren salbuespenari buruzko aitortpen bat aurkeztu bazaio, horrela aurreikusitako kasuetan.

⁹² Parragrafo hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAren 3. artikuluko laugarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezetan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

⁹³ Apartatu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAren 3. artikuluko bosgarren apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezetan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.



71. artikulua. Salbuespenak, itzulketak eta murrizpenak.⁹⁴

1.⁹⁵ Lehendabiziko behin betiko matrikulazioa edo, hala badagokio, Espainian egindako zirkulazioa edo erabilpena zergatik salbuetsiko da honako garraiobideak direnean:

a) Indarrean dagoen legeriak taxi, autotaxi edo autoturismotzat jotzen dituen ibilgailuak.

b) Gidarien kontraprestazio bidezko irakaskuntza jardueran aritzeko asmoz benetan eta soilik matrikulatutako ibilgailuak.

c) Alokairu jarduerari benetan eta soilik lotzeko asmoz matrikulatutako ibilgailuak.

Ondorio horietarako, ez da ulertuko ibilgailuak alokatzeko jarduerarik egiten denik honako bi kasuok gertatzen direnean: Ibilgailuak abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen xedapenetara egokitzeak, 79. artikuluan jasotako moduan elkarri lotutako pertsona lagatzen zaizkienean, edo, bestela, lagapena pertsona edo entitate berberari egiten zaionean hiru hilabetetik gorako epean, hamabi hilabete jarraituen barruan.

Ondorio horietarako, errentamendu- salmentako kontratuak edo horren antzekoak, eta erosteko aukera ematen duten errentamendu kontratuak ez dira ibilgailu alokairutzat hartuko.

d) Minusbaliatuen izenean matrikulatzen diren eta horiek soilik erabiltzekoak diren ibilgailuak, betiere honako baldintza hauek betetzen badira.

1. Gutxienez lau urte igarotzea beste ibilgailu bat antzeko baldintzetan matrikulatu denetik. Dena den, ibilgailuen erabateko ezbeharra gertatzen denean, baldintza hori ez da eskatuko behar bezala egiaztatzen bada.

2. Matrikulatu ondorengo lau urteko epean ezin dira inter vivos egintzen bitartez eskualdatu.

⁹⁴ 71. artikulua hau urtarrilaren 30eko 2/2001 Foru Dekretuaren 3. artikuluko hirugarren apartatuak aldatzen du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen du. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorreari buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. 2001eko otsailaren 9an sartu zen indarrean, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioarekin.

⁹⁵ Apartatu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAren 3. artikuluko seigarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezietan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.



e) Matrikulazio berezia duten ibilgailuak, matrikula diplomatikoaren erregimenarekin, arauz finkatuko diren muga eta baldintzen barruan, titularrak hauek direnean:

1. Espainian egoitza iraunkorra duten eta bertan kreditaturik dauden misio diplomatikoak, eta agente diplomatikoak.
2. Estatu espainiarrarekin egoitza akordio bat izenpetu duten nazioarteko erakundeak eta erakunde horietakoak izanik, estatutu diplomatikoa duten funtzionarioak.
3. Karrerako bulego kontsularrak eta atzerriko herritartasuna duten karrerako funtzionario kontsularrak.
4. Misio diplomatikoetako nahiz nazioarteko erakundeetako pertsonal tekniko eta administratiboa, eta, era berean, karrerako bulego kontsularretako enplegatuak, nazionalitatez espainiarrak ez direnean eta Espainian egoitza iraunkorrik ez dutenean.

Aurreko 2. eta 4. zenbakietan ezarritakoa hala izanik ere, erakunde horiek sortzeko izenpeturiko nazioarteko hitzarmenetan edo haien egoitza akordioetan bestelako muga edo baldintzak ezartzen badira, erakunde horiei, estatutu diplomatikoa duten bertako funtzionarioei eta bertan lan egiten duen pertsonal tekniko-administratiboari muga eta baldintza horiek aplikatuko zaizkie.

f) Hamabost metroko luzera gainditzen ez duten aisiarako eta kirolerako urontzi eta itsasontziak, alokairu jardueri benetan eta soilik lotzeko xedez matrikulatu direnean.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da ibilgailuen alokairurako ezarritako mugak eta beharkizunak betetzea. Nolanahi ere, alokatze jarduerarik ez dagoela ulertuko da titularrak urontzia errentan lagatzen duenean, betiere titular horrek edo berari lotutako pertsonak edozein tituluz jasotzen badu aipatu urontzia edo lagapen hartzailearen edo horri lotutako pertsona baten jabetzako beste edozein osorik edo zati batean erabiltzeko eskubidea. Paragrafo hau aplikatzeko, elkarri lotutako pertsonatzat hartzen dira 1992ko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legera egokitzen duenak, 79. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten pertsonak.

g) Beren konfigurazioa dela-eta, arraun edo pala bidez soilik mugiaraz daitezkeen urontziak, bai eta kategoria olinpikoko belaontziak ere.

h) Estatuak, autonomia erkidegoek, lurralde historikoetako erakunde publikoek, udal korporazioek edo enpresa nahiz organismo publikoek matrikulatutako aireontziak.

i) Abiazio Zibileko Zuzendaritza Orokorrak ofizialki aitortutako eskolen titulartasunekoak diren aireontziak, pilotuen irakaskuntza eta prestakuntza



aeronautikora edo horien birziklatze profesionalera benetan eta soilik erabiltzekoak direnean.

j) Aire nabigazioko enpresen titulartasuneko aireontziak, betiere horien erabilpena ezin bada abiazio pribatutzat hartu foru dekretu honek 4. artikulua 4. zenbakian jasotakoari jarraituz.

Aire nabigazioko enpresei errentan eman zaizkien eta haien izenean matrikulatuta dauden aireontzien kasuan, salbuespena ez da aplikatuko errentatzailea edo horri lotutako pertsonak, denak batera, aireontziaren amaierako erabiltzaile gertatzen direnean aireontziak segidako hamabi hilabetetan egindako hegaldi orduen 100eko 5etik gorako portzentajea. Paragrafo hau aplikatzeko, elkarri lotutako pertsonatzat hartzen dira 1992ko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoen zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duenak, 79. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten pertsonak.

k) Aire nabigazioko enpresei soilik errentan lagatzeko matrikulatutako aireontziak, betiere horien erabilpena ezin bada abiazio pribatutzat hartu foru dekretu honek 4. artikulua 4. zenbakian jasotakoari jarraituz.

Salbuespena ez da aplikatuko aireontziaren matrikula bere izenean daraman pertsona edo horri lotutako pertsonak, denak batera, aireontziaren amaierako erabiltzaile gertatzen direnean aireontziak segidako hamabi hilabetetan egindako hegaldi orduen 100eko 5etik gorako portzentajea. Paragrafo hau aplikatzeko, elkarri lotutako pertsonatzat hartzen dira 1992ko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoen zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duenak, 79. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten pertsonak.

l) Titularrak ohiko egoitza atzeritik Gipuzkoako lurralde historikora aldatzeagatik matrikulatzen diren garraiobideak. Kuotak salbuetsiko badira, baldintza hauek bete behar dira:

1. Aldaketa egin aurreko hamabi hilabete jarraituetan gutxienez eduki behar izan dute interesatuek ohiko egoitza lurralde espainiarretik kanpo.

2. Garraiobideek jatorrizko edo abiapuntuko herrialdean tributazio baldintza arruntetan eskuratuak edo inportatuak behar dute izan, eta herrialde hartatik irteteagatik ez dute kuoten salbuespenik edo itzulketarik eduki behar izan.

Baldintza hau bete dela ulertuko da garraiobideak erregimen diplomatikoan edo kontsularrean jasotako salbuespenen babesean nahiz nazioartean onartuta dauden eta jatorrizko estatuan egoitza duten erakundeetako kideen alde erosi edo inportatu direnean, erakunde horiek sortzeko izenpeturiko nazioarteko hitzarmenetan edo egoitza akordioetan finkatutako muga eta baldintzekin.

3. Interesatuak gutxienez lehengo egoitza utzi aurreko sei hilabeteetan erabili behar izan ditu garraiobideak egoitza horretan.



4. Foru dekretu honek 70.1.d) artikuluan jasotako epean eskatu beharko da matrikulazioa.

5. Salbuespena izan duten garraibide matrikulatuak ezingo dira eskualdatu matrikulazioaren ondorengo hamabi hilabeteetan. Baldintza hau ez betetzeak zerga ordainaraztea ekarriko du berekin ez betetzea gertatu den egunari dagokionez.

2.⁹⁶ Aurreko apartatuko a), b), c), d), f), i) eta k) letretan aipatutako salbuespenak aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da Zerga Administrazioak horiek aurrez aitortzea erregelamendu bidez zehazten den eran. Bereziki, d) letran jasotzen den salbuespenaren kasuan, derrigorrezkoa izango da Foru Aldundiaren organo eskudunak, autonomia erkidegoetako organo eskudunak, Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalak edo entitate kudeatzaile eskudunek minusbaliotasuna edo elbarritasuna aurrez ziurtatzea.

Aurreko apartatuko e) letran aipatutako salbuespena aplikatzeko, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioak haren bidez kototasuna ziurtatu beharko du alde aurretik.

Gainerako salbuespen kasuetan, Zerga Administrazioari aitorten bat aurkeztu beharko zaio Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitako tokian, eran, epean eta inprimakian.

Zerga-gaia Espainian garraibideak zirkulatzea edo erabiltzea denean, aurreko apartatuan jasotako salbuespenak aplikatuko badira, aurretiazko aitortzaren eskaera edo dena delako aitortenaren aurkezpena foru dekretu honek 70. artikuluen 1. apartatuko d) letran jarritako epeen barruan egin behar dira.

3.⁹⁷ Profesionalki garraibideak birsaltzen jarduten diren enpresariak eskubidea izango dute bidalketaren unean garraibidearen balioari dagokion kuota ordainduaren zatia itzultzeko, baldin eta zerga-gaia gauzatzen denetik lau urte igaro aurretik garraibidea zergaren aplikazio lurraldetik kanpo behin betiko izaeraz bidali dela egiaztatzen badute. Garraibidea zergaren aplikazio lurraldetik kanpo behin betiko izaeraz bidali dela egiaztatzeko, matrikulazio alorreko organo eskudunak erregistroan baja eman izanaren ziurtagiria aurkeztuko da.

Aurreko paragrafoan aipatutako itzulketan erregela hauek erabiliko dira:

a) Zergaren aplikazio lurraldetik kanporako bidalketa salmenta irmo baten ondorioz egin beharko da.

⁹⁶ Apartatu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAREN 3. artikuluko seigarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezietan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

⁹⁷ Apartatu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAREN 3. artikuluko seigarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezietan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.



b) Itzulketaren oinarria garraiobideak bidalketaren unean duen merkatuko balioa izango da, eta ezin izango du gaintitu foru dekretu honetako 74. artikularen b) apartatuan aipatutako balorazio tauletatik ateratzen den balioa.

c) Itzulketaren tasa bere garaian zerga likidatzeko aplikatutakoa izango da.

d) Itzulketaren zenbatekoa inoiz ez da ordaindutako kuota baino handiagoa izango.

e) Birsaltzen duen enpresariak Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitako tokian, moduan, epeetan eta inprimakietan eskatuko du itzulketak.

4. Zergaren oinarri ezargarriak, foru dekretu honen 74. artikularen arabera kalkulatuak, 100eko 50eko murrizpena izango du ibilgailu automobilen edukiera homologatua bost plazatik beherakoa eta bederatzitik gorakoa ez denean, gidariarena barne bi kasuetan, eta indarrean dagoen legerian ugaritzat jotzen diren familiek bakarrik erabiltzeko direnean. Honako baldintzak bete behar dira:

a) Ibilgailuaren lehen behin betiko matrikulazioa familiako aitaren edo amaren izenean edo, bestela, bien izenean egingo da.

b) Gutxienez lau urte igaro behar dira aurreko a) letran aipaturiko pertsonetako baten izenean eta murrizpen honen babesean beste ibilgailu bat matrikulatu denetik. Dena den, baldintza hau ez da eskatuko ibilgailuen erabateko ezbeharra gertatu denean eta ezbehar hori behar bezala frogatzen denean.

c) Murrizpen honen babesean matrikulatutako ibilgailua ezingo da gero «inter vivos» eskualdatu matrikulazio egunaren ondorengo lau urteetan.

d) Murrizpen hau aplikatu ahal izateko ezinbestekoa izango da Zerga Administrazioak murrizpena aurrez errekonozitzea erregelamenduz finkatuko den eran. Nolanahi ere, Zerga Administrazioari nahitaez aurkeztu beharko zaio organo eskudunak luzatutako familia ugariaren ziurtagiria.

5.⁹⁸ Zergaren oinarri ezargarria, 74. artikuluan jasotakoaren arabera zehaztua, % 30 murriztuko da, ibilgailu hauei dagokienez:

a) «Autokarabana» moduko ibilgailuak, hain zuzen 1998ko abenduaren 23ko 2822/98 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrari buruzkoak, 2007ko ekainaren 30ean II. eranskinerako indarrean duen bertsioaren arabera definituak.

⁹⁸ Apartatu hau urtarilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 4. artikuluko hiru apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primeren gaineko Zerga. (GAO 2009-01-16; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2008ko abenduaren 26tik aurrerako ondorioekin.



b) Etxebizitza gisa erabiltzeko egokitutako ibilgailuak, hain zuzen 70. artikulua 1.a) apartatuko 1. zenbakiaren azken paragrafoan eta 8. zenbakiaren azken paragrafoan aipatutakoak.

72. artikulua. Sujetu pasiboak.

Hauexek dira zergaren sujetu pasiboak:

a) Garraiobidearen lehendabiziko behin-betiko matrikulazioa beren izenean egiten duten pertsona edo entitateak.

b) Foru dekretu honetako 70. artikulua 1 apartatuaren d) letran jasotako kasuetan, foru dekretu honetako xedapen gehigarri bakarrean aipatutako pertsonak edo entitateak.

c) Foru dekretu honetako 70. artikulua 3 apartatuan jasotako kasuetan, garraiobidea beren izenean matrikulatua duten pertsonak edo entitateak.

73. artikulua. Zerga sortzea.

1. Sujetu pasiboak garraiobidea lehendabiziko aldiz behin-betiko matrikulatzeko eskaera aurkeztzen duen unean sortuko da zerga.

2. Foru dekretu honetako 70. artikulua 1 apartatuaren d) letran jasotako kasuetan, letra horretan aipatutako epea amaitzen den egunaren ondorengo egunean sortuko da zerga.

3. Foru dekretu honetako 70. artikulua 3 apartatuan jasotako kasuetan, ez zergapetzea edo zergaz salbuestea motibatu zuten zirkunstantzia edo beharkizunak aldatu diren unean sortuko da zerga.

74. artikulua. Zerga oinarria.

Honelaxe osatuko da zerga oinarria:

a) Garraiobide berrietan, garraiobidea erosterakoan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren edo zerga baliokideren baten ondorioetarako zerga oinarri gisa kalkulaturako zenbatekoa edo, bien faltan, erosleak ordaindutako kontraprestazioaren zenbateko osoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuko 78. artikulua arabera zehaztuta. Dena den, azken kasu horretan, garraiobidearen saltzaileak zuzenean ordaindu edo jasandako Kanarietako Zeharkako Zerga Orokorren kuotak ez dira oinarri ezargarriaren zatia izango.

b)⁹⁹ Garraiobide erabilietan, zerga sortu den egunean duten merkatu balioa.

⁹⁹ Letra hau urtarilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 4. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primen gaineko Zerga. (GAO 2009-01-16; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAOn).



Aurretik atzerrian matrikulatuta egon diren eta Espainian ibilgailu erabili gisa lehen aldiz behin betiko matrikulatzen diren garraiobideen kasuan, merkatu baliotik gutxitu behar da, horren barruan sartuta dagoen neurrian, kengarriak izan gabe exijigarriak izan diren zeharkako zergen kuoten hondar balioa, garraiobide berri moduan Espainian lehen aldiz behin betiko matrikulatuz gero. Horretarako, aipatu hondarrezko zenbatekoa zehazteko, portzentaje hau aplikatu behar da zerga sortzean garraiobide erabiliak duen merkatu balioaren gainean: Zerga horien kuotek aipatu garraiobide berriaren salmenta prezioan, zergak barne, agertuko zuten portzentaje bera.

Merkatu balioa zehazteko, Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak onartu dituen eta zerga sortzean indarrean dauden batez besteko salmenta prezioak erabil ditzakete subjektu pasiboek. Aurreko paragrafoan aipatutako gutxipena aplikaziozkoa denean, Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak ezarriko du zer prozedura erabili behar den zeharkako zergetan jasandako kuoten hondarrezko zenbatekoari dagokion batez besteko prezio horien zatia zehazteko.

Subjektu pasiboek aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera zehaztutako merkatu balio bat aitortzen dutenean, Zerga Administrazioak balio hori ezin izango du egiaztatu 2005eko martxoaren 8ko 2/05 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 56. artikuluan jasotako beste bideak erabilita.

75. artikulua. Zerga tasa.¹⁰⁰

1.¹⁰¹ Aplikaziozko zerga tasak zehazteko, ondorengo epigrafeak ezarri dira:

1. epigrafea.

a) CO₂-ren isurpen ofizialak 120 g/km-tik gorakoak ez dituzten ibilgailuak, salbu "quad" motako ibilgailuak eta 6., 7., 8. eta 9. epigrafeetan sartutakoak.

b) Barne errekontzako ez den motor bakarreko ibilgailuak, "quad" motako ibilgailuak izan ezik.

2. epigrafea.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2008ko abenduaren 26tik aurrerako ondorioekin.

¹⁰⁰ Artikulu hau otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUaren 5. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoaren finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen du. Aldaketak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2008-02-15eko GAO).

¹⁰¹ Apartatu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUaren 2 artikuluko bBigarren apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2009ko urriaren 28tik aurrera ditun.



CO₂-ren isurpen ofizialak 120 g/km-tik gorakoak eta 160 g/km-tik beherakoak dituzten ibilgailuak, salbu "quad" motako ibilgailuak eta 9. epigrafean sartutakoak.

3. epigrafea.

CO₂-ren isurpen ofizialak 160 g/km-tik gorakoak eta 200 g/km-tik beherakoak dituzten ibilgailuak, salbu "quad" motako ibilgailuak eta 9. epigrafean sartutakoak.

4. epigrafea.

a) CO₂-ren isurpen ofizialak 200 g/km-koak edo hortik gorakoak dituzten ibilgailuak, salbu "quad" motako ibilgailuak eta 9. epigrafean sartutakoak.

b) CO₂-ren isurpenak neurtzea beharrezkoa duten ibilgailuak, isurpen horiek egiaztaturik ez daudenean.

c) Etxebizitza gisa egokituta dauden N1 eta N2 kategorietako ibilgailuak.

d) "Quad" motako ibilgailuak. "Quad" motako ibilgailutzat hartzen da lau gurpil edo gehiagoko ibilgailua, eskuleku bidezko direkzio sistemaz hornitua, gidaria zangalatrau eserita daramana eta errepidetik kanpo ibiltzeko trakzio sistema duena.

e) Uretako motoak. "Uretako mototzat" hartzen da motor batek mugiarazitako urontzia, pertsona batek edo gehiagok, zutik edo belauniko, krosko baten mugen gainean, eta ez barruan, gidatzeko proiektatua.

5. epigrafea.

a) 1., 2., 3., 4., 6., 7., 8. edo 9. epigrafeetan jaso ez diren ibilgailuak.

b) Aisiarako edo ur kiroleko ontzi eta itsasontziak, ur motoak izan ezik.

c) Hegazkinak, hegazkin txikiak eta gainerako aireontziak.

6. epigrafea.

9. epigrafeko c) letran jaso gabeko motozikletak, CO₂-ren isurpen ofizialak 100 g/km-tik gorakoak ez direnean.

7. epigrafea.

9. epigrafeko c) letran jaso gabeko motozikletak, CO₂-ren isurpen ofizialak 100 g/km-tik gorakoak eta 120 g/km-tik beherakoak direnean.

8. epigrafea.

9. epigrafeko c) letran jaso gabeko motozikletak, CO₂-ren isurpen ofizialak 120 g/km-tik gorakoak eta 140 g/km-tik beherakoak direnean.

9. epigrafea.



a) Epigrafe honetako c) letran jaso gabeko motozikletak, CO₂-ren isurpen ofizialak 140 g/km-koak edo handiagoak direnean.

b) Epigrafe honetako c) letran jaso gabeko motozikletak, CO₂-ren isurpen ofiziala egiaztaturik ez dutenean.

c) 74 Kw-ko edo hortik gorako EEE potentzia (100 zp) duten motozikletak, gehieneko potentzia garbiaren eta martxako masaren arteko erlazioa, kw/kg-tan adierazia, 0,66 edo handiagoa dutenean, CO₂-ren isurpen ofiziala zeinahi dela ere.

2.¹⁰² Zerga tasa hauek aplikatuko dira:

1. eta 6. epigrafeak. 100eko 0.

2. eta 7. epigrafeak. 100eko 4,75.

3. eta 8. epigrafeak. 100eko 9,75.

4. eta 9. epigrafeak. 100eko 14,75.

5. epigrafea. 100eko 12.

3. Zerga tasa aplikagarria sortzapenaren unean indarrean dagoena izango da.

4.¹⁰³ Zerga Ceuta edo Melillan sortu denean eta garraiobidea Penintsulara eta Balear Uharteetara edo Kanarietara behin betiko inportatzen denean, zergaren likidazioa aurreko 2. apartatuko a) edo b) paragrafoan, dagokionaren arabera, adierazitako tasak koefiziente hauekin biderkatuz ateratzen diren tasetan egingo da.

a) Zerga-gaia gauzatu ondoko lehen urtean behin betiko inportatuz gero: 1,00.

b) Zerga-gaia gauzatu ondoko bigarren urtean behin betiko inportatuz gero: 0,67.

c) Zerga-gaia gauzatu ondoko hiru edo laugarren urtean behin betiko inportatuz gero: 0,42.

Apartatu honetan jasotako kasuetan, garraiobidearen aduanako balioa izango da oinarri ezargarria.

¹⁰² Apartatu hau urtarilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 4. artikularen bost apartauak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primen gaineko Zerga. (GAO 2009-01-16; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2008ko abenduaren 26tik aurrerako ondorioekin.

¹⁰³ Apartatu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAren 3. artikuluko zazpigarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezetan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.



5.¹⁰⁴ Kanarietan zerga sortu duen garraiobidea zerga-gaia gauzatu ondoko lehen urtearen barruan Penintsulan eta Balear Uharteetan behin betiko sartzen denean, titularrak kontuan hartu beharko du zein den Kanarietan aplikagarria den zerga tasaren eta Gipuzkoako lurralde historikoan aplikatu behar denaren artean dagoen diferentzia, eta honi dagozkion kuotak autolikidatu eta ordaindu beharko ditu, garraiobidea sartzen den unean duen batez besteko balioa oinarri ezargarri bezala erabiliz.

Apartatu honetako aurreko paragrafoan esandakoa ez da aplikagarria izango sartzen den garraiobideak dagoeneko zerga bat ezarria badauka Kanarietan eta bertan aplikatutako oinarri ezargarria Gipuzkoako lurralde historikoak garraiobide horretarako indarrean duena baino txikiagoa ez bada.

6. Artikulu honetako 4 eta 5 apartatuen indarrez bidezkoak diren likidazio eta autolikidazioak ez dira exijituko, garraiobidearen titularrak behin betiko inportazioa edo behin betiko sarrera egiten den lurraldera egoitza lekualdatzen duenean.

Apartatu honetan xedatutakoa aplikatzea ondorengo beharkizun hauek betetzearen baldintzapean geratuko da:

a) Interesatuak ohiko egoitza Ceuta eta Melillan edo Kanarietan eduki behar izan dute, gutxienez lekualdaketa aurreko hamabi hilabete jarraietan.

b) Garraiobideak Ceuta eta Melillan edo Kanarietan dauden tributazio baldintza arruntetan erosiak behar dute izan, eta lurralde horietatik irteteagatik ez dute salbuespenik edo itzulketarik eduki behar izan.

c) Interesatuak lehengo egoitzan erabiliak izan behar dute garraiobideak, gutxienez egoitza hura utzi aurreko sei hilabeteetan.

d) Apartatu honetan aipatutako garraiobideak ezingo dira saldu inportazio edo sarreraren ondorengo hamabi hilabete epearen barruan. Beharkizun hau ez betetzeak berarekin ekarriko du likidazioa edo autolikidazioa egin beharra, ez betetzea gertatu den egunari begira.

7. CO₂-ren isuri ofizialak frogatzeko, hala badagokio, ibilgailuaren fabrikatzaile edo inportatzaileak ziurtagiri bat egingo du berariaz, non eta isuri horiek ez dauden jasota ikuskapen teknikoko txartelean edo dena delako ibilgailurako banaka luzatutako beste edozein agiri ofizialetan.

76. artikulua. Zerga likidatzea eta ordaintzea.¹⁰⁵

¹⁰⁴ Apartatu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAren 3. artikuluko zazpigarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezetan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

¹⁰⁵ Artikulu hau otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUAren 5. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu



1. Subjektu pasiboak autolikidatu eta ordaindu beharko du zerga, Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak agindutako toki, modu, epe eta inprimaketan.

2. Ibilgailu erabiliak direnean, Zerga Administrazioak oniritzia eman behar dio autolikidazioari, Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak finkatzen duen moduan, organo eskudunak behin betiko matrikulatu aurretik.

Autolikidaziotik ateratzen den kuota txikiagoa denean Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak onartutako salmentarako batez besteko prezioak aplikatuz aterako litzatekeen kuota baino, paragrafo honetan aipatzen den bisatua behin oinarri ezargarri gisa jarritako balioa egiaztatuta eman daiteke 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrek, 56. artikuluan jasotakoaren arabera. Batez besteko prezioak izango dira interesatuak Zerga Administrazioari bisatua eskatzen dionean indarrean daudenak. Aitorpenean jasotako balioa egiaztatu behar da, era berean, Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak autolikidazioan aipatutako ibilgailurako onartutako salmentako batez besteko preziorik ez dagoenean.

Gehienez 60 egun izango dira aipatu balioa egiaztatzeko, ibilgailuaren dokumentazioa Zerga Administrazioaren eskura jartzen denetik aurrera. Behin aipatu epea igarota balioa egiaztatu gabe, behin-behinik onartuko da zergapekoak aitortutako zenbatekoa edo balioa. Epea zenbatzeko, aplikaziozkoa izango da 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrek, 100. artikulua 2. apartatuan jasotakoa. Bisatua behin-behinik eman daiteke, zenbatekoa edo balioa aurretik egiaztatu gabe, autolikidazioa aurkezten denean.

Bisatua behin-behinik emateak ez du kentzen Administrazioak geroago autolikidazioaren osagai guztiak egiaztatzea.

3. Garraiobidearen behin betiko matrikulazioa egiteko, egiaztatu behar da zerga ordaindu izana edo, hala badagokio, zergapetu gabe edo salbuetsita egotea aitortu izana.

77. artikulua. Urraketak eta zigorrak.¹⁰⁶

Zerga honetan egindako zerga urraketak Zergen Foru Arau Orokorrean eta orokorki aplikatzeko gainerako arauetan ezarritakoaren arabera kalifikatu eta zigortuko dira.

Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen du. Aldaketak 2008ko urtarilaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2008-02-15eko GAO).

¹⁰⁶ 2007ko urtarilaren batetik aurrera, 78. artikulua birzenbakitu egin da, 77. artikulua bihurtuz. Aipatu aldaketa, martxoaren 6ko 2/2007 FORU DEKRETU ARAUAren 4. artikulua ezarri du. Foru dekretu arau horrek zerga alorreko zenbait neurri ezartzen ditu ibilgailu automobilen parkea modernizatu, bide segurtasuna hobetu eta ingurumena babesteko PREVER programaren inguruan, eta abenduaren 29ko 44/2006 Legeak nekazari eta abeltzaintzat Hidrokarburoen gaineko Zerga dela-eta lurralde erkidean onartutako itzulketa bereziaren inguruan. (2007-03-13 GAO).



HIRUGARREN TITULUA: IKATZAREN GAINEKO ZERGA BEREZIA¹⁰⁷

78. artikulua. Eremu objektiboa.

1. Zerga honen ondorioetarako, ikatza direla jotzen dira Kontseiluaren 1987ko uztailaren 23ko 2658/87 Erregelamenduak (EEE) jasotako aduana eta estatistika nomenklaturaren 2701, 2702, 2704, 2708, 2713 eta 2714 kodeetan sartuta dauden produktuak. Aurrerantzean, "Nomenklatura konbinatua" esango zaio.
2. Nomenklatura konbinatuaren egitura aldatzen denean, foru dekretu honek 18.2 artikuluan jasotakoa aplikatuko da.

79. artikulua. Aplikazioko lurralde eremua.

1. Ikatzen gainera Zerga Berezia Gipuzkoako lurralde historikoan exijituko da foru dekretu honek xedatutakoaren arabera.
2. Nazioarteko hitzarmen eta itunduetan jasotakoa eragotzi gabe ulertuko da aurreko paragrafoan xedatutakoa.

80. artikulua. Zerga-gaia.

1. Ikatza kontsumitzeko saltzea zergapetuta dago.
2. Aurreko apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, "kontsumitzeko saltzea" direla jotzen dira eragiketa hauek:
 - a) Foru dekretu honek 4. artikuluan definitutako barruko lurralde eremuan egiten den lehendabiziko salmenta edo ematea, baldin eta ikatza atera, inportatu edo Batasun barruan erosi ondoren egiten bada. Lehen salmenta edo ematea direla joko dira, era berean, ikatza berriro saltzera zuzentzen duten eta foru dekretu honek 82.1 artikuluan araututako salbuespena aplikaziozkoa izan zaien enpresariak egiten duten ondorengo salmenta edo emateak.
 - b) Ikatzen autokontsumoa. Xedapen honen ondorioetarako, autokontsumotzat hartzen da aurreko letran aipatutako ekoizle edo erauzleak, inportatzaileak, batasun barruko erosleak edo enpresariak egiten duten ikatzen erabilpena edo kontsumoa.

¹⁰⁷ Titulu hau otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUAREN 4. artikuluko hiru apartatuak gehitu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen du. Aldaketa 2007ko urriaren 27an jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren likidazioetan aplikatuko da. (2008-02-15eko GAO).



3. Ikatza kontsumitzeko saldu dela joko da subjektu pasiboek ekoiztu, inportatu edo erosi den ikatza zertan erabili duten frogatzen ez dutenean.

81. artikulua. Zergari lotu gabeko kasuak.

1. Ez dira zergari lotuta egongo ekoizleak edo erauzleak, inportatzaileak edo batasun barruko erosleak foru dekretu honek 4.0 artikuluan jasotako barruko lurralde eremutik kanpoko destino batera zuzenean igortzea dakarten salmentak edo emateak.

2. Aurreko 1. apartatuan jasotakoa eraginkorra izango bada, baldintza hauek bete behar dira:

a)¹⁰⁸ Ikatza bidaltzen bada foru dekretu honen 4.7 artikuluan definituta dagoen “Erkidegoaren lurraldera” –zerga bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legeak 76. artikuluan ematen duen definizioa aintzat hartu gabe–, hura bidali duen enpresariak frogatu behar du, hala eskatzen bazaio, ikatza jasotzen duena estatu kidean erregistratutako enpresa dela, estatu kide horretako araudiaren arabera, eta hartzaileak ikatza jaso duela. Kanarietako Autonomia Erkidegora egindako ikatz igorpenak ondorengo letran xedatutakoari jarraituz arautuko dira.

b) Baldin eta igorpena aurreko letran jasotakoa ez den zergaren aplikazioko lurralde eremutik kanpoko destino batera egiten bada, igortzen duen enpresariak ikatzaren inportazioa frogatu beharko du aduanako dokumentazioaren bidez edo, hala badagokio, Kanarietako Autonomia Erkidegora igorritz.

3. Ez da zergari lotuta egongo ekoizleek edo erauzleek ekoizpen edo erauzpen instalazioen barruan zuzenean jarduera horiei lotuta ikatza autokontsumitzea.

82. artikulua. Salbuespenak.

1. Salbuetsita dago foru dekretu honek 4.0 artikuluan jasotako barruko lurralde eremuan ikatza berriro saltzera zuzentzen duten enpresariei egindako lehen salmenta edo ematea.

2. Salbuetsita dago erositako ikatza zergaren aplikazioko lurralde eremutik kanpora igortzera zuzentzen duten enpresariei egindako lehen salmenta edo ematea. Salbuespen hau eraginkorra izango bada, foru dekretu honek 81.2 artikuluan jasotako baldintzak bete behar dira.

Dena den, horrela erositako ikatza foru dekretu honek 4.0 artikuluan definitutako barruko lurralde eremuan kontsumitzera zuzentzen bada, ikatza destino horretara aplikatzen den unean joko da lehen salmenta edo ematea egin dela.

¹⁰⁸ Letra hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 2 artikuluko hemeretzi apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditun.



3. Zergatik salbuetsita daude ikatza kontsumitzeko saltzea dakarten eragiketak, ikatzari erabilpen hauek ematen zaizkionean:

- a) Energia elektrikoa sortzea eta elektrizitatea eta beroa kogeneratzea.
- b) Erredukzio kimikoa, eta prozesu elektrolitikoak eta metalurgikoak.
- c) Prozesu mineralogikoak. Prozesu mineralogikotzat hartzen dira Kontseiluaren 1990eko urriaren 9ko 3037/90 Erregelamenduak (EEE) ezarritako NACE nomenklaturako DI 26 kodean sailkatutakoak ("metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuen industriak").
- d) Erregai gisa, etxe eta egoitzetako kontsumoaren eremuan. Ikatzari erabilpen hori ematen zaiola joko da industriakoak ez diren amaierako kontsumitzaileei saldu edo ematen zaienean.
- e) Errekuntza ez dakarren edozein prozesu.

83. artikulua. Kuotak itzultzea.

1. Aurrez ordaindu diren Ikatzaren gaineko Zergaren kuotak itzultzeko eskubidea izango dute foru dekretu honek 4.0 artikuluan definitutako barruko lurralde eremutik kanpoko destino batera ikatza igortzen duten enpresariak.

2. Kuotak itzuliko badira, baldintza hauek bete behar dira:

a) Benetan igorri izana foru dekretu honek 81.2 artikuluan jasotakoaren arabera frogatuko da.

b) Itzultzeko eskatzen diren kuotak aurrez ordaindu izana aitorpen-likidazioan jasotako interesatuarentzako alea aurkeztuta frogatuko da. Dena den, ikatza igortzen duen enpresaria subjektu pasiboa edo ordaintzera behartutako erantzulea ez denean, kuotak ordaindu izana kuotak aipatu enpresariari ordainarazi zaizkiola jasotzen duen fakturaren bidez frogatuko da.

3. Itzultzen diren kuoten zenbatekoa eta jasandako kuoten zenbatekoa berberak izango dira. Dena den, zenbateko hori zehatz-mehatz mugatzea ezinezkoa denean, kuotak zehazteko, itzulketa eskubidea dakarren eragiketaren data baino hiru hilabete lehenago indarrean dagoen tasa aplikatuko da.

4. Itzulketa behin-behinik baimendu daiteke. Behin-behineko itzulketak behin betikoak izango dira Zerga Ikuskaritzak egindako egiaztapenaren ondorioz edo, bestela, haiek lau urteko epean egiaztatu ez direnean itzulketa eskubidea dakarren eragiketaren datatik aurrera.

84. artikulua. Subjektu pasiboak.

1. Zergaren subjektu pasiboak dira zergari lotutako salmenta edo emateak edo autokontsumo eragiketak egiten dituzten ekoizle edo erauzleak, inportatzaileak edo batasun barruko erosleak.



2. Foru dekretu honek 82.2 artikulua bigarren paragrafoan araututako kasuetan, subjektu pasiboak izango dira ikatza erosten duten eta foru dekretu honek 4.0 artikuluan definitutako barruko lurralde eremuan kontsumitzera zuzentzen duten enpresariak.

85. artikulua. Zerga sortzea.

1. Ikatza erosleen eskura jartzen den unean edo, hala badagokio, autokontsumitzen den unean sortuko da zerga.
2. Foru dekretu honek 80.3 artikuluan jasotako kasuetan, ikatzari emandako erabilpena justifikatu gabe dagoela egiaztatzen den unean sortuko da zerga.
3. Foru dekretu honek 82.2 artikulua bigarren paragrafoan araututako kasuetan, ikatza foru dekretu honek 4.0 artikuluan definitutako barruko lurralde eremuan kontsumitzera zuzentzen den unean sortuko da zerga.

86. artikulua. Oinarri ezargarria.

1. Zergaren oinarri ezargarria zergapeko eragiketei lotutako ikatzaren energia ahalmena izango da, gigajouletan neurtuta (GJ).
2. Oinarri ezargarria zuzeneko zenbatespenaren erregimenean zehaztuko da. Oinarri ezargarriaren zeharkako zenbatespena martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoa Zergen Foru Arau Orokorrak, jasotako kasuetan eta moduan aplikatuko da.

87. artikulua. Zerga tasa.

Zergaren tasa 0,15 euro izango da gigajoule bakoitzeko.

88. artikulua. Zerga ordainaraztea.

1. Subjektu pasiboek, hala badagokio, sortutako kuoten zenbatekoa ordainarazi behar diete ikatz erosleei, eta horiek jasatera behartuta daude.
2. Indarrean dagoen araudiari jarraituz zergapeko eragiketa fakturan edo agiri baliokidean dokumentatu behar denean, sortutako kuotak agiri horretan ordainaraziko dira hartan jasotako gainerako kontzeptuetatik bereizita. Zergari lotuta edo horretatik salbuetsita dauden eragiketak direnean, aldiz, zirkunstantzia hori agirian aipatuko da, foru dekretu honek onura horren aplikazioa zein xedapenetan oinarritzen duen adierazita.

89. artikulua. Kudeaketa arauak.

1. Subjektu pasiboak behartuta daude sortutako kuoten aitorpen-likidazioa hiru hilean behin aurkeztera eta aldi berean zerga zorra ordaintzera. Obligazio hori ez zertan bete dena delako zergaldian ordaintzeko kuotarik ez dagoenean.



2. Subjektu pasiboak behartuta daude, era berean, zergaren eremu objektiboan jasotako produktuei dagokienez egindako eragiketen urteko aitorpen laburtzaile bat aurkeztera.

3. Ogasun eta Finantza diputatuak aurreko apartatuan aipatutako aitorpenak aurkezteko ereduak, epeak, beharkizunak eta baldintzak ezarriko ditu.

90. artikulua. Urraketak eta zigorrak.

Zerga honen urraketak 2005eko martxoaren 8ko 2/05 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, xedatutakoaren arabera sailkatu eta zigortuko dira.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA¹⁰⁹

1. Espainian behin betiko matrikulatu behar dira foru dekretu honek jasotako garraiobide berri edo erabiliak, Espainian egoiliar diren edo Espainian kokatutako establezimenduen titular diren pertsonak edo entitateek lurralde espainiarrean erabiltzekoak direnean.

2. Garraiobideen matrikulazioari buruzko berariazko araudian jasotakoa eragotzi gabe, ez da exijituko aurreko apartatuan jasotako obligazioa betetzea foru dekretu honek 70. artikuluan 1. zenbakiko d) letran jasotako Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren exijentziari dagokionez eta xedapen horretan jarritako epeen barruan:

a) Zerga autolikidatu edo ordaindu bada, edo.

b) Zerga Administrazioari eskatu bazaio zergapetu gabeko edo zergatik salbuetsitako kasu baten aplikazioa bidezkoa dela aurretik aitortu dezala, horrela aurreikusitako kasuetan, edo.

c) Zerga Administrazioari aitorpen bat aurkeztu bazaio zergaren salbuespen bati dagokionez.

3. Garraiobideen matrikulazioari buruzko berariazko araudian jasotakoa eragotzi gabe, ez da exijituko aurreko 1. apartatuan jasotako obligazioa betetzea ere, Zerga Administrazioak matrikulazio hori zergapetzeari dagokion zerga likidatu duenean eta dena delako zenbatekoa ordaindu denean.

4. Aurreko apartatuetan jasotako obligazioa betetzen ez dela egiaztatzen denean, Zerga Administrazioako organoek edo trafikoari, bide segurtasunari, nabigazioari edo aire nabigazioari buruzko arloan eskumena duten organoek zergapekoari bost eguneko epea emango diote, hura bete dezan edo kreditu entitate baten edo elkarrekiko bermedun sozietate baten abal solidarioa edo

¹⁰⁹ Xedapen gehigarri hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUaren 3. artikuluko zortzigarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Bereziaren aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.



kauzio aseguru baten ziurtagiria aurkeztu dezan, betiere Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Berezia ordaindu dela bermatze aldera. Behin igarota epe hori behin betiko matrikulatu gabe edo abal edo ziurtagiri hori aurkeztu gabe, organo horiek garraibidea ibilgetuko dute harik eta horren administrazio eta zerga egoeraren erregularizazioa frogatu arte. Dena den, zergapekoak abal solidarioa edo aseguruaren ziurtagiria aurkezten duenean, garraibidea ibilgetzeari utziko zaio.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.

1999ko ekainaren 30era arte, Fabrikazio Zerga Bereziak ez dira exigituko Europako Batasuneko estatu batetik bestera bidaiariek egindako joan-etorria dela-eta zergez salbuetsitako denda batean edo Batasuneko estatuen arteko hegaldi batean edo itsas bidaia batean hegazkin edo itsasontzi baten barruan egindako zergapeko produktuen erosketei dagokienez. Onura hau bidaiariek norberaren ekipaje gisa eramaten dituzten ondasunetara mugatuko da, zerga hauen salbuespenaz hirugarren herrialdeetatik datozen bidaiariek egindako inportazioetarako ezarritako kopuruak baino handiagoak ez diren kopuruetan.

Tratamendu bera emango zaie, Mantxako Kanalaren azpiko tunelaren bi terminaletako baten esparruan dauden saltokietan erositako produktuei dagokienez, bi terminalen arteko zeharbiderako balio duen garraio agiri bat daukaten bidaiariei.

Bigarrena.

1. Industria, merkataritza, nekazaritza, klinika edo zientzia aplikaziorako soilik diren ibilgailuek, Zerga Administrazioak beren serieko modeloak 1993ko urtarrilaren 1a baino lehen homologatu baditu, homologazio horri eutsiko diote foru dekretu honetako 70. artikulua 1.a).3 apartatuan jasotakoaren ondorioetarako.

2. (indargabetua)¹¹⁰

3. (indargabetua)¹¹¹

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

¹¹⁰ Apartatu hau otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUAren 5. artikuluko bost apartatuak indargabetu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen du. Aldaketak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2008-02-15eko GAO).

¹¹¹ Apartatu hau otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUAren 5. artikuluko bost apartatuak indargabetu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen du. Aldaketak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2008-02-15eko GAO).



Indarrik gabe geratuko dira foru dekretu honek xedatutakoaren aurka doazen xedapen guztiak eta, bereziki, abenduaren 29ko 103/1992 Foru Dekretua, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen xedapenetara egokitzen duena.

Foru dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, foru dekretu honi buruzko aipamena dela ulertu beharko da Gipuzkoako lurralde historikoaren araudian abenduaren 29ko 103/1992 Foru Dekretua, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen xedapenetara egokitzen duena, eta bere artikulatua aipatzen diren bakoitzean.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Bigarrena. Arauak emateko ahalmena.

Diputatu Kontseiluak eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak, nork bere eskumenen esparruan, foru dekretu hau garatu eta gauatzeko behar diren xedapen guztiak emango dituzte.



ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Martxoaren 9ko 26/1999 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia eremu komunean onartutako legeen zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duena (martxoaren 17ko GAO, 51 zenbakiduna).*
 - 2. artikulua 50. artikularen 1. apartatuko 1. tarifa eta 54. artikularen 2. apartatua aldatuzten ditu. 65. artikularen A) letrari 6. apartatua gehitzen dio. eta 70. artikularen 1.a) apartatuko 2. puntuaren hirugarren parrafoa ezabatzen du.
- *Otsailaren 1eko 3/2000 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasotzen dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duena.(2000-2-11ko GAO)*
 - 2. artikulua 50. artikularen lehen tarifako 1.8 epigrafea, eta 76. artikularen 2. apartatuko a) letra aldatu ditu.
- *Urtarrilaren 30eko 2/2001 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen duena. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. (2001-02-08ko GAO)*
 - 3. artikulua, 54. artikularen 2 apartatua, 70. artikularen 3 apartatua eta 71. artikulua aldatzen ditu.
- *Uztailaren 6eko 24/2001 FORU ARAUA, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua eta zerga izaerako beste arau batzuk aldatzen dituena. (2001-07-16ko GAO*
 - Bere 13.artikulua 8.3 artikuluko lehen apartatua aldatzen du.



- *Otsailaren 26eko 5/2002 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (2002-03-08ko GAO)*
 - Bere 3. artikulua hurrengo prezeptuak aldatzen ditu: 8. artikuluko 4 eta 5 apartatuak; 26. artikuluko 1 apartatua; 34. artikulua; 39. artikulua; 40. artikuluko 2 apartatuko a) hizkiko 5.º zenbakia; 40. artikuluko 2 apartatuko b) hizkiko 5.º zenbakia; 40. artikuluko 4 apartatua; 41. artikulua; 51. artikuluko 2 apartatuko c) hizkia eta 60. artikulua; eta pezetatan finkaturik dauden zenbatekoak eurotan adierazten ditu.
- *Martxoaren 11ko 220/2002 FORU AGINDUA, zerga bereziei buruzko zenbait gai arautzen dituen. (GAO 2002-03-20)*
 - Bere 1. Artikuluak hurrengo prezeptuak aldatzen ditu, 49.1 artikuluko a), b) c), d), e) f) eta g) hizkiak, eta 50 artikuluko 2. Tarifako 2.8, 2.9, 2.10, eta 2.11 epigrafeak.
- *Urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUA, Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duena. (2003-02-06ko GAO).*
 - Bere 10. artikulua 2. artikuluko 1 apartatua aldatu du.
- *Otsailaren 25eko 5/2003 FORU DEKRETUA, foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen dituen. (GAO 2003-03-06).*
 - Bere 2. artikulua hurrengo prezeptuak aldatzen ditu: 4. artikuluen 7 eta 8 apartatuak, 35. artikuluko a) eta c) letrak, 50. artikuluen 1 apartatuko 1 tarifako 1.6 eta 1.12 epigrafeak, 51. artikuluen bi apartatuko c) letra, 51. artikuluen 3 apartatua, 59. artikuluen 1 apartatua eta 76. artikuluen 1 apartatua.
 - Era berean, 2. artikuluko honek 50 bis artikulua eta 21. artikuluen 1 apartatuari beste paragrafo bat gehitu dio.
 - Bere bigarren xedapen iragankorrak erregimen iragankorra ezartzen du, hidrokarburoen gaineko Zergan kutsagarritasun txikiagoko produktuen garapen teknologien aldeko jardura aitzindarietarako jasota dauden salbuespenetan.



- *10/2004 FORU DEKRETUA, otsailaren 24koa, hainbat zerga xedapen lurralde komunean egindako lege aldaketa batzuetara egokitzen dituen.* (GAO 2004-03-02).
 - Bere 3. artikulua 15. artikularen 5 eta 7 apartatuak aldatu ditu; 50. bis artikularen 2 apartatuko c) letra eta 51. artikularen 3 apartatuko c) letrak aldatu ditu eta 54. artikuluko 1. apartatuari bigarren paragrafoa erantsi dio.
- *Ekainaren 29ko 64/2004 FORU DEKRETUA, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrak amaierako bosgarren eta seigarren xedapenetan BEZari eta zerga bereziei dagokienez, hurrenez hurren, sartutako aldaketak Gipuzkoako araudira egokitzen dituen* (GAO 2004-07-06).
 - Bere 2. artikulua 19. artikulua, 35. artikulua, 45. artikularen 1 eta 2 apartatuak eta 55. artikularen 1, 4 eta 5 apartatuak aldatu ditu.
- *Otsailaren 1eko 6/2005 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia abenduaren 27ko 2/2004 Legeak, Estatuko 2005erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, onartutako xedapen jakin batzuetara egokitzen duena* (GAO 2005-02-10).
 - 1 artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu: 23. artikuluko 4 eta 5 apartatuak; 26. artikulua; 34. artikulua; 39. artikulua; 40. artikularen 2 apartatuko a) eta b) paragrafoen zenbakia eta 4 apartatua; 41. artikulua; 60. artikuluko 2. epigrafea.
- *Gipuzkoako Lurralde Historikoko martxoaren 8ko 2/2005 Zergen FORU ARAU Orokorra* (2005-03-17 GAO).
 - Bere amaierako zortzigarren xedapenak hurrengo prezeptu hauek aldatu ditu: 12. artikuluko 2. apartatua, 14. artikuluko 4. apartatua, 19. artikulua, 23. artikuluko 7. apartatua eta 40. artikuluko 5. apartatua.
- *Abenduaren 27ko 2/2005 FORU DEKRETU ARAUA, ZERGA ALORREKO PRESAZKOA, 22/2005 eta 23/2005 legeak lurralde komunean sartutako aldaketetara Gipuzkoako zerga araudia egokitzea* (2005-12-30eko GAO).
 - Bere 2. artikulua prezeptu hauek aldatu ditu: 46. artikulua; 49. artikuluko 1 apartatua; 50. artikuluko 1 eta 3 apartatuak; 50 bis artikulua; 51. artikuluko 1



eta 3 apartauak; 52. artikuluko a) letra; 53. artikuluko 4 eta 5 apartatuak eta 6. apartatu bat gehitu dio; 54. artikulua; eta 67. artikulua.

- *Otsailaren 21eko ZERGA ALORREKO PRESAZKO 1/2006 FORU DEKRETU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia 30/2005 Legeak eta 1/2006 eta 2/2006 Errege Lege-Dekretuek lurralde komunean sartutako aldaketetara egokitzea (2006-03-02ko GAO).*
 - 2. artikulua 60. artikulua aldatzen du.
- *Urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen duena (2007-1-15eko GAO).*
 - 3. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu: 50. artikuluen 1. tarifako 1.3 eta 1.5 epigrafeak; 51. artikuluko 4. apartatua indargabetzen du; 52 bis artikulua; 60. artikuluko 5 apartatua; 71. Artikuluren 1 apartatuko f), j) eta k) letrak eta 77. artikulua.
- *Martxoaren 6ko 2/2007 FORU DEKRETU ARAUA, zerga alorreko zenbait neurri ezartzen dituen ibilgailu automobilen parkea modernizatu, bide segurtasuna hobetu eta ingurumena babesteko PREVER programaren inguruan eta abenduaren 29ko 44/2006 Legeak nekazari eta abeltzaintzat Hidrokarburoen gaineko Zerga dela-eta lurralde erkidean onartutako itzulketa bereziaren inguruan.*
 - 4. artikulua 76 prezeptua indargabetu egin du. Hori dela eta, 77. eta 78. artikulua birzenbakitu dira, haien edukia ezertan aldatu gabe, eta aurrerantzean 76. eta 77. artikulua izango dira hurrenez hurren.
- *Otsailaren 11ko, 1/2008 FORU ARAUA, Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoaren finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen duena (2008-02-15eko GAO).*
 - 4. artikulua aldaketa hauek sartzen ditu:
 - 1. artikulua aldatzen du.



- 2. artikulua aldatzen du.
 - Hirugarren titulua gehitzen du.
 - 5. artikulua aldatzen du:
 - 50.1 artikuluan jasotako bigarren tarifaren 2.13 epigrafea aldatzen du.
 - 70. artikuluko 1. eta 2. apartatuak aldatzen ditu.
 - 75 eta 76. artikulua aldatzen ditu.
 - Bigarren xedapen iragankorraren 2. eta 3. apartatuak indargabetzen ditu.
- *Urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Araua, honako zergak aldatzen dituena: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primeren gaineko Zerga (2009-01-16ko GAO; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO)*
 - 4. artikulua prezeptu hauek aldatu ditu:
 - 21. artikuluen 2. apartatuaren a) letra.
 - 70. artikuluen 1. apartatuaren a) letraren 4. puntua.
 - 71. artikuluari 5. apartatua gehitu dio.
 - 74. artikuluen b) paragrafoa.
 - 75. artikuluen 1. eta 2. apartatuak.
- *Ekainaren 30eko 4/2009 FORU DEKRETU ARAUA, Zerga Bereziak aldatzen dituena. (2009-07-06ko GAO)*
 - Artikulu bakarreko Bat apartatuak 50. artikuluen 1. tarifako 1.1 eta 1.3 bitarteko epigrafeak aldatu ditu.
 - Artikulu bakarreko Bi apartatuak 60. artikulua aldatu du.
- *1/2010 FORU DEKRETU ARAUA, urtarrilaren 12koa, zenbait zerga aldatzen dituena (2010/01/21ko GAO).*



- Bere 4. artikuluko prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 52 bis artikuluko 6 apartatuaren a) letra.
 - 52 ter artikulua gehitzen du.
 - 75. artikuluko 1. apartatua.
- *2/2010 FORU DEKRETU ARAUA, martxoaren 30ekoa, zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen duena (2010-04-19ko GAO).*
 - Bere 2. artikuluko lehena apartauak prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 4, 5, 7, 8, 11, 16, 17, 53, 63, 65 eta 69. artikuluko aldatzen ditu.
 - 3. apartatua gehitzen dio 6. artikuluari.
 - 13. artikuluko 2. apartatua aldatzen du.
 - 19. artikuluko 5. apartatua aldatzen du.
 - 3. apartatua gehitzen dio 21. artikuluari.
 - 49. artikuluko 1. apartatuko o) letra aldatzen du.
 - 50. artikuluko 3 apartatua aldatzen du.
 - 3. apartatua gehitzen dio 61. artikuluari.
 - 81. artikuluko 2. apartatuko a) letra aldatzen du.
 - Bere 2. artikuluko bigarren apartatuak 71. artikuluko 1 apartatua aldatzen du.
- *6/2010 FORU DEKRETU-ARAUA, abenduaren 21ekoa, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan eta zerga berezien araudian aldaketak sartzekoa (2010/12/24ko GAO).*
 - Bere 2. artikuluko 60. artikulua aldatzen du.



- *1/2011 FORU DEKRETU ARAUA, otsailaren 1ekoa, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen dituen (2011/02/09ko GAO).*
 - Bere 3. artikulua prezeptu hauek aldatze ditu:
 - 59. artikulua 1.etik 5.era bitarteko apartatuak.
 - 70. artikulua 1. apartatuko a) letraren 1. zenbakiko lehen paragrafoa.
 - 70. artikulua 2. apartatuko c) letra.
 - 70. artikulua 3. apartatuko lehen paragrafoa.
 - 4. apartatua gehitzen zaio 70. artikuluari.
 - 71. artikulua 1.etik 3.era bitarteko apartatuak.
 - 75. artikulua 4. eta 5. apartatuak.
 - Xedapen gehigarri bakarra.
- *2/2011 FORU DEKRETU-ARAUA, irailaren 20koa, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzea onartzen duena (2011/09/26ko GAO).*
 - Bere hirugarren artikulua 18. artikuluko 7. apartatuari e) letra gehitzen dio.
- *29/2012 FORU AGINDUA, urtarrilaren 18koa, zeinaren bidez eguneratzen baitira Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea egokitzen duen martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak jasotzen duen nomenklatura konbinatuko kodeen erreferentziak (2012/01/23ko GAO).*
 - Jarraian aipatzen diren prezeptuetan aldatzen ditu erreferentzia kodeak:
 - 46. artikulua 1. apartatuko g) letraren 2 zenbakian.
 - 49. artikulua 1. apartatuko a), b), c), f) eta g) letretan.
 - 50. artikulua 1. apartatuko 2. tarifako 2.8 eta 2.11 epigrafeetan.



- *1/2012 FORU DEKRETU-ARAUUA, urtarrilaren 24koa, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen dituen (31/01/2012ko GAO).*
 - Bere 3. artikulua 52 bis artikularen 6. apartatuko a) letra aldatzen du.

- *2/2012 FORU DEKRETU-ARAUUA, maiatzaren 8koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Tabako Laboreen gaineko Zerga Berezian aldaketak sartzen dituen (2012/05/14ko GAO).*
 - 59. artikuluko 5. apartatua eta 60. artikulua aldatzen ditu.

- *3/2012 FORU DEKRETU- ARAUA, uztailaren 27koa, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen dituen (2012/08/13ko GAO).*
 - 3. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 50.1 artikuluko 1. tarifaren 1.2.1 epigrafea.
 - 50.1 artikuluko 1. tarifaren 1.11. epigrafea.
 - 60. artikularen 1. eta 3. epigrafeak.

- *Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretua, aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzkoa (2012/07/14ko EAO).*
 - 24. artikulua 60. artikuluko 2. epigrafea aldatzen du.